

**Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua**



HUAWEI P9

Erabiltzailearen eskuliburua



Edukia

Berebiziko funtzio berriak

Irekidura handiko argazkiak	1
Zuri-beltzeko argazkiak	2
Desplazamendu bidezko pantaila-argazkiak	2
Profesional modua	3
Pantaila-grabazioa	5

Telefonoari bilgarria kentzea

Telefonoari buruzko informazioa	8
SIM eta microSD txartelak sartzea	8
Telefonoa kargatzea	9
Telefonoa piztea eta itzaltzea	10

Datu-transferentzia

Aplikazioaren erabilera Datuak transferitzeko segurtasun-kopia	11
Telefono baten eta ordenagailu baten artean datuak transferitzea	13
Telefono batetik berria den beste batera kontaktuak kopiatzea	13

Lehen erabilera eta hasierako konfigurazioa

Hasierako konfigurazioa	15
Bi SIM txartelen doikuntzak	15
Internetera konektatzea	17
Hatz-marken IDa konfiguratzea	18

Aplikazioak instalatzea

microSD txartel baten bidez aplikazioak partekatzea	19
Aplikazioak desinstalatzea	19

Hasierako urratsak

Pantaila blokeatzea eta desblokeatzea	20
Ukipen-pantailaren aukerak	22
Egoera- eta jakinarazpen-ikonoak	23
Pantaila nagusia	24
Pantaila-argazkiak egitea	30
Jakinarazpenak	31
Hatz-marken bidezko ezagutza erabiltzea	34
Aplikazioetara sartzea	36
Telefonoa pertsonalizatzea	39
Testua idatzi	42

Iradokizunak eta trikimailuak

Bolumen altua modua	45
---------------------	----

Doikuntzak bilatzea	45
Deiak bizkor itzultzea	45
Hatz-koskorak erabiltzea	46
Kontaktuen xehetasunak bizkor eranstea	47
QR txartela partekatzea	47
Pantaila itzalita dagoela kontaktuei deitzea	48
Sakelako modua	48
Pantaila itzalita dagoela bat-bateko argazkiak egitea	49
Selfiea hobetu funtzioa	49
Kamera bizkorra modua erabiltzea ekintza aurreratzeko	50
Bideo-grabazio bat egiten ari dela argazkiak ateratzea	50
Dei bati erantzutea edo ez onartzea ahots-komandoak erabilia	51
Ahots bidezko aktibazioa erabiltzea	52
Aplikazioak bizkor bilatzea	52
Seinale-intentsitate handiena duen WiFi sarera konektatzea	52
Telefonoa eskularruekin erabiltzea	53
Sistemaren bolumena bizkor doitzea	54
Botoi mugikorra erabiltzea	54
Pantaila nagusiko aplikazioak automatikoki lerrokatzea	55
Ukipen-pantaila desgaitua modua	55

Deiak eta kontaktuak

Deiak egitea	57
Deiei erantzutea edo ez onartzea	60
Deian erabilgarri dauden funtzioak	60
Hirugarren batzuen deiei erantzutea	62
Konferentzia-deiak egitea	62
Dei-erregistroa ikustea	63
Sakelako modua aktibatzea	63
Deien doikuntzak	64
Kontaktuak sortzea	66
Kontaktuen xehetasunak bizkor eranstea	66
Kontaktuak inportatzea eta esportatzea	67
Kontaktuak kudeatzea	69
Kontaktuak bilatzea	70
Kontu bateko baino gehiagotako kontaktuak ikustea	70
Kontaktuak gogokoetara gehitzea	71
Kontaktu-taldeak	71

Mezuak eta posta

Mezuak bidaltzea	73
Mezuei erantzutea	74
Mezuak bilatzea	74

Elkarrizketak ezabatzea	74
Mezuak kudeatzea	74
Jaso nahi ez diren mezuak blokeatzea	75
Ohar bizkorrak kudeatzea	75
Mezuei sinadura gehitzea	76
Posta elektronikoko kontuak gehitzea	76
Mezu elektronikoak bidaltzea	77
Mezu elektronikoak berrikustea	78
VIP kontaktuak kudeatzea	78
Kontu baten doikuntzak	79

Kamera eta galeria

Bisorera sartzea	80
Argazkiak ateratzea	80
Argazkiak ateratzeko moduak	81
Edertasun modua	82
Selfiea hobetu modua	82
Bat-bateko argazki bizkorra	84
Argazki-sorta ateratzea	85
Argazkia ahots bidez aktibatzea	86
Kamera Galeriatik abiaraztea	86
Objektuen segimendua	87
Audio-oharrak	87
HDR modua	88
Supergaua modua	88
Profesional modua	89
Pintura argiduna modua	91
Argazki panoramikoak	95
Argazkiei ur-markak gehitzea	97
Bideoak grabatzea	97
Kamera lasterra modua	98
Kamera geldoan grabatzea	99
Dokumentuak zuzentzea	99
Kameraren eta bideoaren doikuntzak	100
Argazkiak edo bideoak ikustea	102
Album berri bati argazkiak edo bideoak gehitzea	104
Argazkiak edo bideoak beste album batzuetara eramatea	104
Irudiak edo bideoak ezabatzea	104
Irudiak edo bideoak partekatzea	105
Albumak kudeatzea	105
Irudiei oharrak gehitzea	105
Irudiak editatzea	105

Kamera edo galeria erabiltzea QR kodeak eskaneatzeko	107
Musika eta bideoak	
elefonoan abestiak sartzea	108
Musikaren bilaketa lokala	108
Musika entzutea	108
Erreprodukzio bat entzungailu adimendunen bidez kontrolatzea	109
Erreprodukzio-zerrendak sortzea	110
Erreprodukzio-zerrendak entzutea	111
Abesti bat dei-tonu gisa konfiguratzea	111
Bideoak erreproduzitzea	111
Interneteko sarbidea	
Datu mugikorren bidez konektatzea Internetera	112
WiFi bidez konektatzea Internetera	112
Internet mugikorra beste gailu batzuekin partekatzea	114
Datuak bluetooth bidez transferitzea	117
Datuak Wi-Fi Directo bidez transferitzea	118
Telefono baten eta USB biltegitratze-gailu baten artean datuak transferitzea	119
Multimedia-edukia sekuentziaka transmititzea telebistan	121
NFC eta ordainketak	121
Segurtasun-kopiak egitea eta leheneratzea	
Segurtasun-kopia aplikazioa segurtasun-kopiak egiteko eta datuak leheneratzeko erabiltzea	124
Fabrikako doikuntzak berrezartzea	125
Telefonoa eguneratzea	125
OTA eguneratzeak	126
Fitxategiak kudeatzea	
Fitxategiak bistaratzea	127
Fitxategiak partekatzea	128
Karpetak sortzea	128
Fitxategien izenak aldatzea	128
Fitxategiak kopiatzea, lekuz aldatzea edo ezabatzea	128
Fitxategiak sortzea edo deskargatzea	129
Argazki txikiak baztertzea	129
Segurtasunean fitxategi pribatuak gordetzea	129
Partekatutako fitxategiak ordenagailuan ikusteko telefonoa erabiltzea	130

Energiaren kudeaketa

Bateriaren kontsumo-estatistikak kontsultatzea	132
Energiaren kontsumoaren murriztea	132
Ultra energia plana gaitzea	133
Pantaila blokeatuta dagoela atzeko planoan dauden aplikazioak ixtea	133
Azteko planoan dauden aplikazioei Internetera sartzea galaraztea	133
Pantaila- eta soinu-doikuntzak	134

Telefonoaren administratzailea

Sistemaren optimizazioa	135
Datuen erabilera administratzea	135
Jazarpen-iragazkia	136
Bateriaren kudeaketa	136

Tresnak

Egutegia	137
Erlojua	138
Eguraldia	141
Ohar-bloka	143
Kalkulagailua	144
Soinu-grabagailua	144
Ispilua	145

Doikuntzak

Kokapenaren sarbidea gaitzea	146
Posizionamenduaren zehaztasuna hobetzea lekuen barnealdean	147
Pantailaren doikuntzak	147
Soinu-doikuntzak	148
Pantaila desblokeatzeko modua aldatzea	148
Keinu- eta nabigazio-doikuntzak	149
Hegazkin modua	151
Botoi mugikorra erabiltzea	152
SIM txartelaren PIN kodea konfiguratzeko	153
Kontu bat konfiguratzeko	153
Data eta ordua konfiguratzeko	154
Sistemaren hizkuntza aldatzea	154
Telefonoaren zehaztapenak ikustea	155
Biltegian libre dagoen lekua ikustea	155
microSD txartel bat zifratzea	155
microSD txartela formateatzeko	156

Irisgarritasun-funtzioak

Telefonoko irisgarritasun-funtzioei buruz	157
TalkBack	157
Zabaltze-ekintzak	159
Esekitzeko piztu/itzali botoia erabiltzea	161
Pantailaren erantzute-denbora doitzea	161
Kolorea zuzentzea	161

Eranskina





Laguntza	162
Informazio pertsonala eta datuen segurtasuna:	162
Segurtasuneko ezaugarrien zerrenda	163
Lege-oharra	164


Berebiziko funtzio berriak



Irekidura handiko argazkiak

Erabili irekidura zabaleko modua objektuei eta pertsoneri lehen planoko argazkiak ateratzeko. Fokatze-puntua ere doitu daiteke argazkiak atera ondoren, atzeko alde desfokuratzeko eta argazki-gaia nabarmentzeko.


i Argazki-gaiak kameratik bi metro (sei oin) baino gutxiagora egon behar du emaitza ona lortzeko.

- 1** Ireki  kamera. Sakatu  pantailaren goiko aldean, irekidura zabalaren modua gaitzeko. Sakatu ikonoa berriro irekidura zabalaren modutik ateratzeko. Ikonoa pantailan agertzen ez bada, hautatu **FOTO** modua.
- 2** Sakatu bisorea eremu jakin batean fokatzeko. Lerratu hatza gora edo behera,  ikonoaren ondoko kontrolean, atzealde lausoaren aurrebista ikusteko. Sakatu  argazki bat ateratzeko.



- 3** Sakatu  miniatura, eta, ondoren,  argazkia editatzeko.

i  ikonoak adierazten du irekidura handia moduan atera direla argazkiak.



- Sakatu argazki-gaia fokatze-puntua doitzeko.
- Atzealde lausoaren efektua aldatzeko, sakatu pantaila, eta lerratu hatza gora edo behera  irekidura-ikonoaren ondoan dagoen kontrola.

- Sakatu  , iragazki bat hautatzeko.

4 Argazkia gordetzeko, sakatu  .

Zuri-beltzeko argazkiak

Kamerak lente indibidual bat du, argazkiak zuri-beltzean ateratzeko berariaz diseinatua.

Ireki  **Cámara**. Lerratu hatza pantailaren eskuinaldera, eta sakatu **MONOCROMÁTICO**. Sakatu  argazki bat ateratzeko.



Pantaila-argazkiak, desplazamendu bidez

Desplazamenduak aukera ematen du pantaila baino tamaina handiagoko argazkiak ateratzeko. Adibidez, pantaila-argazki bakarrean mezu-kate luzeak har daitezke.

- Pantaila-argazkiak desplazamendu bidez ateratzeko, eman bi kolpe leun pantailari, hatz-koskorrekin, eta sakatu **Captura de deslizamiento** pantailaren beheko eskuineko izkinan. Pantaila behera mugituko da, automatikoki.




- Beste aukera bat hau da: S bat marraztea pantailan hatz-koskorrekin.




- i** Sakatu pantaila, hatz bakarrarekin, edozein unetan, desplazamendua geldiarazteko eta lehengo edukiaren argazkia ateratzeko.

Profesional modua

Profesional moduak argazkiak hobetzeko aukera ematen du, eta konposizioa, esposizioa eta obturazio-abiadura erabat kontrolatzeko funtzioak ditu.

1 Ireki  **Cámara** eta lerratu hatz gorantz  kontrolean, Profesional modua gaitzeko.



2 Konfiguratu kameraren doikuntzak: adibidez, esposizioa eta obturazio-abiadura. Espiral edo lauki gainjarriak erants ditzakezu, eta argazkiak formatu gordinetan ekoitzi.

- **Gainezarpenak eranstea:** Lerratu hatza pantailan ezkerrera, eta sakatu Cuadrícula de cámara. Argazki bat osatzeko bi aukera dituzu: espiral-gainezarpena edo 3x3 lauki-gainezarpena. Informazio gehiagorako, kontsultatu [Gainezarpenak eranstea](#) atala.
- **Argazkiak formatu gordinetan ekoiztea:** Lerratu hatza ezkerrera pantailan, eta aktibatu **Formato RAW** hautagailua, argazkiak DNG formatuan gordetzeko eta ondoren errazago prozesatzeko.
- **Esposizioa eta abiadura kontrolatzea:** Doitu pantailaren beheko aldean agertzen diren parametroak, esposizio-maila perfektua duten argazkiak ateratzeko. Hauek konfiguratu ditzakezu: ISOa, obturazio-abiadura, zuri-balantzea, esposizioaren konpentsazioa, fokatzeko modua eta neurketa-modua.



Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Profesional modua](#) atala.

Pantaila grabatzea

Honetarako erabil dezakezu funtzio hori: bideo-jokoetako eszenak grabatzeko edo lagunei eta familiakoei telefonoaren funtzioak erabiltzen erakusteko.

i Zure pribatutasuna babesteko, desblokeatu telefonoa pantaila grabatzen hasi aurretik.

Grabatzen hastea

Pantailaren grabazioa hasteko modu hauek dituzu:


- Eman bi kolpe leun pantailari hatz-koskorrekin, eta hautatu grabatzeko erabili nahi duzun modua.



- Sakatu, aldi berean, bolumena igotzeko eta pizteko/itzaltzeko botoiak, eta hautatu grabazioa egiteko nahi duzun modua.



HD modua eta Mini modua txandakatu ditzakezu. Mini moduan bereizmen baxuagoarekin grabatzen du, eta, beraz, errazago kargatzen diren tamaina txikiagoko fitxategiak sortzen ditu.

-  Soinua ere grabatzen da; beraz, grabazioa inguru isil batean egiten saiatu.
- Grabazioa eten egingo da automatikoki dei bat egiten edo jasotzen duzunean.
- Pantaila grabatzen ari den bitartean, ezin duzu erabili beste aplikazio batzuetako grabazio-funtzioa.
- Zenbat eta luzeagoa izan grabazioa orduan eta barne-memoria gehiago beharko du; beraz, grabatzen hasi aurretik, begiratu nahiko toki baduzun.

Eten grabazioa

Pantailaren grabazioa eteteko modu hauek dituzu:


- Eman bi kolpe leun pantailari hatz-koskorrekin.
- Sakatu, aldi berean, bolumena igotzeko eta pizteko/itzaltzeko botoiak.
- Sakatu pantailaren grabazio-ikonoa; egoera-barraren ezkerreko goiko aldean dago.

Ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu , pantailaren grabazioa partekatzeko.

Lehenespenez, pantailaren grabazioak **Galería** aukeran gordetzen dira, **Grabaciones de pantalla** karpetan.

Telefonoari bilgarria kentzea

Telefonoari buruzko informazioa



Ez estali argi-sentsorea, telefonoaren funtzio batzuei eragingo baitie.


Erabili ezazu argi-sentsorerako berariazko zuloa duen pantaila-babes bat.


SIM eta microSD txartelak sartzea

Telefonoaren ezkerreko goiko aldean, "bi batean" txarteletarako arteka bat dago. Bi nanoSIM txartel sar ditzakezu, edo nanoSIM txartel bat eta microSD txartel bat.

Iradokizunak:

- Telefonoak nanoSIM txartelak bakarrik onartzen ditu. Jarri harremanetan operadorearekin nanoSIM txartel berri bat edo ordezkotzat bat eskuratzeko.
- NanoSIM txartel estandarrek bakarrik erabili, SIM txartelen ontzia ez hondatzeko.
- Begiratu txartela ondo jarrita eta ontziarekin parekatuta dagoen, telefonoan sartu aurretik.
- Kontuz ibili SIM txartelak ateratzeko tresna erabiltzean, minik hartu gabe eta telefonoa hondatu gabe.
- Ez utzi SIM txartelak ateratzeko tresna haurren eskueran, ustekabearen irentsi edo minik har ez dezaten.

- 1 Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, eta, ondoren, sakatu .
- 2 Txartelen ontzia ateratzeko, sartu SIM txartelak ateratzeko tresna, zeina telefonoarekin batera ematen baitute, txartelen ontziaren ondoan dagoen zulo txikian.



- 3 Sartu SIM txartela edo microSD txartela txartelen ontzian.
- 4 Sartu berriro txartelen ontzia telefonoan, dagokion orientazioarekin.

Telefonoa kargatzea

Energia aurrezteko teknologia eraginkorra duen iraupen luzeko bateria bat du telefonoak. Atal honetan azalduko dugu bateria nola zaindu behar duzun, haren bizitza erabilgarria luzatzeko.






Bateriaren erabilera

- Bateria askotan kargatu dezakezu, baina bateria guztiek dute bizitza erabilgarri mugatua. Bateriaren autonomia nabarmen gutxitu dela nabaritzen baduzu, jarri harremanetan Huaweiaren zerbitzu-zentro baimendu batekin, ordezeko bateria bat eskuratzeko. Bateria telefonoan integratuta dago, eta ezin da atera. Ez saiatu bateria ateratzen.
- Baliteke telefonoaren tenperatura igotzea denbora luzez erabili baduzu edo tenperatura altuetan egon bada. Erabat normala da hori. Telefonoa ukitu eta bero dagoela sentitu baduzu, utzi kargatzeari eta desgaitu behar ez dituzun funtzioak. Jarri telefonoa leku freskoren batean, eta han utzi giro-tenperaturara iritsi arte. Berotzen baldin bada, ez ukitu telefonoa denbora luzez.
- Telefonoa kargatzeko, Huaweiaren bateria, kargagailu eta USB kable originalak bakarrik erabili. Hirugarrenen osagarriak arriskutsuak dira segurtasunerako, eta telefonoaren errendimendua kaltetu dezakete. Ez erabili telefonoa kargatzen ari zaren bitartean. Ez estali telefonoa eta elektrizitate-egokigailua.
- Baliteke kargatzeko denborak desberdinak izatea, giro-tenperaturaren eta bateria-mailaren arabera.
- Bateria-maila txikia dela jakinarazten duen ohar bat bistaratuko da bateriaren maila baxua denean.
- Bateriak nahikoa karga ez duenean, telefonoa automatikoki itzaliko da.

Telefonoari bilgarria kentzea Zoaz Huaweiaren gune ofizialera, eta deskargatu gailuaren erabiltzaile-eskuliburua batera zaintzeari buruzko informazioa eskuratzeko.


Bateriaren egoera-adierazlea


Telefonoaren abisu-argiak eta egoera-barran dagoen bateria-ikonoak adierazten dute bateriaren egoera.

- Egoera-adierazleak keinu gorria egiten badu eta bateriaren ikonoaren ordean  agertzen bada, bateriaren karga % 10etik behera dagoen seinalea.
- Bateriaren egoera-adierazleak eta ikonoak adierazten dute, bateria kargatu bitartean, zein den haren egoera. Egoera-adierazlea gorri baldin badago eta bateriaren ikonoaren ordean  agertzen bada, hau adierazten du: bateriaren karga % 10-etik behera dagoela. Egoera-adierazlea hori baldin badago eta bateriaren ikonoaren ordean  agertzen bada, hau adierazten du: bateriaren karga % 10 eta % 80 bitartekoa dela. Egoera-adierazlea berde baldin badago eta bateriaren ikonoaren ordean  agertzen bada, hau adierazten du: bateriaren karga % 80 eta % 100 bitartekoa dela. Egoera-adierazlea berde baldin badago eta bateriaren ikonoa  baldin bada, adierazten du bateria erabat kargatuta dagoela, eta desentxufatu daitekeela telefonoa kargatzeko kablea.

Pizteko/itzaltzeko botoia sakatzean telefonoak erantzuten ez badu, bateriak kargarik ez du. Kargatu bateria 10 minutuz gutxienez, Huaweiaren kargagailu original bat erabilita, eta, ondoren, piztu telefonoa.

Telefonoa piztea eta itzaltzea

- Telefonoa piztean, luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia telefonoak bibratu eta pantaila piztu arte.
- Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, eta, ondoren, sakatu .


 Pizteko/itzaltzeko botoia 20 segundoz eduki ondoren telefonoak erantzuten ez badu, baliteke bateriak kargarik ez edukitzea. Hala bada, konektatu telefonoa kargagailu batera bateria kargatzeko.

Datuak transferitzea

Segurtasun-kopia aplikazioa erabiltzea datuak transferitzeko

Erabili Segurtasun-kopia aplikazioa aurreko telefonotik berrira datuak transferitzeko.

i Funtzioak desberdinak izan daitezke operadorearen arabera.



Datuen segurtasun-kopia microSD txartel batean

Telefono zaharreko segurtasun-kopia egin dezakezu microSD txartel batean. microSD txartela sartzeko edo ateratzeko moduari buruzko informazioa ikusteko, ikusi [SIM eta microSD txartelak sartzea](#) atala.


i Datu hauen segurtasun-kopia egin dezakezu: kontaktuak, mezuak, dei-erregistroa, argazkiak, audioa, bideoak, fitxategiak eta aplikazioak.

1 Ireki  **Segurtasun-kopia**

2 Sakatu **Copia seguridad > Tarjeta SD > Siguiente**


3 Hautatu segurtasun-kopiak egiteko datuak. Kopia egiteko ez da pasahitzik behar, argazkiek, audioen, bideoen eta dokumentuen segurtasun-kopiak egiteko. Beste datu-mota batzuen segurtasun-kopiak egiteko, segi pantailan agertzen diren jarraibideei, kopiarako pasahitz bat konfiguratzeke.

4 Sakatu **Copia de seguridad**.




i Lehenespenez, segurtasun-kopiako datuak **Huawei Backup** karpetan gordetzen dira, **Archivos** atalean.

microSD txartel bateko datuak berrezartzea

- 1** Sartu telefono berrian segurtasun-kopiaren fitxategia duen microSD txartela. microSD txartela sartzeko moduari buruzko informazioa ikusteko, ikusi SIM eta MicroSD txartelak sartzea atala.
- 2** Ireki  **Segurtasun-kopia**
- 3** Sakatu **Restaurar** > **Restaurar desde tarjeta SD** > **Siguiente**
- 4** Hautatu berrezarri nahi duzun segurtasun-kopia.

i Segurtasun-kopiako datuak zifratuta baldin badaude, sartu zifratzearen pasahitza, hala eskatzen duenean.

- 5** Hautatu berrezarri nahi dituzun datuak, eta sakatu **Iniciar restauración**.



Telefono baten eta ordenagailu baten artean datuak transferitzea

Aurreko telefonotik ordenagailura eta ondoren telefono berrira transferitu ditzakezu datuak.

Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable bat erabilita. Hautatu **Fotos** edo **Archivos**. Ordenagailuak automatikoki instalatuko ditu behar diren kontrolagailuak. Instalatu ondoren, egin bi klik disko-unitate berrian fitxategiak kudeatzeko. Disko-unitatearen izenak telefonoaren modelo-zenbakia izan behar du.

- **Argazkiak:** Ikusi telefonoan gordetako argazkiak.
- **Fitxategiak:** Transferitu fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean.
- Konexio-mota bat zehazten ez bada, telefonoa Karga moduan egongo da.

Aurreko telefono batetik berri batera kontaktuak kopiatzea

Erabili modu hauetako bat aurreko telefonoko kontaktuak berrira kopiatzeko.

SIM txartela

Erabili inportatzeko funtzioa SIM txarteletako kontaktuak telefono berrian kopiatzeko. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi [SIM txarteletik kontaktuak inportatzea](#) atala.

Biltegitratzeko gailua	Bi telefonoek microSD zirriketua badute, esportatu aurreko telefonoko kontaktuak vCard formatuko MicroSD txartel batera eta kopiatu kontaktuak telefono berrian. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi Biltegitratze-gailu batean gordetako kontaktuak inportatzea atala.
Bluetooth	Aktibatu Bluetooth funtzioa aurreko telefonoan eta berrian, eta inportatu kontaktuak funtzio horrekin. Informazio gehiagorako, ikus Kontaktuak inportatzea bluetooth bidez .
Segurtasun kopia	Aurreko telefonoak Segurtasun-kopia funtzioa onartzen badu, egin kontaktuen segurtasun-kopia bat, eta berrezarri telefono berrian. Segurtasunari buruzko informazio gehiago jasotzeko, ikusi Segurtasun-kopia aplikazioa segurtasun-kopiak egiteko eta datuak lehene-ratzeko erabiltzea atala.
Ordenagailua	Sinkronizatu aurreko telefonoko kontaktuak ordenagailuarekin, eta, ondoren, sinkronizatu kontaktu horiek telefono berriarekin, telefonoko kudeaketa-aplikazio bat erabilita (adibidez, HiSuite).
Beste modu batzuk	<ul style="list-style-type: none">• Instalatu sare sozialen aplikazioak eta sinkronizatu kontaktuak.• Abiarazi Exchange-ren kontua, eta sinkronizatu kontaktuak.

Lehen aldiz erabiltzea eta hasierako konfigurazioa

Hasierako konfigurazioa



Telefonoa lehen aldiz erabili aurretik, ziurtatu SIM txartela ondo sartuta dagoela. Telefonoa konfiguratzeko moduari buruzko informazio gehiago izateko, ikus Bizkor hasteko gida.


Piztu telefonoa pizteko/itzaltzeko botoia luze sakatuta, eta segi pantailan agertzen diren jarraibideei, hasierako konfigurazioa osatzeko.

- 1** Hautatu hizkuntza eta eskualdea, eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.
- 2** Zoaz **Ajustes de Wi-Fi** pantailara. Telefonoak automatikoki bistaratuko du eskura dauden WiFi-sareen zerrenda. Hautatu zein saretara konektatu nahi duzun eta idatzi Internetera sartzeko pasahitza.
- 3** Zoaz **Términos y condiciones** pantailara. Irakurri adi edukia, onartu Huaweiaren erabiltzailearen baldintzak eta pribatutasun-politika, eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.
- 4** Pantailan agertzen diren jarraibideei jarraitu behar diezu, WiFi+ gaitzeko.
- 5** Telefonoak hatz-markak ezagutzeko sentsore bat du. Hatz-marka bat eransteke, segitu pantailan bistaratuko diren jarraibideei. PIN edo pasahitz bat konfiguratu beharko duzu pantaila desblokeatzeko, telefonoak hatz-marka digitala ezagutzen ez badu.
- 6** **Se ha configurado** pantailan, sakatu **Comenzar** doikuntzak osatzeko. Itxaron une bat, EMUI interfazea abiarazten den arte. Telefonoa erabiltzen has zaitezke.


Bi SIM txartelen doikuntzak

Bi SIM txartel sartzan direnean, bietako bat bakarrik konfiguratu daiteke 4G/3G/2G SIM txartel gisa. Beste SIM txartelaren zirrikituak 2G sareak bakarrik onartzen ditu. Datu mugikorretarako eta deietarako txartel lehenetsi bat konfiguratu dezakezu, hileko planaren arabera.

 Ireki  **Ajustes**, eta sakatu **Administración de tarjeta doble**. Bi SIM txartelak nahi bezala konfiguratu daitezke.




- SIM txartel bat desgaitzen duzunean, ezingo duzu erabili deiak egiteko, mezuak bidaltzeko edo Internetera sartzeko.
- Hautatu **Llamadas con dos SIM**. Dei bat egiten duzun bakoitzean konfiguratu dezakezu SIM txartel bat eskuz hautatu edo lehenetsitako SIM txartela erabili nahi duzun. Lehenetsitako SIM txartela erabiltzea hautatzen baduzu, funtzio hori bi SIM txartel dituzten telefonoetan bakarrik bistaratzen da.



Internetera konektatzea

Konekta zaitetz Internetera WiFi edo datu mugikorak erabiltuta, webguneetan nabigatzeko, bideo-jokoetan aritzeko eta berehalako mezularitzako aplikazioak erabiltzeko.


WiFi sare batera konektatzea


- 1 Lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko.
- 2 **Accesos directos** fitxan, luze sakatu  WiFi-aren doikuntzen pantaila irekitzeko.




- 3 Aktibatu WiFi-aren hautagailua. Telefonoak eskura dauden WiFi-sareen zerrenda bistaratuko du.
- 4 Hautatu zein WiFi saretara konektatu nahi duzun. WiFi sarea zifratua baldin badago, idatzi pasahitza, hala eskatzen zaizunean.

Datu mugikorak erabiltzea

 Datu mugikorak erabili aurretik, ziurtatu zure operadorearekin datu-plan bat duzula.

- 1 Lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko.
- 2 **Accesos directos** fitxan, sakatu  datu mugikorak gaitzeko.



i Desgaitu datu mugikorak behar ez dituzunean, bateria aurrezteko eta datuen erabilera gutxitzeko.

Hatz-marken IDa konfiguratzea

Erabili hatz-marken sentsorea pantaila desblokeatzeko, aplikazioen eta segurtasunaren blokeoan sartzeko eta hirugarren batzuen aplikazioetan ordainketak baimentzeko.

Segurtasun-neurri osagarri gisa, telefonoak zure hatz-marka ezagutzen ez badu eta zure datuak ikusi nahi badi-tuzu, hatz-markarekin blokeatzen duzunean, pasahitz osagarri bat konfiguratu behar duzu.

1 Ireki **Ajustes** eta sakatu **ID de huella digital > Administración de huellas digitales**

2 Hautatu **PIN** edo **Contraseña**, eta jarraitu pantailan agertzen diren argibideei, pantaila blokeatzeko pasahitz bat konfiguratzeko.

3 Pasahitza konfiguratu ondoren, sakatu **Huella digital nueva** hatz-marka eransteko.

4 Jarri hatz-punta hatz-markaren sentsorean. Sakatu sentsorea, leun, telefonoak bibratu arte. Errepikatu pauso hori hatz-puntaren zatiak erabilita, telefonoak hatz-marka gehitu arte.

5 Hatz-marka erantsi ondoren, sakatu **Aceptar**.


Administración de huellas digitales pantailan, **Desbloquear la pantalla** hautagailua desgaitu, hatz-marka-rekin desblokeatzeko aukera desgaitzeko.

i Hatz-marka bat ezabatzeko, hautatu nahi duzun hatz-marka **Administración de huellas digitales** pantailan, sakatu **Eliminar** eta segi pantailan agertzen diren jarraibideei.

Aplikazioak instalatzea

microSD txartel baten bidez aplikazioak partekatzea

Gorde instalazio-paketeak microSD txartel batean, beste telefono batzuekin partekatzeko.

 Hirugarrenen instalazio-paketeek birusak edo software gaiztoak eduki ditzakete, eta kontu handiz instalatu behar dira. Jatorri fidagarrien aplikazioak bakarrik instalatu.

1 Sartu telefonoan instalazio-paketea duen microSD txartela.

2 Ireki  **Archivos**, jarri instalazio-paketea microSD txartelean, eta, ondoren, sakatu instalatzeko aukera.

Instalazio-prozesuan, baliteke ohartarazpen-mezu bat agertzea pantailan. Irakurri beti arretaz mezu horiek.

Instalatzeko hasi nahi baduzu, sakatu **Ajustes** eta, ondoren, aktibatu **Apps de origen desconocido** hautagailua, telefonoak hirugarren batzuen aplikazioak instalatzen utz dezan. Aplikazioa instalatu ondoren, sakatu


Ajustes > Ajustes avanzados > Seguridad eta desaktibatu **Apps de origen desconocido** hautagailua, iturri ez-ofizialetatik deskargatutako aplikazioak instalatu ditzan telefonoak.

Instalatu ondoren, pantaila nagusian egongo da aplikazioa.

Aplikazioak desinstalatzea

Egin lekua telefonoan, eta hobetu errendimendua erabiltzen ez dituzun aplikazioak ezabatuta.

 Aurrez instalatutako sistema-aplikazio batzuk ezin dira desinstalatu.



- Pantaila nagusian, luze sakatu desinstalatu nahi duzun aplikazioa, eta arrastatu  ikonora.
- Sakatu **Ajustes > Aplicaciones**, hautatu desinstalatu nahi duzun aplikazioa, eta sakatu **Desinstalar**.

Hasierako urratsak

Pantaila blokeatzea eta desblokeatzea

Pantaila blokeatzea


- Sakatu pizteko/itzaltzeko tekla pantaila eskuz blokeatzeko.
- Pantaila automatikoki blokeatuko da, eta, denbora-tarte jakin bat desaktibatuta egon ondoren, moduan sartuko da, energiaren kontsumoa murrizteko eta ustekabeko eragiketarik ez izateko.

 Pantailaren Eten moduaren denbora aldatzeko, ireki  **Ajustes**, sakatu **Pantalla > Reposo** eta hautatu denbora.

Telefonoak mezuak, jakinarazpenak eta sarrerako deiak jasotzen segituko du pantaila blokeatuta dagoela. Egoera-adierazleak keinu berdeak egingo ditu jakinarazpen berri bat jasotzen duzunean. Dei bat jasotzen duzunean, pantaila piztu egingo da eta dei-egilearen informazioa bistaratuko du.

Pantaila desblokeatzea


Pantaila itzalita badago, sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, hura aktibatzeko. Pantaila desblokeatzeko, lerratu hatza edozein norabidetan.



Irudi bidez desblokeatzea

Erabili Irudi bidez desblokea funtzioa, blokeo-pantailaren argazkien hautaketa sortzeko eta blokeo-pantaila bizi-razteko.

Lerratu hatza gora, blokeo-pantailaren beheko aldetik, irudi bidez desblokeatzeko aukerak ikusteko.



Argazkiak gehitzea bistaratze-zerrendara: Sakatu > **Suscripciones**, bistaratze-zerrendara gogoko argazkiak eransteko.

Irudi bidez desblokeatzeko moduan azalak eguneratzeko, Interneteko konexioa behar da. Konfiguratu telefonoa WiFi-sare batera konektatuta dagoela eguneratu dadin, datuak gehiegi ez erabiltzeko. Sakatu eta, ondoren, aktibatu **Actualizar automáticamente vía Wi-Fi** hautagailua.

Irudi bidez desblokeatzeko azalak kudeatzea: Sakatu eta hautatu . Hautatu bistaratze-zerrendara erantsi nahi dituzun argazkiak. .


Bistaratzeko zerrendatik azalak ezabatzeko, sakatu , luze sakatu nahi duzun argazkia, eta, ondoren, hautatu **Eliminar**.

Gogokoetara eranstea: Sakatu uneko azala gogokoetara eransteko. Eguneraketa online egitean, ez dira ezabatuko bistaratze-zerrendatik gogokoetan erantsitako argazkiak.

Azal zaharrak ezabatzea: Sakatu eta, ondoren, aktibatu **Eliminación automática de portadas** hautagailua. Hiru hilabete baino gehiago dituzten azalak automatikoki ezabatuko dira bistaratze-zerrendatik. Gogokoetan gordetako azalak ez dira ezabatuko.

Ukipen-pantailaren aukerak


Erabili ukipen-pantailako aukera errazak zereginak egiteko; adibidez, aplikazioak irekitzeko, zerrendetan mugitzeko eta argazkiak handitzeko.




Sakatuta: Sakatu elementua behin. Adibidez, sakatu item bat aukera bat hautatzeko edo aplikazio bat irekitzeko.




Bi aldiz sakatuta: Sakatu bi aldiz segidan pantailako helburuko eremua. Adibidez, bi aldiz sakatu pantaila osoko argazki bat, gerturatzeko edo urruntzeko.




Luze sakatuta: Luze sakatu helburuko eremua, gutxienez, bi segundoz. Adibidez, sakatuta eduki pantaila nagusiko guneko huts bat, pantaila nagusiko editatzeko modura sartzeko.




Lerratuta: Lerratu hatza pantailan. Adibidez, **Notificaciones** fitxan, irristatu hatza ezkerreko edo eskuinera jakinarazpen baten gainean, ez onartzeko. Irristatu hatza bertikalean edo horizontalean, beste pantaila nagusi batzuetara joateko, dokumentuetan mugitzeko eta abarerrako.



Arrastatuta: Luze sakatu elementu bat, eta mugitu beste toki batean jartzeko. Adibidez, pantaila nagusiko aplikazioak eta widgetak berrantolatzea ditzakezu.



Hatzak bereizita: Bereizi bi hatzak pantailan. Adibidez, bereizi bi hatz irudi bat edo webgune bat gerturatzeko.






















Hatzekin atximur egitea: Atximur egin pantailan bi hatzekin. Adibidez, atximur egin argazki bati bi hatzekin, hura urruntzeko.

Egoera- eta jakinarazpen-ikonoak

Egoera-ikonoak







Egoera-ikonoak egoera-barran, eskuinean, azalduko dira. Telefonoaren egoerari buruzko informazioa bistaratzen dute; adibidez, sare-konexioari buruzko informazioa, seinalearen intentsitatea, bateriaren karga-maila eta data eta ordua.















 Egoera-ikonoak aldatu egin daitezke lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

	Seinalearen intentsitatea		Ez dago seinalerik
	GPRS bidez konektatuta		WCDMA bidez konektatuta
	EDGE bidez konektatuta		HSPA bidez konektatuta
	HSPA+ bidez konektatuta		LTE bidez konektatuta
	NFC aktibatuta		Desplazamendua
	Hegazkin-modua aktibatuta		Bluetootha aktibatuta
	GPSaren kokapenaren datuak jasotzen		Bibrazio-modua aktibatuta
	Modu isila aktibatuta		Alarma aktibatuta
	Kargatzen		Bateria beteta
	Bateria baxua		SIM txartela ez da detektatu
	Entzungailuak konektatuta		

Jakinarazpen-ikonoak

Jakinarazpen-ikonoak egoera-barraren ezkerrean bistaratzen dira, mezu, jakinarazpen edo gogorarazpen berri bat jasotzen duzunean.


	Dei galduak		Deia martxan
	Mezu elektronikoko berriak		Mezu berriak
	Idazteko moduak hautatzeko		Ahots-mezu berria

 WiFi bidez konektatuta	 WiFi sarea erabilgarri
 Datuak deskargatzen	 Datuak kargatzen
 Hurrengo gertaerak	 Telefonoaren memoria beteta
 Datuak sinkronizatzen	 Sinkronizazio-errorea
 Arazoa saioa hastean edo sinkronizatzean	 Jakinarazpen gehiago
 WiFi eremu eramangarria aktibatuta	 VPN batera konektatuta
 USB bidez sarera ainguratzeko modua aktibatuta	 USBa arazteko modua aktibatuta

Pantaila nagusia

Pantaila nagusiari buruzko informazioa

Pantaila nagusietan daude erabiltzailearen widget gogokoenak eta aplikazio guztiak. Aplikazio-zerrenda ezabatu egin da, aplikazioetarako sarbide zuzenagoa eta erabilgarriagoa eduki dezazun.



Egoera-barra: Egoera-jakinarazpenak eta -ikonoak bistaratzen ditu.




Pantaila nagusia: Aplikazioen ikonoak, ma-haigaineko karpetak eta widgetak bistaratzen dira.

Pantailaren kokapenaren adierazlea: Pantaila nagusiaren zein atal bistaratzen ari den adierazten du.


Dock: Sarrien erabilitako aplikazioak bistaratzen ditu.

Nabigazio-barra: Nabigazio-tekla birtualak bistaratzen ditu.

Nabigazio-barra birtualaren teklak:




-  **Atzera:** Sakatu hau, aurreko pantailara itzultzeko edo aplikazio bat ixteko. • Testua idaztean, sakatu hau, pantailako teklatura ezkutatzeko.
-  **Hasiera:** Sakatu hau, pantaila nagusira itzultzeko.
-  **Azkena erabilitakoak:** Sakatu hemen azkena erabilitako aplikazioen zerrendan sartzeko, edo luze sakatu tekla hau bi leihoen modua gaitzeko.

Nola aldatu pantaila nagusi batetik bestera

Lerratu hatza ezkererantz edo eskuinerantz pantaila nagusi osagarriak ikusteko. Sakatu  **Inicio** pantaila nagusi lehenetsira itzultzeko.




Pantaila nagusian, atximur egin bi hatzekin, edo sakatuta eduki pantailaren eremu huts bat pantaila nagusiaren editorean sartzeko. Hau egin dezakezu:

- **Pantaila nagusi lehenetsia konfiguratzea:** Sakatu  pantaila nagusiaren beheko aldean, uneko pantaila nagusia lehenetsi gisa konfiguratzeko.
- **Pantaila nagusi bat mugitzea:** Arrastatu pantaila nagusia nahi duzun tokiraino.
- **Pantaila nagusi bat eranstea:** Sakatu  ezkerrean edo eskuinean urrunen dagoen pantaila nagusian.
- **Pantaila nagusi zuri bat ezabatzea:** Sakatu  pantaila zuri baten behealdean.

Pantaila automatikoki biratzea

Telefonoari bira ematean, aplikazio batzuek automatikoki doitzen dute pantailaren orientazioa, errazago erabili ahal izateko. Inklinazio bidez kontrolatzen diren aplikazioak erabiltzeko aukera ematen du funtzio honek.

Irristatu hatza egoera-barratik behera, jakinarazpen-panela irekitzeko, eta sakatu **Giro automático**, **Accesos directos** fitxan, pantaila automatikoki biratzeko aukera gaitzeko edo desgaitzeko.




Pantaila nagusian aplikazioak eta widgetak antolatzea

Pantaila nagusiarri widgetak gehitzea

Sarrien erabiltzen dituzun widgetak pantaila nagusira gehitu ditzakezu, horietara bizkor sartzeko.

Atximur egin pantaila nagusian bi hatzekin, pantaila nagusiko editatzeko modura joateko. Sakatu **Widgets**, eta hautatu widget bat. Luze sakatu widgeta eta arrastatu pantaila nagusiko eremu huts batera.

-  Pantaila nagusian nahiko toki egon behar du widgetak gehitzeko. Bestela, erantsi beste pantaila nagusi bat edo egin tokia.






Widgetak edo ikonoak mugitzea

Pantaila nagusian, luze sakatu widgeta edo aplikazioaren ikonoa, telefonoak dar-dar egin arte. Ondoren, arrastatu widgeta edo aplikazioaren ikonoa, nahi duzun tokira.



Widgetak edo ikonoak ezabatzea

Pantaila nagusian, luze sakatu ezabatu nahi duzun widgeta edo aplikazioaren ikonoa, pantailan  bistaratu arte. Arrastatu ezabatu nahi duzun widgeta edo aplikazioaren ikonoa  arte.


-  Aplikazio baten ikonoa mugitu edo ezabatu ondoren, pantaila nagusian gune zuri bat azalduko da. Aplikazioen ikonoak automatikoki antola ditzakezu. Informazio gehiago behar izanez gero, ikusi [Pantaila nagusiko aplikazioak automatikoki lerrotatzea](#) atala.



Karpetak sortzea


Pantaila nagusian karpetak sor ditzakezu, aplikazioak moten arabera antolatzeko. Adibidez, Jokoak karpeta sor dezakezu, jokoen aplikazio guztiak sartzeko.

Pantaila nagusian, arrastatu ikono bat beste baten gainera, biak hartuko dituen karpeta sortzeko. Karpeta baten izena aldatzeko, ireki eta luze sakatu izena.




Aplikazioak ezkutatzea

Bereizi bi hatz pantaila nagusian. Sakatu **+** **Añadir**, aukeratu ezkutatu nahi dituzun aplikazioak, eta, gero, sakatu **Aceptar**. Ezkutatu ondoren, aplikazioak ez dira pantaila nagusian bistaratuko.



i Ezkutatutako aplikazio bat pantaila nagusian berriro ikusteko, sakatu **+** **Añadir** ezkutuko aplikazioen pantailan, kendu marka dagokion aplikazioari, eta, ondoren, sakatu **Aceptar**.



Pantaila-argazkiak ateratzea

Telefonoak zenbait aukera ditu pantaila-argazkiak ateratzeko. Pantaila osoaren argazkiak egin ditzakezu, edo pantailan forma bat marraztu eta zati horren argazkia atera.


Erabili pizteko/itzaltzeko botoia eta bolumena jaisteko botoia

Sakatu pizteko/itzaltzeko botoia eta bolumena jaisteko botoia aldi berean, pantaila osoaren argazki bat egiteko.



Lasterbidearen hautagailua erabiltzea pantaila-argazkia egiteko

Ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu  **Accesos directos** fitxa, pantaila osoaren argazkia ateratzeko.



Hatz-koskorrak erabiltzea

Erabili hatz-koskorrak pantaila osoaren argazkia ateratzeko edo pantailan forma bat marraztu eremu jakin baten argazkia ateratzeko. Informazio gehiagorako, ikus [Hatz-koskorrak erabiltzea](#) atala.

Lehenespenez, pantaila-irudiak galeriako **Capturas** karpetan gordetzen dira.

Jakinarazpenak

Egoeraren adierazlea

Egoera-adierazlearen kolorea aldatu egiten da, eta keinu egiten du haxe adierazteko:

- Gorria, keinurik egin gabe (kargatzen ari ez denean): Kargatze-maila oso baxua da, eta telefonoa automatikoki itzaliko da.
- Gorria, keinurik egin gabe (kargatzean): Bateriaren kargatze-maila oso baxua da.
- Horia, keinurik egin gabe (kargatzean): Bateriaren karga-maila ertaina da.
- Berdea, keinurik egin gabe (kargatzean): Bateria erabat edo ia erabat kargatuta dago. Deskonektatu kargagailua, bateria erabat kargatuta dagoenean.
- Berdea, keinuka (kargatzen ari ez denean): Irakurri gabeko mezuek edo jakinarazpenak daude, edo dei galduak.

Jakinarazpen-ikurrak

Jakinarazpen-ikurrak aplikazio-ikonoen goiko eskuineko izkinan bistaritzen dira.




Ikur-kopuruak adierazten du jakinarazpen berrien kopurua. Ireki dagokion aplikazioa jakinarazpenen xehetasunak ikusteko.

- Aplikazio baten jakinarazpen-ikurrak desgaitzeko, atximur egin pantaila nagusian bi hatzekin, pantaila nagusiko editorea ireki dadin. Ondoren, sakatu **Más ajustes > Iconos de aplicaciones con símbolos** eta desaktibatu dagokion aplikazioaren ondoan dagoen hautagailua.

Jakinarazpen-panela


Irristatu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko eta jakinarazpenak ikusteko.

Irristatu hatza ezkererantz, jakinarazpen-panelaren gainean, lasterbideen fitxan sartzeko.




Lerratu hatza pantailan gorantz, edo sakatu **◀ Volver** edo **○ Inicio**, jakinarazpen-panela ixteko.

i Lasterbideen hautagailuak pertsonalizatzea: Irristatu hatza gora, lasterbideen fitxan, eta sakatu **Editar**. Arrastatu lasterbideen hautagailua nahi duzun kokapenera, errazago sartzeko.



Blokeo-pantailan jakinarazpenak ikustea

Jakinarazpen berriak (adibidez, dei galduak eta mezuak) blokeo-pantailan bistaratuko dira.



Lerratu hatza eskuinera jakinarazpen batean, blokeo-pantailan, xehetasunak ikusteko.

- Lehenespenez, telefonoak aplikazio batzuen jakinarazpenak bakarrik bistaratzen ditu blokeo-pantailan. Aplikazio gehiagoren jakinarazpenak gaitu nahi badituzu blokeo-pantailarako, ikusi [Jakinarazpen-baimenak kudeatzea](#) atala.

Jakinarazpen-baimenak kudeatzea

Desgaitu aplikazioen jakinarazpenak, eragozpenik ez izateko.

1 Ireki  **Ajustes**.


2 Sakatu **Panel de notificaciones y barra de estado > Gestor de notificaciones** eta hautatu nahi duzun aplikazioa.

3 Gaitu edo desgaitu jakinarazpen-doikuntzak, zure lehentasunen arabera.

Ez molestatzea moduan jakinarazpenak bistaratzea: Hautatu nahi duzun aplikazioa **Gestor de notificaciones** aukeran, eta aktibatu **Vista de prioridades** hautagailua. **Permitir solo interrupciones con prioridad** aukera gaituta baldin badago Ez molestatzea moduan, jakinarazpenek bistaratzen segituko dute.

Egoera- eta jakinarazpen-barraren doikuntzak

Aldatu egoera- eta jakinarazpen-barraren doikuntzak, egoera-jakinarazpenak eta -gogorazleak bistartzeko modua pertsonalizatzeko.

Ireki  **Ajustes**, eta sakatu **Panel de notificaciones y barra de estado** bistaratze-doikuntzak eta egoera- eta jakinarazpen-barrak zabaltzeko doikuntzak konfiguratzeko.

Jakinarazpen-barra zabaltzeko doikuntzak konfiguratzea

- Sakatu **Acciones de arrastre > Selección inteligente**. Jakinarazpen-panela irekitzen denean, telefonoak jakinarazpen-fitxa irekitzen du, jakinarazpen berririk baldin badago. Bestela, lasterbideen fitxa irekitzen du.
- Sakatu **Acciones de arrastre > Determinar desde la posición de arrastre**. Lerratu hatza egoera-barraren ezkerreko aldetik behera, jakinarazpen-fitxa irekitzeko edo eskuineko aldetik lasterbideen fitxa irekitzeko.

Egoera- eta jakinarazpen-barran bistaratuko den edukia konfiguratzea

Aktibatu edo desaktibatu **Mostrar nombre del operador** eta **Porcentaje restante de batería** hautagailuak, egoera-barran bistartzeko edukia konfiguratzeko.

Desaktibatu **Mostrar iconos de notificaciones** hautagailua, egoera-barraren ikonoak ezkutatzeko.

Hatz-marken bidezko ezagutza erabiltzea

Hatz-marken sentsoreak, pantaila aktibatu eta desblokeatzeaz gain, aukera gehiago ematen ditu. Argazkiak ateratzeko, sarrerak deiei erantzuteko eta alarmak desgaitzeko ere balio du.

Hatz-marka bat lehen aldiz eranstea

Ikusi [Hatz-marken IDa konfiguratzea](#), hatz-marken bidez desblokeatzeko konfigurazioari buruzko informazio gehiago izateko.

Hatz-marka bat eranstea edo ezabatzea edo izena aldatzea

Zenbait hatz-marka erantsi ditzakezu, telefonoa errazago desblokeatzeko. Hatz-markak ezaba ditzakezu, edo izena alda diezaiekezu.

1 Ireki  **Doikuntzak**

2 Sakatu **ID de huella digital > Administración de huellas digitales**

3 Idatzi pantaila blokeatzeko pasahitza, eta sakatu **Aceptar**.

4 **Lista de huellas digitales** atalean, aukera hauek dituzu:

- Sakatu **Huella digital nueva** hatz-marka bat eransteko. Gehienez bost erantsi daitezke.

- Sakatu erantsita dagoen hatz-marka izena aldatzeko edo ezabatzeko.

Segurtasunera hatz-markaren bidez sartzea

Erabili hatz-marka pasahitzik idatzi gabe segurtasunera sartzeko.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **ID de huella digital > Administración de huellas digitales**

3 Idatzi pantaila blokeatzeko pasahitza, eta sakatu **Siguiente**.

4 Sakatu **Acceder a seguridad**, eta jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei segurtasuneko pasahitza sartzeko eta hatz-marka bidezko ezagutza gaitzeko.

Doikuntzak konfiguratu ondoren, sakatu **Archivos > Seguridad**. Hartara, hatz-marka digitala erabil dezakezu segurtasuneko atalera sartzeko.

Aplikazioak hatz-markarekin blokeatzeko aukerara sartzea

Erabili hatz-marka blokeatutako aplikazioetara sartzeko.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **ID de huella digital > Administración de huellas digitales**

3 Idatzi pantaila blokeatzeko pasahitza, eta sakatu **Siguiente**.

4 Sakatu **Acceder a bloqueo de apps**, eta jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei aplikazioak blokeatzeko pasahitza sartzeko eta hatz-marka bidezko ezagutza gaitzeko.

Sakatu **Admin. del tel. > Bloqueo de aplicaciones** doikuntzen konfigurazioa amaitutakoan; ondoren, erabili hatz-marka aplikazioen blokeoan aplikazioen egoera ikusteko. Pantaila nagusian blokeatutako aplikazioetara sartzeko ere erabil dezakezu hatz-marka.

Hatz-marken bidezko ezagutza erabiltzea Huaweiren IDrako

1 Ireki  **Doikuntzak**

2 Sakatu **ID de huella digital > Administración de huellas digitales**

3 Idatzi pantaila blokeatzeko pasahitza, eta sakatu **Siguiente**.

4 Sakatu **Verificar la ID de Huawei**, eta jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei segurtasuneko pasahitza sartzeko eta Huaweiren IDrako hatz-marka bidezko ezagutza gaitzeko.

Hatz-marken sentsorearen ukipen-keinuak

Edozein hatzekin, sakatu sentsorea edo lerratu haren gainean, ohiko zereginak egiteko.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **ID de huella digital**.

3 Gesto de pulsación larga atalean, aktibatu gaitu nahi dituzun funtzioen hautagailuak.

- **Argazkiak ateratzea/Bideoak grabatzea:** Kameraren bisorea erabiltzen duzunean, luze sakatu hatz-marken sentsorea argazkiak ateratzeko.
- **Deiei erantzutea:** Dei bat jasotzen duzunean, luze sakatu hatz-marken sentsorea deiari erantzuteko.
- **Alarmak gelditzea:** Konfiguraturako alarma bat aktibatzen denean, luze sakatu hatz-marken sentsorea hura eteteko.

4 Gesto de deslizamiento atalean, aktibatu gaitu nahi dituzun funtzioen hautagailuak.


- **Jakinarazpen-panela bistaratzea:** Lerratu hatza beherantz, hatz-marken sentsorean, jakinarazpen-panela irekitzeko. Sakatu bi aldiz sentsorea jakinarazpen guztiak ezabatzeko eta lerratu hatz gora sentsorean jakinarazpen-panela ixteko.
- **Argazkiak bilatzea:** Pantaila osoko argazkiak ikusten ari zarela, lerratu hatza ezkerredera edo eskuinera argazkiz aldatzeko.

Aplikazioetarako sarbidea

Aplikazioak irekitzea eta txandakatzea


Blokeo-pantailan aplikazioak irekitzea

Irristatu hatza gora, blokeo-pantailan, eta sakatu  kamera irekitzeko. Bestela, hatza gora lerra dezakezu, pantailaren beheko aldetik, eta lasterbide baten ikono bat sakatu nahi duzun aplikazioa bizkor irekitzeko.





Pantaila nagusian aplikazioak irekitzea

Pantaila nagusian, sakatu nahi duzun aplikazioaren ikonoa, irekitzeko.



Aplikazioak txandakatzea


Aplikazio batetik bestera igarotzeko, sakatu  **Home**, pantaila nagusia itzultzeko, eta, ondoren, sakatu ireki nahi duzun aplikazioaren ikonoa.



Aplikazioak bilatzea


Aplikazioak bilatzea

Irristatu hatza pantailaren erditik behera, bilaketa-barran sartzeko, eta, ondoren, idatzi aplikazioaren izena. Bilaketaren emaitzak bilaketa-barraren azpian bistaratuko dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [Aplikazioak bizkor bilatzea](#) atala.

 Aplikazio ezkutuak ez dira bilaketaren emaitzan bistaritzen.


Aplikazio ezkutuak bilatzea




Pantaila nagusian, bereizi bi hatz, aplikazio ezkutuak ikusteko.



Nola ikusi azkena erabilitako aplikazioak

Sakatu **Recientes**, azkena erabilitako aplikazioen zerrenda ikusteko.



- **Aplikazio gehiago ikustea:** Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera pantailan, azkena erabilia aplikazio gehiago ikusteko.
- **Aplikazio bat irekitzea:** Sakatu miniatura bat nahi duzun aplikazioa irekitzeko.
- **Aplikazio bat ixtea:** Lerratu hatza gorantz miniatura baten gainean, dagokion aplikazioa ixteko.
- **Desblokeatutako aplikazio guztiak ixtea:** Sakatu  desblokeatutako aplikazio guztiak ixteko.
- **Aplikazio bat blokeatzea desblokeatzea:** Lerratu hatza beherantz miniatura baten gainean, aplikazioa blokeatzeko.  bistaratuko da aplikazioaren gainean, blokeatu denean. Blokeatutako aplikazioak ezin dira itxi  sakatuta. Lerratu berriz hatza beherantz miniaturaren gainean, aplikazioa desblokeatzeko.

Telefonoa pertsonalizatzea

Pantaila nagusi sinplea


Pantaila nagusi sinplearen moduak ikono eta letra-tipo handiak erabiltzen ditu, edukia errazago irakurtzeko.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Estilo de pantalla principal** > **Simple** eta pantaila nagusi sinplea gaitzeko.



3 Pantaila nagusi sinplean, aukera hauek dituzu:

- Sakatu aplikazioen ikonoak edo widget-ak, irekitzeko.
- Luze sakatu ikono bat pantaila nagusiaren editorean sartzeko, eta aplikazioen ikonoak eransteko edo ezabatzeke.
- Sakatu **Otros** aplikazio-zerrenda ikusteko, eta aplikazioak ikusteko edo irekitzeko.
- Sakatu **+** pantaila nagusira kontaktuak edo aplikazioak eransteko..
- Sakatu **Inicio estándar** pantaila nagusi sinpletik ateratzeko.



Gaiak aldatzea


Telefonoaren pantaila nagusia pertsonalizatzeko gai eta pantaila-atzealde ugari dituzu aukeran.

Ireki  **Temas**, hautatu gai bat eta sakatu . Sakatu  besteak beste, modu hauek txandakatzeko: blokeo-pantaila, pantaila-atzealdeak eta aplikazioen ikonoak.



Pantaila-atzealdea aldatzea

Konfiguratu irudi edo argazki gogokoak telefonoaren pantaila-atzealde gisa.




1 Ireki  **Ajustes** eta hautatu **Pantalla**.

2 Sakatu **Fondo de pantalla** eta **Pantalla de bloqueo** edo **Fondo de pantalla principal**

3 Fondos de pantalla edo **Animados** fitxan, hautatu irudi bat, eta segi pantailan agertzen diren jarraibideei, irudi hori pantaila-atzealde gisa konfiguratzeko.

Aktibatu **Agitar para cambiar** hautagailua. Pantaila-atzealdea aldatu egingo da telefonoari eragiten diozun bakoitzean. Aktibatu **Cambio aleatorio** hautagailua. Konfiguratu **Intervalo** edo Álbum para mostrar. Telefonoak automatikoki aldatuko du pantaila-atzealdea, denbora-tarte espezifikokoaren arabera.




 Bestela, ireki  **Galería**, luze sakatu argazki bat, eta, ondoren, sakatu  **Configurar como** > **Fondo**.
Segi pantailan agertzen diren jarraibideei, argazki bat konfiguratzeko pantaila-atzealde gisa.

Tonu bat kontaktu bati esleitzea

Esleitu tonu jakin bat kontaktu bakoitzari, deitzen ari zaizuna edo mezua bidali dizuna nor den bizkor jakiteko.

1 Ireki  **Contactos**.

2 Hautatu nahi duzun kontaktua, eta sakatu **Tono de llamada**.


3 Hautatu nahi duzun tonua edo musika-fitxategia, eta sakatu .

Dei- eta mezu-tonuak eta bibrazio-doikuntzak konfiguratzeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, irakurri [Soinu-doikuntzak](#) atala.

Letra-tamaina aldatzea

Telefonoko letra-tamaina handitu egin daiteke errazago irakurtzeko.

Ireki  **Ajustes** eta sakatu **Pantalla** > **Tamaño de fuente** sistemaren letra-tamaina konfiguratzeko.

 **Extragrande** letra-tamaina hauetan bakarrik egongo da erabilgarri: mezuetan, kontaktuetan eta Telefonoa aplikazioan.



Testua idaztea

Testua idazteko modua aldatzea

Testua sartzeko modu batetik bestera aldatzeko aukera dago.


1 Testua idazteko pantailan, lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko.

2 Sakatu **Seleccionar método de introducción** aukera, **Notificaciones** fitxan, eta hautatu testua idazteko erabili nahi duzun modua.

 Testua idazteko moduak aukeratzeko modurik ez badago, sartu hona  **Ajustes**, sakatu **Ajustes avanzados** > **Idioma e introducción** > **Teclado predeterminado** > **Configurar métodos de introducción** eta, ondoren, aktibatu testua idazteko aukeratu nahi duzun moduaren ondoan dagoen hautagailua.


Testua idazteko Huawei Swype metodoa

Idatzi bizkor hitzak, teklatuan hatza irristatuta.



i Testua idazteko Huawei Swype modua bateragarria da hizkuntza askorekin.

Testua idazteko Android metodoa



i Testua idazteko Android modua bateragarria da hizkuntza askorekin.

Testu-edizioa

Telefonoak aukera ematen du testua aukeratzeko, ebakitzeko, kopiatzeko eta itsasteko.

- **Testua hautatzea:** Luze sakatu testua, pantailan ager dadin. Arrastatu edo , testu gehiago edo gutxiago aukeratzeko, edo sakatu **Seleccionar todo**, testu guztia aukeratzeko.

- **Testua kopiazea:** Aukeratu testua, eta sakatu **Copiar**.
- **Testua moztea:** Aukeratu testua, eta sakatu **Cortar**.
- **Testua itsastea:** Luze sakatu testua sartu nahi duzun lekua, eta sakatu **Pegar**.
- **Testua partekatzea:** Hautatu testua, eta sakatu **Compartir** partekatzeko modu bat hautatzeko.


Iradokizunak eta trikimailuak

Bolumen altua modua

Dei batean, sakatu bolumena igotzeko modua behin eta berriz, deiaren bolumena ohiko maximoa baino gehiago igotzeko.


Doikuntzak bilatzea

Erabili bilaketa-funtzioa doikuntzen aukera menuko aukerak bilatzeko.

Ireki  **Ajustes** eta, ondoren, sakatu pantailaren goiko aldean dagoen bilaketa-koadroa, eta idatzi bilatu nahi duzun hitza (adibidez, Soinua). Bilaketaren emaitzak erakutsiko ditu telefonoak. Sakatu aukera hau dago-kion doikuntzetan sartzeko.


Deiak bizkor itzultzea

Pantaila blokeatuta dagoela, lerratu hatza eskuinera dei galdu baten jakinarazpenean, eta desblokeatu pantaila. Pantailan markagailua bistaratzen da; sakatu dagokion zenbakia deia itzultzeko.



Hatz-koskorrak erabiltzea


Erabili hatz-koskorrak pantaila osoaren edo pantailaren zati baten argazki bat ateratzeko.

1 Ireki  **Ajustes** eta, ondoren, hautatu **Asistencia inteligente**.


2 Sakatu **Control de movimiento** > **Captura de pantalla** eta, ondoren, aktibatu **Captura de pantalla** hauta-gailua.


Pantaila-argazki osoak egitea

Bi kolpe eman pantailari hatz-koskorrekin pantaila osoaren argazki bat ateratzeko.



Pantailaren zatien argazkiak egitea

Kolpe bat eman pantailari hatz-koskorrekin. Ez altxa hatz-koskorrak pantailatik, eta arrastatu argazkia atera nahi duzun eremuan. Ondoren, itzuli hasierako puntura. Hautatutakoa pantailan bistaratuko da. Ierro urdinez mugatutako eremuaren argazkia aterako da. Pantaila-argazkiak egiteko modu desberdinak hautatzeko, pantailaren goiko aldean dagoen pantaila-argazkiaren koadroa ere hauta dezakezu. Sakatu  pantaila-argazkia gordetzeko.




Lehenespenez, pantaila-argazkiak **Galería** aukeran gordetzen dira, **Capturas** karpetan.

i Pantaila-argazki bat sortu ondoren, sakatu **Compartir** lagunekin partekatzeko. Elementuak partekatzeari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, ikusi [Argazkiak eta bideoak partekatzea](#) atala.


Kontaktuen xehetasunak bizkor eranstea

Erabili kamera aurkezpen-txartel baten argazkia ateratzeko. Telefonoak kontaktuaren xehetasunak ezagutuko ditu, eta automatikoki erantsiko. **Contactos** atalean, sakatu **Tarjetas de presentación** > **Buscar**




QR txartela partekatzea

QR txartelak partekatu ditzakezu lagunekin, haien kontaktuetara bizkor gehitzeko. Kontaktuen xehetasunen pantailan, sakatu pantailaren goiko aldean dagoen QR kodea, zure QR kode pertsonala bistara dadin.



Pantaila itzalita dagoela kontaktuei deitzea

Pantaila itzalita dagoela, luze sakatu bolumena jaisteko botoia. Alerta-soinu bat entzuten duzunean, esan deitu nahi duzun kontaktuaren izena. Telefonoak automatikoki deituko dio kontaktuari.



Poltsikoko modua

Gaitu Poltsikoko modua dei garrantzitsurik ez galtzeko telefonoa poltsikoan duzunean. Dei-tonua eta bibrazioaren intentsitatea igo egiten dira, pixkanaka, dei bat jasotzean.


Ireki  **Llamadas**. Sakatu  > **Ajustes** aukera **Llamadas** fitxan, eta aktibatu **Modo bolsillo** hautagailua.



Pantaila itzalita dagoela bat-bateko argazkiak ateratzea

Telefonoarekin bat-bateko argazkiak bizkor atera ditzakezu, baita pantaila itzalita dagoela ere.


Pantaila itzalita dagoela, jarri telefonoa pertsonari edo objektuari begira, eta, sakatu bolumena jaisteko botoia bi aldiz. Telefonoak argazki bat aterako du, eta bizkor bistaratuko.




Selfiea hobetzeko funtzioa

Gaitu Selfiea hobetzeko modua, eta pertsonalizatu edertasun-doikuntzak, taldeko argazkietan nabarmentzeko.


Kamera aplikazioan, sartu **BELLEZA** moduan, eta, ondoren, sakatu **Mejorar selfie**. Aktibatu **Mejorar selfie** hautagailua, eta, ondoren, konfiguratu edertasun-doikuntza pertsonalizatuak.

Ondoren, aldatu **BELLEZA** modura, eta sakatu  argazki bat ateratzeko. Telefonoak aurpegia detektatuko du, eta edertasun-doikuntza pertsonalizatuak aplikatuko, taldeko argazkietan nabarmentzeko.



Kamera bizkorraren modua erabiltzea ekintza aurreratzeko

Kamera bizkorraren moduak aukera ematen du argazkiak atera eta paisaiaren aldaketa nabarmenak bizkortzeko (adibidez, egunsentia, arratsa edo hodeien mugimendua).

Kameraren pantailan, lerratu hatza eskuinera **CÁMARA RÁPIDA** modua hautatzeko. Tinko eutsi telefonoari eta, ondoren, sakatu  bideo bat grabatzen hasteko.



Bideo-grabazio batean argazkiak ateratzea

Inoiz atera nahi izan duzu argazki bat bideo bat grabatzen ari zaren bitartean?


Kameraren interfazeaz, lerratu hatza eskuinera, eta, ondoren, hautatu **VÍDEO** bideoa grabatzen hasteko.


Bideoa grabatzen ari zarela, sakatu  argazki bat ateratzeko.




Dei bati erantzutea edo ez onartzea ahots-komandoak erabilita


Dei bat jaso baduzu eta eskuak libre ez badituzu, esan “Answer call” edo “Reject call” deiari erantzuteko edo deia ez onartzeko.

Zoaz  **Ajustes** aukerara, sakatu **Asistencia inteligente** > **Control por voz** eta, ondoren, aktibatu **Responder llamadas con control por voz** hautagailua.



 Sakatu **Idioma del comando de voz** ahots-komandoaren hizkuntza aldatzeko.

Ahots bidezko aktibazioa erabiltzea


Ireki  **Ajustes**. Sakatu **Asistencia inteligente** > **Control por voz** > **Activación por voz** eta, ondoren, aktibatu **Activación por voz** hautagailua, eta segi pantailan agertzen diren jarraibideei, ahots bidezko aktibazio-komandoak sartzeko. Hau egin dezakezu:

- **Telefonoa bilatzea**: Esan: “Ea, Ane; non zaude?”. Telefonoak jo egingo du, non dagoen jakin dezazun.
- **Dei bat egitea**: Esan: “Ea, Ane, deitu Maddiri”. Telefonoak Maddiri deituko dio.

Aplikazioak bizkor bilatzea


Erabili bilaketaren funtzioa aplikazioak bizkor bilatzeko.


Irristatu hatza pantailaren erditik behera, bilaketa-barran sartzeko, eta, ondoren, idatzi bilatu nahi duzun aplikazioaren izena. Bilaketaren emaitzak bilaketa-barraren azpian bistaratuko dira.




Seinale-intentsitate handiena duen WiFi sarera konektatzea


WiFi+ gaitu ondoren, telefonoak WiFi-sareak eta datu mugikorrek monitorizatu eta seinale-intentsitate onena eta datuak transferitzeko abiadura bizkorrena dituen konexioa hautatuko ditu.

Lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko. **Accesos directos** fitxan, luze sakatu  eta hautatu **Wi-Fi+**. Hautatu **Wi-Fi+** hautagailua funtzio hori gaitzeko.




Telefonia eskularruekin erabiltzea

Gaitu Eskularruen modua, eskularruak jantzita dituzunean telefonia erabiltzen segitu dezazun. Ireki  **Ajustes** eta, ondoren, hautatu **Asistencia inteligente > Modo guantes**.



Sistemaren bolumena bizkor doitzea


Sakatu telefonoaren alde batean dagoen bolumen-botoia, eta, ondoren, sakatu  tonuaren, baliabideen erreproduzioaren, alarmen eta deien bolumena doitzeko.




Botoi mugikorra erabiltzea

Botoi mugikorraren bidez, sarri erabiltzen diren zenbait aukera eta funtziotara sar zaitezke pauso bakar batean (adibidez, Atzera, Hasi eta Optimizazio tekletara). Botoi mugikorra tokiz alda dezakezu pantailan, esku bakarrarekin errazago erabil dezazun.

Ajustes aukeran, hautatu **Asistencia inteligente** > **Botón flotante** eta, ondoren, aktibatu **Botón flotante** hautagailua.



 Botoi mugikorra pantaila gehienetan agertzen da. Arrastatu menua nahi duzun lekura, haren kokapena doitzeko.

Pantaila nagusiko aplikazioak automatikoki lerrokatzea


Baliteke pantaila nagusian hutsuneak geratzea aplikazioak desinstalatu edo karpetak mugitu ondoren. Automatikoki lerrokatzeko funtzioa erabili aplikazioak zorrotz antolatzeko pantaila nagusian.

Atximur egin pantailan, bi hatzekin, pantaila nagusiko editatzeko modura joateko. Sakatu **Más ajustes** eta, ondoren, aktibatu **Agitar** hautagailua. Luze sakatu pantaila nagusia pantaila nagusiko editatzeko modura joateko. Astindu telefonoa aplikazioen ikonoak berriro lerrokatzeko eta hutsuneak betetzeko.



Ukipen-pantaila desgaitua modua

Gaitu Ukipen-pantaila desgaitua modua telefonoa poltsikoan duzunean nahi gabe eragiketarik ez egiteko.

Ireki  **Ajustes**, sakatu **Asistencia inteligente** eta, ondoren, aktibatu **Modo pantalla táctil deshabilitada** hautagailua.

Ukipen-pantaila desgaitua moduarekin keinuek ez dute funtzionatzen, ez eta pantaila piztuta dagoela ere. Desestali pantailaren goiko aldea, edo sakatu pizteko/itzaltzeko botoia eta bolumena igotzeko botoia aldi berean Ukipen-pantaila desgaitua modua desaktibatuzeko.



Deiak eta kontaktuak

Deiak egitea



Markaketa adimenduna

Idatzi teklatuan kontaktu baten izena, inizialak edo telefono-zenbakia. Bat egiten duten kontaktuak bistaritzen ditu telefonoak.

1 Ireki  **Llamadas**.

2 Idatzi teklatuan kontaktu baten izena edo inizialak (adibidez, Jon Agirre edo JA). Telefonoak kontaktuetan eta dei-erregistroan bilatuko du, eta teklatuaren gainean bistaratuko ditu emaitzak.




3 Zerrendan, aukeratu deitu nahi duzun kontaktua. Telefonoak bi SIM txartel onartzen baditu, sakatu  edo  dei bat egiteko.

4 Sakatu  deia amaitzeko.


Dei bizkorrak gaitzea

Deiak bizkor egin daitezke, bai eta pantaila itzalita dagoela ere.




1 Ireki  **Llamadas**.

2 Sakatu  > **Ajustes** > **Llamada rápida** eta, ondoren aktibatu **Llamada rápida** hautagailua.

Eduki sakatuta bolumena jaisteko botoia segundo batzuez, pantaila itzalita dagoela. Alerta-soinua entzuten duzunean, askatu bolumena jaisteko botoia, eta esan deitu nahi duzun kontaktuaren izena. Telefonoak zenbakia markatuko du.




 Bluetooth entzungailuak erabiltzen dituzunean, sakatuta eduki entzungailuetarako markaketa-tekla dei bizkorraren funtzioa aktibatzeko.

Deiak kontaktuen ataletik egitea

- 1 Ireki  **Contactos**.
- 2 Sakatu bilaketa-barra, eta idatzi deitu nahi duzun pertsonaren izena edo inizialak. Kontaktuak bilatzeari buruzko informazio gehiago jasotzeko, ikusi Kontaktuak bilatzea.
- 3 Sakatu kontaktuaren zenbakia. Telefonoak bi SIM txartel onartze baditu, sakatu kontaktuaren telefono-zenbakia, eta, ondoren,  edo  deia egiteko.






Dei-erregistrotik deiak egitea

Sartu dei-erregistroan jasotako eta egindako deiak ikustera, eta markatu dagozkizun zenbakiak.

- 1 Ireki  **Llamadas**
- 2 Irristatu zerrendan gora eta behera dei guztiak ikusteko. Sakatu deitu nahi diozun pertsonaren izena edo zenbakia. Telefonoak bi SIM txartel onartzen baldin baditu, sakatu  edo  deitzeko.


Nola egin larrialdi-deiak

Larrialdi-egoera batean, mugikorretik larrialdi-deiak egin daitezke, bai eta telefonoak SIM txartelik ez badu ere. Baina mugikorrerako estaldura duen leku batean egon behar duzu.

- 1 Ireki  **Llamadas**.
 - 2 Idatzi markagailuan zauden tokiko larrialdi-zenbakia, eta sakatu  .
-  Pantaila blokeatuta dagoela ere egin ditzakezu larrialdi-deiak. Pantaila blokeatuta dagoela, sakatu **Llamada de emergencia**, idatzi tokiko larrialdietako zenbakia eta sakatu  .
-  Litekeena da larrialdi-deiak egiteko aukera tokiko arauen eta eskualdeko operadoreen arabera izatea. Sarearen seinalea ahula bada eta ingurumen-interferentziak badaude tartean, baliteke deiak egin ezin izatea. Ez egon inoiz telefonoaren mende soilik larrialdi-egoeretan dei garrantzitsuak egiteko.



Markatze bizkorra



Konfiguratu markaketa bizkorreko aukera sarri deitzen diezun zenbakietarako. Zenbakia markatzeko, luze sakatu zenbaki-tekla bat.

-  Ahots-postontziari lehenespenez esleitutako tekla **1** da. Ezin da konfiguratu markaketa bizkorreko zenbaki gisa.


- 1 Ireki  **Llamadas**

2 Luze sakatu zenbaki-tekla bat kontaktu bati esleitzeko.

3 Itzuli teklatura, eta luze sakatu zenbaki-tekla bat hari lotutako kontaktuari deitzeko. Bi SIM txartel dituen telefono bat baldin baduzu, luze sakatu zenbaki-tekla bat, eta hautatu  edo  hari lotutako kontaktuari deitzeko:

 Zenbaki-tekla batek duen kontaktuaren esleipena kentzeko, zoaz teklatura, eta sakatu  > **Ajustes** > **Marcación rápida**. Hautatu esleipena ezabatu nahi diezun kontatuak, eta, ondoren, sakatu **Eliminar número asignado**

Nazioarteko deiak egitea

 Distantzia luzeko dei bat egin aurretik, jarri harremanetan zure operadorearekin, nazioarteko deien edo desplazamendu-deien zerbitzua aktiba diezazun.


1 Ireki  **Llamadas**

2 Pantaila nagusian, luze sakatu **0** tekla. **+** ikurra sartzeko, eta, ondoren, idatzi herrialdearen kodea, eskualdearen kodea eta telefono-zenbakia.


3 Sakatu . Telefonoak bi SIM txartel onartzen baldin baditu, sakatu  edo .


Automatikoki berriz deitzea



Erabili automatikoki berriz markatzeko funtzioa kontaktu baten zenbakira berriro deitzeko, deia ezarri arte.

- Lehen aldiz deia ezartzen ez denean edo eteten denean, automatikoki berriz deitzeko pantaila bistaratuko da telefonoan. Sakatu  telefono-zenbakia berriro behin bakarrik markatzeko.




- Berriz markatzeko lehenengo saiakeraren ondoren deia ezartzen ez bada, mugarik gabe berriz markatzeko pantaila bistaratuko da pantailan. Sakatu  zenbakia berriz markatzeko, deia ezarri arte.








-  sakatu behar duzu berehala. Berrero markatzeko pantaila itxi egingo da funtzioa 10 segundoan aktibatzen ez bada.
- Berrero markatzeko saiakera bertan behera uzteko, sakatu .

Nola erantzun edo ez onartu deiak


 Dei bat jasotzen duzunean, sakatu bolumen-botoia, tonua isilarazteko.





Pantaila blokeatuta dagoenean:



- Arrastatu  eskuinerantz, deiari erantzuteko.
- Arrastatu  ezkererantz, deia ez onartzeko.
- Sakatu  deia ez onartzeko eta SMS bat bidaltzeko.
- Sakatu  deia itzultzeko gogorazle bat konfiguratzeko.

Pantaila desblokeatuta dagoenean:




- Sakatu  dei bati erantzuteko.
- Sakatu  deia ez onartzeko.
- Sakatu  deia ez onartzeko eta SMS bat bidaltzeko.
- Sakatu  deia itzultzeko gogorazle bat konfiguratzeko.


 Markaketa-pantailan, sakatu  > **Ajustes** > **Rechazar llamadas con SMS** aurrez zehaztutako mezuak editatzeko.

Deian erabilgarri dauden funtzioak

Dei batean, telefonoak dei-menu bat bistaratuko du.




- **Dei-menua ezkutatzea:** Sakatu **Inicio** edo **Volver**. Dei-menura itzultzeko, sakatu pantailaren goiko aldean dagoen egoera-barra berdea.




- **Hiruko dei bat hastea:** Jarri harremanetan zure sare-operadorearekin funtzio hori erabiltzen jakiteko. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [Konferentzia-deiak egitea](#) atala.
- **Bolumena doitzea:** Sakatu bolumena igotzeko botoia, bolumena igotzeko, edo bolumena jaisteko botoia, bolumena jaisteko.
- Pizteko/itzaltzeko botoia erabilia deia amaitzeko, zoaz hona **Llamadas**, sakatu > **Ajustes** eta aktibatu **Botón de encendido cuelga** hautagailua.

Hirugarren batzuen deiei erantzutea

i Funtzio hau erabiltzen hasi aurretik, ziurtatu deia atxikitzeko zerbitzuan harpidetuta zaudela eta telefonoa deiak zain uzteko zerbitzua gaituta duzula. Deia zain uzteko zerbitzua gaitzeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi [Deia zain funtzioa gaitzea](#) atala. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan operadorearekin.

1 Hitz egiten ari zarela beste dei bat jasotzen duzunean, sakatu . Jasotako bigarren deia har dezakezu aurreko deia atxikita.

2 Sakatu , dei batetik bestera igarotzeko.




Konferentzia-deiak egitea

Konferentzia-dei bat konfiguratu dezakezu zenbait parte-hartzailearen arteko deien funtzioa erabilita. Deitu zenbaki batera (edo jaso dei bat zenbaki horretatik), eta, ondoren, deitu beste zenbaki batera, konferentzia-deira sartzeko.

i Konferentzia-deietarako sarearen asistentzia behar da. Ziurtatu zerbitzu hori aktibatuta duzula. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan operadorearekin.

1 Deitu lehen solaskideari.

2 Deia martxan jartzen denean, sakatu , eta deitu bigarren solaskideari. Lehen solaskidea zain geratuko da.

3 Bigarren deia martxan jartzen denean, sakatu  konferentzia-deiari ekiteko.

4 Deian solaskide gehiago sartzeko, errepika itzazu 2. eta 3. urratsak.

5 Sakatu  deia amaitzeko.


Dei-erregistroa ikustea



Dei-erregistroa teklatuaren goiko aldean dago. Dei galduak gorriz agertuko dira.

Dei-erregistrotik zenbaki bat gehitzea


Hautatu dei-erregistroko zenbaki bat eta gorde kontaktuetan.



1 Ireki  **Llamadas**

2 Dei-erregistroan, sakatu erantsi nahi den zenbakiaren ondoko  ikonoa, eta hau egin:

- Sakatu  kontaktu berri bat sortzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Kontaktuak sortzea](#) atala.
- Sakatu  lehendik dagoen kontaktu bati zenbakia gehitzeko.

Dei-erregistroa ezabatzea

Ireki  **Llamadas**. Hau egin dezakezu:

- **Sarrera bat ezabatzea:** Luze sakatu erregistroko sarrera bat, eta sakatu **Eliminar entrada**.
- **Zenbait sarrera bat ezabatzea:** Sakatu  > **Eliminar registro de llamadas** eta hautatu ezabatu nahi dituzun sarrerak. Sakatu  > **Eliminar**.

Sakelako modua aktibatzea

Sakelako modua aktibatu deirik ez galtzeko telefonoa poltsikoan duzunean. Dei-tonuaren bolumena eta bibrazioaren intentsitatea igo egiten dira, pixkanaka, dei bat jasotzen duzunean.

1 Ireki  **Llamadas**.

2 Sakatu  > **Ajustes**.

3 Aktibatu **Modo bolsillo** hautagailua.





- i Telefonoak bibratu egingo du dei bat jasotzen duenean, pantaila behera begira badago edo telefonoa poltsikoan badago, bai eta deiak jasotzean bibratzeko aukera desgaituta dagoela ere.

Deien doikuntzak

Deiak desbideratzea gaitzea



Dei bati ezin badiozu erantzun, konfiguratu deiak zenbaki batetik bestera desbideratzeko funtzioa.



- 1 Ireki  **Llamadas**
- 2 Sakatu  > **Ajustes**.
- 3 Hautatu **Desvío de llamadas**. Telefonoak bi SIM txartel onartzen baldin baditu, sakatu **Desvío de llamadas**, **Tarjeta 1** edo **Tarjeta 2** atalean.
- 4 Hautatu desbideratzeko modua, idatzi zenbaki hartzailea eta sakatu **Habilitar**.

Deiak desbideratzeko modua gaitzen denean, telefonoak dei jakin batzuk (adibidez, erantzuten ez dituzunak) desbideratu egiten ditu hautatutako zenbakira.

Deia zain funtzioa gaitzea

Deia zain funtzioak aukera ematen du sarrerako dei bati erantzuteko beste dei batean ari zarenean, eta batetik bestera aldatzeko.

- 1 Ireki  **Llamadas**.
- 2 Sakatu  > **Ajustes**.
- 3 Sakatu **Ajustes adicionales** eta aktibatu **Llamada en espera** hautagailua. Telefonoak bi SIM txartel onartzen baditu, sakatu **Ajustes adicionales**, **Tarjeta 1** edo **Tarjeta 2** aukeran, eta, ondoren, aktibatu **Llamada en espera** hautagailua.

Hitz egiten ari zarela beste dei bat jasotzen duzunean, sakatu  dei berriari erantzuteko, eta  dei batetik bestera aldatzeko.

Ez molestatzeko modua gaitzea

Ez molestatzeko moduak lasai lan egiteko edo atseden hartzeko aukera ematen du. Telefonoak dei edo mezu garrantzitsuen berri bakarrik emango dizu.

1 Ireki  **Doikuntzak**


2 Sakatu **No molestar** eta aktibatu **No molestar** hautagailua.



3 Sakatu **Definir interrupciones con prioridad > Lista blanca para llamadas y mensajes > +** kontaktuak zerrenda zurira pasatzeko.

Ez molestatzeko modua gaituta dagoenean, telefonoak bakarrik joko edo bibratuko du hautatutako kontaktuek deitzen dutenean edo mezua bidaltzen dutenean. Telefonoak beste dei edo mezuen tonuak edo bibratioak isilarazi egingo ditu. Jakinarazpen horiek jakinarazpen-panelean ikusten dira.

Jazarpen-iragazkia konfiguratzeko


Jazarpen-iragazkiak automatikoki blokeatzen ditu zerrenda beltzeko kontaktuen edo jatorri ezezagun deiak eta mezuak. Zerrenda beltza etengabe eguneratzen da, nahi ez diren deien eta mezuen blokeoa bermatzeko.

Ireki  **Admin. del tel.** eta sakatu **Filtro de acoso** iragazkiaren arauak eta zerrenda beltza edo zuria konfiguratzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Jazarpen-iragazkiak](#) atala.

Jazarpen-iragazkia konfiguratzeko, hau ere egin dezakezu: ireki  **Llamadas** eta sakatu  > **Filtro de acoso**

Ahots-postontziaren konfigurazioa

Telefonoa itzalita badago edo erabilgarri ez badago, jasotako deiak ahots-postontzira desbidera ditzakezu. Dei-egileek ahots-mezuak utzi ditzakete, eta hartzaileak geroago entzun.


 Operadoreak ahots-postontziaren zerbitzua eman behar dizu. Ziurtatu zerbitzu horretara harpidetuta zaudela. Jarri harremanetan operadorearekin ahots-postontziaren zerbitzuari buruzko informazio gehiago eskuratzeko.

1 Ireki  **Llamadas**.

2 Sakatu  > **Ajustes**




3 Sakatu **Ajustes adicionales**. Telefonoak bi SIM txartel onartzen baldin baditu, sakatu **Ajustes adicionales**, **Tarjeta 1** edo **Tarjeta 2** atalean.




4 Sakatu **Buzón de voz > Número del buzón de voz** eta idatzi zure ahots-postontziaren zenbakia.

Ahots-mezu bat jasotzen duzunean,  bistaratuko da egoera-barran. Markatu ahots-postontziaren zenbakia mezua entzuteko.

Kontaktuak sortzea



Telefonoan gorde daitekeen kontaktu-kopurua barne-memoriaren edukieraren araberakoa da. SIM txarteleko kontaktuen kopuru maximoa haren biltegitratze-ahalmenaren araberakoa da.


- 1 Ireki  **Contactos**.
- 2 Sakatu . Sakatu **Crear contacto nuevo** kontaktu bat lehen aldiz sortzen ari bazara.
- 3 Hautatu kokapen bat kontaktua gordetzeko, aukera-menuan.
- 4 Idatzi kontaktuaren izena, telefono-zenbakia eta gainerako informazioa, eta, ondoren, sakatu .

Deien erregistroko zenbaki bat gorde nahi baduzu, sakatu  ikonoa (gorde nahi duzun zenbakiaren ondoan dago), eta hautatu  edo . Bestela, gorde kontaktuen telefono-zenbakiak edo helbide elektronikoak **Mensajes** edo **Correo** aukeretan.

Kontaktuen xehetasunak bizkor eranstea

Bizkorrago sartu kontaktuaren informazioa telefonoan. Eskaneatu edo atera argazkia aurkezpen-txartelari, automatikoki kontaktuaren izena, telefono-zenbakia eta gainerako informazioa eranstekeo.

- 1 Ireki  **Contactos**.
- 2 Sakatu **Tarjetas de presentación > Buscar**
- 3 Ondoren, aukera hauek dituzu:
 - **Txartel bati argazkia ateratzea**: Jarri aurkezpen-txartela gainazal lau batean, eta jarri telefonoa horizontalean. Doitu bisorearen koadroa, txartela bertan sar dadin, eta sakatu .




- **Zenbait txarteli argazkia ateratzea:** Aukeratu **Ráfaga** modua, eta segi pantailako jarraibideei zenbait txarteli argazkia ateratzeko.

Eskaneatu ondoren edo argazkiak atera ondoren, kontaktuen informazioa automatikoki gordeko da **Tarjetas de presentación** atalean.




Kontaktuak inportatzea eta esportatzea

Telefonoak **.vcf** kontaktu-fitxategiak onartzen ditu. **VCF** fitxategi-formatua estandarra da, eta kontaktuen informazioa (izenak, helbideak eta telefono-zenbakiak) biltegitatzeko erabiltzen da.

Biltegitatze-gailu batean gordetako kontaktuak inportatzea

- 1 Ireki  **Contactos**.
- 2 Sakatu  > **Importar/Exportar** > **Importar desde memoria**.
- 3 Aukeratu **.vcf** fitxategi bat edo gehiago, eta sakatu **Aceptar**.

SIM txarteletik kontaktuak inportatzea

- 1 Ireki  **Contactos**.
- 2 Sakatu  > **Importar/Exportar** > **Importar desde SIM**. Telefonoak bi SIM txartel onartzen baditu, SIM1 edo SIM2 txarteletiko kontaktuak inportatu nahi dituzun hautatu behar duzu.
- 3 Hautatu inportatu nahi dituzun kontaktuak, eta sakatu .
- 4 Hautatu nondik inportatu nahi dituzun kontaktuak. Telefonoak automatikoki inportatuko ditu kontaktuak.

Kontaktuak inportatzea bluetooth bidez

- 1 Ireki  **Contactos**.
- 2 Sakatu  > **Importar/Exportar** > **Importar desde otro teléfono**

3 Hautatu **Admite Bluetooth** eta sakatu **Siguiente**.

4 Aktibatu bluetootha inportatu beharreko kontaktuak dauden gailuan, eta aktibatu gainerako bluetooth-gailuentzat ikusgai egoteko aukera.

5 Sakatu **Siguiente**. Telefonoak automatikoki aktibatuko du bluetootha, eta gertuko gailuak bilatuko ditu.

6 Sakatu kontaktuak dituen bluetooth-gailua, handik inportatzeko. Bi gailuak konektatuta daudenean, telefonoak automatikoki inportatuko ditu beste Bluetooth gailuko kontaktuak.

Kontaktuak Wi-Fi Directo bidez inportatzea

1 Ireki  **Contactos**.

2 Sakatu  > **Importar/Exportar** > **Importar desde otro teléfono**

3 Hautatu **Importar vía Wi-Fi Directo** eta sakatu **Siguiente**. Telefonoak WiFi funtzioa aktibatuzeko eskatzen du, eta gertuko Wi-Fi Directo gailuak bilatzen ditu.

4 Hautatu zein Wi-Fi Directo gailutara konektatu nahi duzun. Bi gailuak konektatuta daudenean, telefonoak automatikoki inportatuko ditu beste gailuko kontaktuak.

Biltegiratze-gailu batera kontaktuak esportatzea

1 Ireki  **Contactos**.

2 Sakatu  > **Importar/Exportar** > **Exportar a almacenamiento**


3 Sakatu **Exportar**.

4 Hautatu nondik esportatu nahi dituzun kontaktuak, eta sakatu **Aceptar**.

Lehenespenez, esportatutako **.vcf** fitxategia telefonoaren barne-memoriako jatorrizko direktorioan gordeko da. Ireki **Archivos** esportatutako fitxategia ikusteko.

Kontaktuak SIM txartelera esportatzea




1 Ireki  **Contactos**.

2 Sakatu  > **Importar/Exportar** > **Exportar a SIM**. Telefonoak bi SIM txartel onartzen baditu, SIM1 edo SIM2 txarteleko kontaktuak esportatzeko aukeratu dezakezu.

3 Hautatu esportatu nahi dituzun kontaktuak, eta sakatu .

4 Sakatu **Continuar**



Kontaktuen erabilera partekatua

- 1 Ireki  **Contactos**.
- 2 Sakatu  > **Importar/Exportar** > **Compartir**
- 3 Hautatu partekatu nahi dituzun kontaktuak, eta, ondoren, sakatu  .
- 4 Aukeratu erabilera partekatuko metodo bat, eta jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei.


Kontaktuak kudeatzea

Kontaktuak editatzea

Kontaktu bat sortu ondoren, edozein unetan editatu daiteke kontaktu horren informazioa. Horrez gain, informazioa erantsi edo ezaba dezakezu (adibidez, telefono-zenbakiak edo helbide elektronikoak). Dei-tonu pertsonalizatu bat ere hauta dezakezu, eta urtebetetze-eguna, ezizena edo argazkia erantsi.




- 1 Ireki  **Contactos**.
- 2 Luze sakatu editatu nahi duzun kontaktoa, eta sakatu **Editar**.
- 3 Sakatu kontaktuaren argazkia, eta hautatu **Hacer foto** edo **Seleccionar de Galería**. Edo, bestela, idatzi kontaktuaren informazio berria, eta sakatu  .

Kontaktuaren argazkia bistaratuko da kontaktu horrek deitzen duenean. Horrez gain, kontaktuaren gainerako informazioa ere bistaratuko da; adibidez, enpresaren izena eta lanpostua.

-  **Kontaktu bati zenbait zenbaki esleitzea:** Hautatu kontaktuen zerrendako kontaktu bat, eta sakatu **Editar** > **Añadir número de teléfono**


Kontaktu bikoiztuak eranstea

Kontaktuak zenbait iturritatik eransten dituzunean, baliteke zenbait sarrera bikoiztuta geratzea. Sarrera bikoiztu horiek konbinatu egin daitezke kontaktuak antolatuta edukitzeko.


- 1 Ireki  **Contactos**.
- 2 Sakatu  > **Organizar contactos** > **Unir contactos duplicados**
- 3 Hautatu elkartu nahi dituzun kontaktuak, eta sakatu  .

Kontaktuak ezabatzea

- 1 Ireki  **Contactos**.
- 2 Sakatu  > **Organizar contactos** > **Eliminar contactos por lotes**

3 Hautatu ezabatu nahi dituzun kontaktuak, eta sakatu .



4 Sakatu **Eliminar**.

 Bestela, luze sakatu ezabatu nahi duzun kontaktua. Aukeren menu gainerakorreen, sakatu **Eliminar** kontaktu hori ezabatzeko.

Kontaktuak bilatzea

Telefonoan, SIM txartelean edo telefonoari lotutako onlineko kontuetan jasotako kontaktuak bila ditzakezu.



1 Ireki  **Contactos**.

 Bilaketa-emaiza osatuagoak lortzeko, begiratu **Contactos** funtzioak kontaktu guztiak bistaratzen dituen. Pantaila nagusian, sakatu  > **Mostrar preferencias** eta hautatu **Todos los contactos**

2 Kontaktuen zerrendan, erabili kontaktuak bilatzeko aukera hauetako bat:

- Mugitu gora edo behera kontaktuen zerrendan.
- Irristatu gora edo behera, pantailaren eskuineko aldean, kontaktuetan mugitzeko.
- Idatzi izena, inisialak, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa edo kontaktuaren beste informazioren bat kontaktuen zerrendaren goiko aldean dagoen bilaketa-barran. Bilaketaren emaitzak behean bistaratzen dira.

3 Hautatu kontaktua. Ondoren, deitu egin diezaiokezu, testu-mezu bat bidali diezaiokezu edo kontaktuaren informazioa editatu dezakezu.

 Pantailan errore-mezu bat bistaratzen bada edo kontaktu bat ezin baduzu bilatu, sakatu  > **Organizar contactos** eta hautatu **Volver a crear datos del índice**


Hainbat kontutako kontaktuak ikustea

Telefonoan zer kontaktu bistaratzea nahi duzun hauta dezakezu:

1 Ireki  **Contactos**.

2 Sakatu  > **Mostrar preferencias**.

3 Hautatu bistaratu nahi duzun kontua edo pertsonalizatu kontuak bistartzeko.



Kontaktuen argazkiak, enpresari buruzko informazioa eta lanpostua ezkutatzea: Sakatu  > **Mostrar preferencias** kontaktuen pantailan, eta aktibatu **Diseño simple** hautagailua.

Nola gehitu kontaktuak gogokoetara

Sarrien erabiltzen dituzu kontaktuak gogokoetara pasatu ditzakezu, errazago aurkitzeko.

1 Ireki  **Contactos**.


2 Luze sakatu kontaktuetara gehitu nahi duzun gogokoa, eta sakatu **Añadir a Favoritos**, kontaktua **Favoritos** aukerara eransteko.

 Kontaktua gehitasunetara sartzen zarenean, sakatu  kontaktua gogokoetara gehitzeko.

Gogokoetatik kontaktuak ezabatzea: Sakatu **Favoritos** >  kontaktuen pantailan. Hautatu gogokoetatik ezabatu nahi dituzun kontaktuak, eta sakatu .

Kontaktu-taldeak

Antolatu lagunak eta familia taldeetan. Testu-mezuak edo mezu elektronikoak bidal diezazkiekezu taldeko kideei. Kontaktuen aplikazioak **Grupos inteligentes** funtzioa du. Telefonoak automatikoki antola ditzake kontaktuak enpresaren edo kontaktatutako azken dataren arabera. Erraztu egiten du horrek kontaktuen eta taldeen kudeaketa.





Taldeak sortzea

1 Ireki  **Contactos**.

2 Sakatu **Grupos** eta .

3 Idatzi taldearen izena (adibidez, Familia edo Lagunak), eta sakatu **Aceptar**.

4 Sakatu  . Hautatu taldera erantsi nahi dituzun kontaktuak, eta sakatu  .


Taldeak editatzea

Talde batean pertsonak erantsi edo ezaba ditzakezu, edo taldearen izena aldatu.

1 Ireki  **Contactos**.

2 Sakatu **Grupos** eta hautatu editatu nahi duzun taldea.

3 Sakatu  eta gehitu kide berriak taldean.



4 Sakatu . Ondoren, aukera hauek dituzu:

- **Eliminar miembros** sakatu, taldeko kideak ezabatzeko.
- **Eliminar grupo** sakatu, taldea ezabatzeko.
- **Cambiar nombre** sakatu, taldearen izena editatzeko.

Taldeei mezuak edo mezu elektronikoak bidaltzea

1 Ireki  **Contactos**.

2 Sakatu **Grupos** eta hautatu zer kontaktu-talderi bidali nahi diozun mezu elektronikoa.

3 Sakatu  mezu bat bidaltzeko edo  posta-mezu bat bidaltzeko.


Taldea bat ezabatzea

1 Ireki  **Contactos**.

2 Sakatu **Grupos**.

3 Luze sakatu ezabatu nahi duzun taldea, eta sakatu **Eliminar**.

4 Sakatu **Eliminar**.


 Talde bat ezabatzen baduzu, talde horretako kontaktuak ez dira ezabatzen.


Mezuak eta posta elektronikoa

Mezuak bidaltzea




Egin mezuak erakargarriago, emotikonoak, irudiak, bideoak, musika, grabazioak eta abar erantsita.


1 Ireki  **Mezuak**



2 Elkarrizketen zerrendan, sakatu  .

3 Sakatu hartzailearen koadroa, eta idatzi kontaktuaren izena edo telefono-zenbakia.  ere sakatu dezakezu kontaktu-zerrenda ikusteko eta kontaktu bat edo kontaktu-talde bat hautatzeko.




4 Hautatu testua sartzeko eremua, eta idatzi mezua. Ondoren, sakatu  .

 Edo idatzi hiru testu-lerro baino gehiago, sakatu  testua pantaila osoan idazteko modua hautatzeko. Sakatu  mezuari dokumentu bat eransteko.




 **Mezu bat ezabatzea:** Bidali eta lau segundora geldiaraz dezakezu mezuen bidalketa. Sakatu  > **Ajustes** eta, ondoren, aktibatu **Cancelar envío** hautagailua. Sakatu bi aldiz mezua bidalketa bertan behera uzteko.

Mezuei erantzutea

- 1 Ireki  **Mensajes**.
 - 2 Elkarrizketen zerrendan, sakatu kontaktu baten izena edo telefono-zenbakia, hari dagokion elkarrizketa ikusteko.
 - 3 Hautatu testua sartzeko eremua, eta idatzi mezua. Ondoren, sakatu .
-  **Mezu bati erantzutea jakinarazpen-barratik:** Mezu berriak jakinarazpen-barran bistaratuko dira. Sakatu botoia erantzuna idazteko.


Mezuak bilatzea



Erabili mezuak bilatzeko funtzioa mezuak bizkor bilatzeko.

- 1 Ireki  **Mensajes**.
- 2 Irristatu elkarrizketa-zerrendan hatza pantailan behera, bilaketa-barra igotzeko.
- 3 Idatzi gako-hitz bat edo gehiago. Bilaketaren emaitzak bilaketa-barraren azpian bistaratuko dira.

Elkarrizketak ezabatzea


Ezabatu nahi ez dituzun elkarrizketak edo elkarrizketa zaharrak, mezu-zerrenda antolatzeko.

 Ezabatutako elkarrizketak ezin dira berreskuratu; beraz, kontuz ibili.



- 1 Ireki  **Mezuak**
- 2 Elkarrizketa bateko mezu-zerrendan, luze sakatu mezu bat.
- 3 Hautatu ezabatu nahi dituzun mezuak, eta sakatu  > **Eliminar**.

Mezuak kudeatzea

Ezabatu nahi ez dituzun mezuak, birbidali mezuak beste kontaktu batzuei, kopiatu eta itsatsi mezuetako edukia eta blokeatu mezuak edo erantsi gogokoetara konturatu gabe ezaba ez ditzazun.

- 1 Ireki  **Mezuak**
- 2 Elkarrizketen zerrendan, sakatu kontaktu baten izena edo telefono-zenbakia, hari dagokion elkarrizketa ikusteko.


3 Luze sakatu mezu bat. Hau egin dezakezu:

- **Mezuak berriro bidaltzea:** Sakatu → mezua beste kontaktu bati birbidaltzeko.
- **Mezu ezabatzea:** Sakatu  > **Eliminar** mezua ezabatzeko. Ezabatutako mezuak ezin dira berreskuratu.
- **Mezua kopiatzea:** Sakatu  mezua arbelean kopiatzeko eta beste toki batean itsasteko. Mezu bat bistan duzula, sakatu bi aldiz, testua hautatzeko bistan sartzeko, pantaila osoan.
- **Mezua gogokoetara eranstea:** Sakatu ≡ > **Copiar en Favoritos** mezua gogokoetara eransteko. Mezuak ezabatzen dituzunean, gogokoetako mezuei ez die eragingo. 2 Elkarrizketen zerrendan, sakatu ≡ > **Favoritos** mezu gogokoak ikusteko.
- **Mezuak blokeatzea:** Sakatu ≡ > **Bloquear** mezu bat blokeatzeko. Mezuak ezabatzean, blokeatutako mezuei ez die eragingo.

Nahi ez dituzun mezuak blokeatzea

1 Ireki  **Mezuak**

2 Elkarrizketen zerrendan, sakatu ≡ > **Filtro de acoso** blokeatutako mezuak ikusteko.


3 Sakatu  spam mezuen arauak eta gako hitzak konfiguratzeko. Blokeatutako mezuak ez dira bistaritzen elkarrizketa-zerrendan.



Ohar bizkorrak kudeatzea

Sortu ohar lasterrak mezuak azkarrago idazteko.

1 Ireki  **Mezuak**



2 Elkarrizketen zerrendan, sakatu ≡ > **Ajustes** > **Avanzados** > **Notas rápidas**. Hau egin dezakezu:

- Sakatu ohar laster bat editatzeko.
- Sakatu  ohar laster bat sortzeko.

 **Ohar lasterrak mezu batean erabiltzea:** Mezua idaztean sakatu  . Hautatu **Frase**, eta, ondoren, hautatu ohar laster bat mezuari eransteko.

Mezuei sinadura gehitzea


Erantsi sinadura mezuei, bidaltzeko garaian denbora aurrezteko.

- 1 Ireki  **Mezuak**
- 2 Sakatu  > **Ajustes** > **Avanzados** > **Firma** elkarriketen zerrendan, eta aktibatu **Adjuntar firma** hauta-gailua.
- 3 Sakatu **Editar firma**, idatzi zure sinadura, eta sakatu **Aceptar**.


Posta elektronikoko kontuak gehitzea



Postako kontu pertsonalak gehitzea

Kontu bat eranstean konfigurazio-zalantzak baldin badituzu, galdetu zure posta-operadoreari.

- 1 Ireki  **Correo**.
- 2 Hautatu posta-operadorea edo sakatu **Otra**.
- 3 Idatzi helbide elektronikoa eta pasahitza, eta sakatu **Siguiente**. Sakatu **Configuración manual** posta elektronikoko kontu bat eskuz konfiguratzeko.
- 4 Pantailan agertzen diren argibideei jarraitu behar diezu, kontua konfiguratzeko. Sistema automatikoki konektatzen da zerbitzariarekin, eta zerbitzariaren doikuntzak egiaztatzen ditu.

Kontua sortu ondoren, pantailan **Bandeja de entrada** agertuko da.



-  Posta elektronikoko kontu bat erantsi ondoren, sakatu  > **Ajustes** > **Añadir cuenta** aukera **Bandeja de entrada** atalean, kontu gehiago eransteko.

Nola gehitu Exchange kontuak

Enpresentzako Microsoftek garatutako posta elektronikoko sistema bat da Exchange. Posta elektronikoko operadore batzuek partikularrentzat eta familientzat ere eskaintzen dituzte Exchange kontuak.

Kontu bat eranstean konfigurazio-zalantzak baldin badituzu, galdetu zure posta-operadoreari.

1 Ireki  **Correo**.

2 Sakatu **Exchange**.

3 Idatzi posta-kontuaren helbidea, erabiltzaile-izena eta pasahitza. Sakatu **Siguiente**.

4 Pantailan agertzen diren argibideei jarraitu behar diezu, kontua konfiguratzeko. Sistema automatikoki konektatzen da zerbitzariarekin, eta zerbitzariaren doikuntzak egiaztatzen ditu.

Kontua sortu ondoren, pantailan **Bandeja de entrada** agertuko da.

Mezu elektronikoak bidaltzea


1 Ireki  **Correo**.

2 Sakatu  .


3 Sakatu **De:** eta, ondoren, hautatu erabili nahi duzun posta-kontua.


4 Idatzi hartzaile bat edo batzuk.

 Mezu elektronikoak kopiarekin edo ezkutuko kopiarekin zenbait hartzaileri bidaltzeko, sakatu **Cc/Cco:**.

5 Idatzi mezu elektronikoaren gaia eta eduki nagusia. Sakatu  dokumentu bat eransteko.

6 Sakatu  .

 Posta elektronikoko operadoreak muga jar diezaioke mezu elektronikoetara eransteko dokumentuen tamainari. Atxikitako dokumentuek muga hori gainditzen badute, bidali mezu bereizitan.



Sakatu **X** > **Guardar** mezua zirriborroetan gordetzeko.



Mezu elektronikoak berrikustea

Ireki **Correo** aplikazioa, eta irristatu hatza gora **Bandeja de entrada** aukeran mezu elektronikoen zerrenda eguneratzeko.

1 Ireki  **Correo**.

2 **Bandeja de entrada**-n, sakatu  ezkerreko goiko muturrean, kontua hautatzeko.

3 Sakatu irakurri nahi duzun mezu elektronikoa. Hau egin dezakezu:

- Sakatu  etorkizuneko erreferentziatarako markatzeko.
- Sakatu  mezu elektronikoari erantzuteko, birbidaltzeko edo ezabatzeko.
- Sakatu **Responder** eta idatzi testua erantzun laster bat idazteko.
- Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera, aurreko mezua edo ondorengo mezua irakurtzeko.



VIP kontaktuak kudeatzea

Gehitu kontaktuak VIP kontaktuen zerrendara. VIP kontaktuen mezuak jasotzen dituzunean beste sarrera-ontzi batean jasoko dira.

1 Ireki  **Correo**.

2 **Bandeja de entrada** ontzian, ireki irakurri nahi duzun mezu elektronikoa.

3 Sakatu kontaktuaren argazkia, eta, ondoren, hautatu **Añadir a la lista VIP** menu gainerakorrean.

 VIP kontaktuen jakinarazpenen doikuntzak eta dei-tonuak aldatzeko, sakatu  > **Ajustes** > **Notificaciones vip** aukera **Bandeja de entrada** ontzian.

Kontu baten doikuntzak

Posta elektronikoko kontuak aldatzea

Telefonoan zenbait posta-kontu erantsi badituzu, ziurtatu kontu zuzenean zaudela mezuak irakurtzeko edo bidaltzeko.

1 Ireki  **Correo**.

2 **Bandeja de entrada**-n, sakatu ☰ ezkerreko goiko muturrean, kontuen zerrenda irekitzeko.

3 Hautatu nahi duzun posta elektronikoko kontua.

Posta elektronikoko kontu bat ezabatzea

1 Ireki  **Correo**.

2 **Bandeja de entrada** aukeran, sakatu ☰ > **Ajustes**.

3 Hautatu zein kontu ezabatu nahi duzun.

4 Sakatu **Eliminar cuenta > Aceptar**.

Posta-kontua ezabatu ondoren, kontu horretatik ezingo duzu mezurik bidali edo jaso.

Posta elektronikoko kontua pertsonalizatzea

Aukera hauek dituzu: kontaktuen argazkiak bistaratzea, mezu elektronikoko bat ezabatu ondoren bistaratu nahi duzuna hautatzea, sinadura aldatzea, sarrera-ontzia eguneratzeko maiztasuna konfiguratzea eta mezu elektronikoen jakinarazpen-tonuak aldatzea.

1 Ireki  **Correo**.

2 **Bandeja de entrada** aukeran, sakatu ☰ > **Ajustes** eta hautatu nahi dituzun doikuntzak.

Kamera eta galeria

Bisorera sartzea

Ireki kamera  bisorera sartzeko.

Flasha duen modua aldatzeko

Irekidura zabalaren modura aldatzeko

Lerratu hatza pantailan eskuinera, kameraren modura aldatzeko.

Argazkiak edo bideoak ikustea




Aurreko edo atzeko kamera hautatzeko

Iragazki-efektuak aplikatzeko

Lerratu hatza pantailan ezkerrera, kamera konfiguratzeko.

Bideoak sortzeko

Argazkiak ateratzeko

 Kameraren doikuntzei buruzko informazio gehiago jasotzeko, ikusi [Kameraren doikuntzak](#).


Argazkiak ateratzea

Telefonoak funtzio ugari dituen kamera bat du, zure bizitzako une gogoangarrien argazkiak ateratzeko.

1 Ireki  **Cámara**.

2 Enkoadratu argazkian atera nahi duzun eszena. kamerak automatikoki fokuratzen du. Sakatu bisorearen edozein gune dagokion eremua fokuratzeko. Fokuratze-distantzia doitzeko, elkartu edo bereizi bi behatz bisorean.

3 Sakatu  .

Sakatu miniatura  argazkiak ikusi eta lagunekin partekatzeko. Informazio gehiago behar izanez gero, ikusi [Argazkiak eta bideoak partekatzea](#) atala.

Argazkiak ateratzeko moduak

Telefonoak argazkiak ateratzeko zenbait modu ditu, argazkiak ateratzeko aukera desberdinetarako.



 Modeloen arabera, argazkiak ateratzeko moduak desberdinak izan daitezke.

Lerratu hatza eskuinera bisorean, argazkiak ateratzeko modua aldatzeko.

- **EDERTASUNA:** Arrastatu kontrol lerragarria edertasun-maila doitzeko eta aurpegiak hobetzeko modua aplikatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Edertasun modua](#) atala.
- **PANORAMIKA:** Modu hori erabilita, argazki angeluhandiak atera daitezke. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [Argazki panoramikoak ateratzea](#) atala.
- **Autorretratu panoramikoak:** Modu horrekin autorretratu panoramikoak egin ditzakezu. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [Autorretratu panoramikoak egitea](#) atala.
- **GAUEKO ARGAZKIAK:** Aukera honekin gaueko argazkiak atera ditzakezu. Kamerak automatikoki doitu du esposizioa, inguruko argiaren arabera. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Supergaua-modua](#) atala.
- **HDR:** Argi gutxiko edo askoko inguruetan egindako argazkiak hobetzeko aukera ematen du. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [HDR modua](#) atala.
- **Profesionala:** DSLR kalitatearekin argazki ikusgarriak ateratzeko aukera ematen du. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Profesional modua](#) atala.
- **DOKUMENTUAK ESKANEATZEA:** Angelu batetik ateratako argazkiak zuzentzeko aukera ematen du, haiek errazago irakurtzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Dokumentuak zuzentzea](#) atala.
- **PINTURA ARGIAREKIN:** Atera argi-arrastoak obturadorearen lentearen abiadura erabilita. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Pintura argiduna moduaren](#) atala.
- **UR-MARKA:** Argazkiei ur-markak gehitzeko aukera ematen du. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [Argazkiei ur-markak gehitzea](#) atala.
- **AUDIO-OHARRA:** Argazkiak ateratzean, audio-segundo batzuk graba ditzakezu. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Audio-oharrak](#) atala.
- **Irekidura zabala:** Argazkiak atera diezazkiekezu objektuei eta pertsoneri, lehen planoan, atzealde lausoa dutela. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Irekidura handiko argazkiak](#) atala.
- **MONOKROMATIKOA:** Argazkiak atera ditzakezu zuri-beltzean. Informazio gehiagorako, kontsultatu [Argazkiak zuri-beltzean](#) atala.
- **KAMERA LASTERRA:** Aukera honekin eszena mantso baten bideo bizkor bat sor daiteke. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Kamera lasterra modua](#) atala.
- **KAMERA GELDOA:** Bideoak grabatu ditzakezu kamera geldoan. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Kamera geldoan grabatzea](#) atala.

Edertasun modua

Erabili Edertasun modua selfie txundigarriak ateratzeko eta azal gazte eta leunagoko itxura emateko.



- 1** Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **BELLEZA**.
- 2** Arrastatu kontrol lerragarria, edertasun-moduaren maila doitzeko.
- 3** Enkoadratu argazkian atera nahi duzun eszena, eta sakatu  . Kamerak automatikoki detektatuko ditu argazkiko aurpegi guztiak, eta edertasun-doikuntzak aplikatuko ditu.

Selfiea hobetzeko modua

Erabili Selfiea hobetzeko modua aurpegietan edertasun-doikuntza pertsonalizatuak automatikoki aplikatzeko taldeko argazkietan. Konfiguratu doikuntzak begietarako, begi-ninietarako, azaleko tonurako eta aurpegiaren formarako, jende askoren artean nabarmentzeko.

Selfiea hobetzeko modua erabiltzea

Selfiea hobetzeko moduak automatikoki detektatzen ditu aurpegiak taldeko argazkietan, eta azalean edertasun-doikuntza pertsonalizatuak aplikatzen ditu.

- 1** Ireki  **Cámara**. Lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **BELLEZA**.
- 2** (Aukerakoa) irristatu hatza pantailan ezkerrera, eta egiaztatu **Mejorar selfie** hautagailua aktibatuta dagoela. Ikusi [Selfiea hobetzeko modua](#) atala modu hau lehenbizikoz gaitu behar baduzu.
- 3** Itzuli **BELLEZA** pantailara argazkia ateratzeko. Hautatu aurreko kamera selfiea egin nahi baduzu. Sakatu  . Kamerak automatikoki detektatuko du zure aurpegia, eta aurpegia hobetzeko lehenetsitako doikuntzak aplikatuko ditu.


Selfiea hobetzeko modua konfiguratzeko

Eman pauso hauek Selfiea hobetzeko modua lehen aldiz erabiltzen ari zarenean.

- 1** Ireki  **Cámara**. Lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **BELLEZA**.

2 Sakatu **Mejorar selfie** aurpegia hobetzeko doikuntzak konfiguratzeko.

- Atera hiru argazki aurpegiari: aurretik, albotik eta burua behera jarrita.
- Konfiguratu azalaren tonuaren, begi-ninien eta aurpegiaren formaren doikuntzak, nahi duzunaren arabera. Ezarri doikuntza altuagoak efektu nabarmenagoak lortzeko. Sakatu ✓.




- **Informazio pertsonala eguneratzea:** Kameraren doikuntza-pantailan, sakatu **Mejorar selfie > Editar información personal** kalibrazio-argazkiak eguneratzeko.
- **Edertasun-doikuntzak aldatzea:** Kameraren doikuntza-pantailan, sakatu **Mejorar selfie > Configurar efectos de belleza** edertasun-doikuntzak (adibidez, azalaren tonua eta aurpegiaren forma) aldatzeko.
- **Selfiea hobetzeko modua desgaitzea:** Kameraren doikuntza-pantailan, desgaitatu **Mejorar selfie** hautagailua selfiea hobetzeko modua desgaitzeko.

Uneko argazki bizkorra

Sakatu bolumena jaisteko botoia bi aldiz argazki bat ateratzeko, baita pantaila itzalita dagoenean ere.




i Aukera hau ezin da erabili musika erreproduzitzen ari zarenean. Kamerako modu guztiek ez dute funtzio hori onartzen.

1 Ireki  **Cámara** eta irristatu hatza pantailan ezkerrera kameraren doikuntzetan sartzeko. Sakatu **Instantánea rápida > Abrir la cámara y hacer una instantánea rápida**.

2 Pantaila itzalita dagoela, jarri kamera nahi duzun objektuari begira, eta sakatu bi aldiz bizkor bolumena jaisteko botoia argazkia ateratzeko. Kamerak automatikoki aterako ditu argazkiak, eta atzitze-denbora bistaratuko du.

i **Uneko argazki bizkorra funtzioa desgaitzea:** Kameraren doikuntza-pantailan, sakatu **Instantánea rápida > No**.




- i** Argazkia bizkor ateratzen denez, baliteke argazkiaren kalitatea gutxitzea gaueko argazkietan edo lehen planokoetan. Hautatu argi asko dagoen tokiren bat, eta atera argazkia distantzia egokitik.

Argazki-sorta ateratzea

Erabili argazki-sortak ateratzeko modua mugitzen ari den elementu bati argazkia atera nahi badiozu (adibidez, futboleko partida batean). Bizkor aterako ditu kamerak zenbait argazki, ekintza ez galtzeko.



- i** Kamerako modu guztiek ez dute funtzio hori onartzen.


1 Ireki  **Cámara**.

2 Fokatu elementua, eta luze sakatu  argazki-sorta ateratzen hasteko. Kendu hatza argazki-sorta geldiarazteko.

3 Argazkiak ikusteko eta hautatzeko, sakatu argazkiaren miniatura  eta, ondoren, sakatu, .

- i**  ikonoak adierazten du Argazki sorta moduarekin atera direla argazki horiek.


4 Telefonoak automatikoki hautatzen du argazkirik onena. Beste argazki batzuk aukeratzeko, sakatu . Sakatu , eta bete pantailan agertuko diren jarraibideak, argazkia gordetzeko.





- i** Argazki-sortaren moduan ezin bazara sartu, sakatu **Mantener pulsado obturador** kameraren doikuntza-pantailan, eta egiaztatu **Toma en ráfaga** aukera hautatuta dagoela.

Ahots bidez argazkia ateratzea


Erabili Ahots bidez argazkiak ateratzea modua obturadorea kontrolatzeko, taldeko argazki bat atera nahi duzunean.

- 1** Ireki  **Cámara**. Irristatu hatza pantailan ezkerrera kameraren doikuntzetan sartzeko.
- 2** Sakatu **Control de audio** eta aktibatu **Control de audio** hautagailua. Ondoren, aukera hauek dituzu:
 - “Cheese” esan dezakezu, argazkiak ateratzeko.
 - Kamera konfiguratu dezakezu argazkiak atera ditzan inguruko zarata-maila dezibelio-maila jakin batera iristen denean.
- 3** Enkoadratu argazkian atera nahi duzun eszena. Kamerak automatikoki aterako du argazkia ahots-komando bat esaten duzunean edo kamerak soinu altu bat detektatzen duenean.

Kamera Galeriatik abiaraztea

- 1** Ireki  **Galería**.
 - 2** Sartu **Fotos** fitxan, eta irristatu hatza behera pantaila-erdi moduan bisorea bistaratzeko. Irristatu berriz hatza beherantz kamera abiarazteko.
-  Kamerako funtzio guztiak ez daude eskura pantaila-erdi moduan.



- 3** Hautatu argazkia ateratzeko modua. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Argazkiak ateratzeko modua](#) atala.
- 4** Sakatu  argazki bat ateratzeko.

5 Sakatu ◀. **Volver** Galeriara itzultzeko.

Objektuen segimendua

Erabili objektuen segimendua mugimenduan dauden subjektuei (adibidez, pertsonak edo animaliak) argazkiak ateratzeko. Kamerak automatikoki fokuratuko du mugimenduan dagoen subjektua irudia fokuratuta gera dadin.


i Objektuen segimenduaren modua eta irribarreak ateratzeko aukera ezin dira erabili aldi berean.

1 Ireki **Cámara**. Irristatu hatza pantailan ezkerrera kameraren doikuntzetan sartzeko.

2 Aktibatu **Seguimiento de objetos** hautagailua.

3 Sakatu subjektu bat pantailan. Kamerak fokuratuta edukiko du argazki-gaia.

4 Sakatu **○**.



Audio-oharrak

Erantsi audio-oharrak zure argazkiei bizitasuna emateko.

1 Ireki **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **NOTA DE AUDIO**.


2 Enkoadratu argazkian atera nahi duzun eszena.

3 Sakatu **○** argazki bat audio-ohar batekin ateratzeko. Kamerak audio-fitxategi labur bat grabatzen du, eta argazkiari eranstean dio.

HDR modua

Erabili HDR modua kontraste handiko eszenak ateratzeko eta gehiegizko esposizio edo esposizio-gabezia galarazteko eta argazki guztietan gardentasuna bermatzeko.

i HDR moduan ez dago erabilgarri aurreko kamera.

1 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **HDR**.

2 Tinko eutsi telefonoari, enkoadratu eszena, eta sakatu  .


Supergaua modua

Supergaua moduak gauetz edo argi gutxirekin ateratako argazkien kalitatea hobetzen du, eremu ilunenen xehetasunak nabarmentzen baititu argazki distiratsuagoak eta koloretsuagoak lortzeko.

i Erabili tripode bat kameraren mugimendua gutxitzeko.

1 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **GAUEKO MODUA**.

i Sakatu **Auto** eta segi pantailan agertzen diren jarraibideei, ISO eta esposizioaren beste doikuntza batzuk eskuz ezartzeko.

2 Tinko eutsi telefonoari, enkoadratu eszena, eta sakatu  . Kamerak zenbait argazki ateratzen ditu automatikoki eta gainjarri egiten ditu, argazki bakar bat lortzeko.




Profesional modua

Profesional moduak aukera ematen du kameraren doikuntzak erabat kontrolatu eta eszena zailtan itxura profesionaleko argazkiak ateratzeko.

Profesional modua erabiltzea

Telefonoak Profesional modua du, kameraren doikuntzak eskuz kontrolatu eta (gainezarpena, esposizioa eta obturadorearen abiadura), kalitate profesionaleko argazkiak egiteko.

1 Ireki  **Cámara** eta lerratu hatz gora  kontrol lerragarrian, Profesional modua gaitzeko.




i **FOTO, VÍDEO** eta **MONOCROMÁTICO** pantailatik bakarrik sar zaitezke modu profesionallean.

2 Modu horretan, esposizioa, obturadorearen abiadura eta kameraren beste doikuntza batzuk ezar ditzakezu. Lauki-gainezarpenak erants ditzakezu, eta prozesatu gabeko formatuan egin argazkiak.

- **Obturadorearen abiadura, zurien balantzea eta kameraren beste doikuntza batzuk doitzea:** ISO, esposizioaren konpentsazioa, zurien balantzea, fokuratzeko modua, obturadorearen abiadura eta abar ezar ditzakezu Profesional moduaren doikuntzen pantailan. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Profesional moduaren doikuntzak](#) atala.
- **Fokuratze-argi osagarria aktibatzea:** Lerratu hatza pantailan ezkerrera, eta sakatu **Luz auxiliar de AF** hautagailua. Erabili fokuratze-argi toki ilunetan elementuak errazago fokuratzeko.

- **Gainezarpenak eranstea:** Lerratu hatza pantailan ezkerrera, eta sakatu **Cuadrícula de cámara**. Erabili gainezarpen bat argazkiak sortzen laguntzeko. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [Gainezarpenak eranstea](#) atala.
- **Argazkiak ekoiztea prozesatu gabeko formatuan:** Lerratu hatza pantailan ezkerrera, eta sakatu **Formato RAW** hautagailua. Modu profesionalean ateratako argazkiak JPEG eta DNG formatuetan gorde daitezke.


i Prozesatu gabeko formatua argazkilari profesionalek erabiltzen dute, kameraren argazki-sentsorearen prozesatu gabeko datuak erregistratzeko. Prozesatu gabeko formatuan gordetako argazkiek xehetasun original guztiak dituzte, eta erraz edita daitezke. Hala ere, prozesatu gabeko argazkiek pisu handia dute, eta, beraz, toki gehiago hartzen dute gailuan.

3 Kamerako doikuntzen aldaketak amaitu ondoren, sakatu  argazkia ateratzeko.

i Esposizio baxuaren ikonoa bakarrik bistaratzen da esposizioa baxuegia denean. Sakatu ikonoa esposizio-doikuntza lehenetsiak berrezartzeko.

Profesional moduaren doikuntzak

Profesional moduak aukera ematen du kameraren doikuntza-sorta guztia bisorean konfiguratu eta, hartara, itxura profesionaleko argazkiak egiteko. Adibidez, ISO, esposizioaren konpentsazioa, zuriaren balantzea, fokuratzeko modua, obturadorearen abiadura eta abar konfiguratu ditzakezu.



Esposizio txikiegia: ohartarazpena

Eskuzko doikuntzak

Esposizio txikiegia ikonoa

Sakatu ikono hori esposizio-doikuntza lehenetsiak berrezartzeko. Ikonoa bakarrik bistaratzen da esposizioa baxuegia denean.

- **()**: Sakatu aukera hori neurketa-modua ezartzeko (kamerak esposizioa horrela adierazten du). Aukera hauek dituzu: neurketa matriziala, neurketa haztatua edo puntu-neurketa. Lehenespenez, neurketa matriziala izaten du jarrita.
- **ISO**: Sakatu aukera hori kameraren argiarekiko sentsibilitatea doitzeko. ISO igoz gero, argazki distiratsuagoak aterako dituzu, baina zarata ere asko igoko da. Kamera konfiguratu dezakezu, ISO doikuntza automatikoki egin dezan edo eskuz doitu dezazun.
- **S**: Aukera hau sakatu obturadorearen abiadura ezartzeko. Kamera konfiguratu dezakezu, obturadorearen abiaduraren doikuntza automatikoki egin dezan edo eskuz doitu dezazun.
- **EV**: Aukera hau sakatu esposizioaren konpentsazioa ezartzeko.

Hautatu esposizio-doikuntzak distira handitu edo txikitzeko. Sakatuta eduki ikonoa uneko esposizioaren doikuntza blokeatzeko.

Eskuzko

doikuntzak

- **AF**: Sakatu aukera hau fokuratzeko modua ezartzeko. Ukipen-fokuratzea, autofoku jarraia edo eskuzko fokuratzea hauta dezakezu. Lehenespenez, autofoku jarraia izaten du jarrita. Autofoku jarraia baldin badago hautatuta, sakatuta eduki ikonoa fokuratzearren blokeoa gaitzeko.
- **AWB**: Sakatu aukera hau zurien balantzea hautatzeko, inguruko argiaren arabera. Eguzkiaren argia, goritasun-lanparak, lanpara fluoreszenteak eta abar hauta ditzakezu. Kolore-tenperatura ere konfiguratu dezakezu. Sakatuta eduki ikonoa zurien balantzea blokeatzeko.

Pintura argiduna modua

Pintura argiduna moduak aukera ematen du argi-arrastodun argazki txundigarriak ateratzeko, obturadorearen irekidura edo abiadura eskuz doitu gabe. Lau doikuntza-mota daude, argazkia ateratzen den inguruaren arabera.

- **Argi-arrastoak**: Gauzez autoek sortzen dituzten argi-arrastoei argazkiak atera diezazkiekezu.
- **Argi-grafitia**: Ingurune ilunetako argi-arrastoak ateratzeko aukera ematen du.
- **Ur leunak**: Argazki leunak atera ditzakezu, adibidez, ur-zeta mugitzen.
- **Izar-arrastoak**: Gauean, izar-arrastoei argazki txundigarriak atera dakizkieke.


Argi-arrastoak


Pintura argiduna moduan, hautatu **Estela de luz** gauean autoek sortutako argi-arrastoak ateratzeko.




1 Hautatu leku egoki bat, eta eutsi tinko telefonoari. Erabili tripode bat esposizioa luzeqa bada.

i Atera argazkiak urrutitik emaitza hobeak lortzeko. Ez jarri kamera autoen aurreko argiei begira, eremu batzuek gehiegizko esposiziorik eduki ez dezaten.

2 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta, ondoren, sakatu **PINTURA CON LUZ > Estela de luz**.

3 Sakatu  esposizioa hasteko. Esposizio-denbora pantailaren beheko aldean bistaratzen da.

4 Bisorean, argazkiaren aurrebista bat azaltzen da. Nahi den esposizio-denbora pasatu ondoren, sakatu  esposizioa amaitzeko.

Argi-grafitia


Pintura argiduna moduan, hautatu **Grafiti de luz** argi-iturri bat mugitzen duten ereduak edo testua sortzeko kameraren parean.




i Erabili linterna txiki bat edo makila argidun bat eredu bat sortzeko.

1 Hautatu leku egoki bat, eta eutsi tinko telefonoari. Erabili tripode bat esposizioa luzea bada.

i Hautatu beste argi-iturrietatik urrun dagoen toki bat eredu nabarmenarazteko.

2 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta, ondoren, sakatu **PINTURA CON LUZ > Grafiti de luz**.

3 Sakatu  pertsona argi-iturriarekin argi-eredua marrazten hasten denean. Esposizio-denbora pantailaren beheko aldean bistaratzen da.




i Aktibatu flasha eredu sortzen ari den pertsona ere ateratzea nahi baduzu.

4 Bisorean, argazkiaren aurrebista bat azaltzen da. Sakatu , esposizioa amaitzeko.

Ur leunak

Pintura argiduna moduan, hautatu **Aguas suaves** argazki leunak ateratzeko (adibidez, ur-jauzien eta ibaien zeta).




- 1** Hautatu leku egoki bat, eta eutsi tinko telefonoari. Erabili tripode bat esposizioa luzea bada.
- 2** Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta, ondoren, sakatu **PINTURA CON LUZ > Aguas suaves**.
- 3** Sakatu  esposizioa hasteko. Esposizio-denbora pantailaren beheko aldean bistaratzen da.
- 4** Bisorean, argazkiaren aurrebista bat azaltzen da. Nahi den esposizio-denbora pasatu ondoren, sakatu  esposizioa amaitzeko.

Izar-arrastoak


Kamera erabil dezakezu gauean izarren mugimenduari argazkia ateratzeko.





-  Erabili tripode bat kameraren mugimendua gutxitzeko eta telefonoari tinko eusteko.

1 Hautatu oztopoetatik urrun dagoen toki egoki bat. Zerua oskarbi dagoenean emaitza hobekak lortuko dituzu.

i Argazkia ateratzeko, urrutiratu argi-iturrietatik, eta ez erabili esposizio-denbora luzeak, argazkiko zati batzuek gehiegizko esposizioa eduki ez dezaten.

2 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta, ondoren, sakatu **PINTURA CON LUZ > Estela de estrellas**.

3 Sakatu  esposizioa hasteko. Esposizio-denbora pantailaren beheko aldean bistaratzen da.

4 Bisorean, argazkiaren aurrebista bat azaltzen da. Nahi den esposizio-denbora pasatu ondoren, sakatu  esposizioa amaitzeko.

Argazki panoramikoak


Argazki panoramikoak ateratzea

Argazki panoramikoak ateratzeko moduarekin argazki angeluhandiak atera daitezke.




1 Hautatu leku egoki bat, eta eutsi tinko telefonoari. Atera argazkia leku zabal eta ireki batean, eta saihestu atzealde monokromatikoak.

2 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **PANORÁMICA**.

3 Sakatu  hartualdia hasteko.


4 Pantailan agertzen diren argibideei jarraitu behar diezu argazkia ateratzeko. Mugitu poliki kamera ezkerretik eskuinera, eta begiratu gezia erdiko lerroarekin lerrokatuta dagoen. Autorretratu moduan argazki panoramikoak ateratzeko, hautatu → eta mugitu kamera gorantz, poliki.



5 Sakatu  hartualdia eteteko. Kamerak automatikoki elkartzen ditu argazkiak, argazki panoramiko bat osatzeko.

Autorretratu panoramikoak ateratzea

Autorretratu moduan ere egin ditzakezu angelu zabaleko argazkiak, inguru ederrei argazkiak ateratzeko.


 Ezin dituzu autorretratu panoramikoak atera horizontalean.

1 Ireki  **Cámara**.

2 Sakatu  aurreko kamera hautatzeko.


3 Irristatu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **PANORÁMICA**.

4 Eutsi tinko telefonoari, jarri kamera pertsonari begira, eta sakatu  lehenengo argazkia ateratzeko.

 Argazki batetik bestera pertsonak ez du mugitu behar.





5 Jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei, eta mugitu poliki kamera ezkerrean. Kamerak bigarren argazkia aterako du, automatikoki, koadro urdina ezkerreko koadroan lerrotatzen denean.

6 Jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei, eta mugitu poliki kamera eskuinera. Kamerak azken argazkia aterako du koadro urdina eskuineko koadroan lerrotatzen denean. Kamerak automatikoki elkartzen ditu argazkiak, argazki panoramiko bat osatzeko.

 Eutsi tinko telefonoari eta mugitu, poliki, biratzen zarenean.






Argazkiei ur-markak gehitzea

Gehitu ur-markak argazkiak pertsonalizatzeko eta non atera zenituen gogorarazteko lagungarri izan daitezten.


- 1 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **MARCA DE AGUA**.
- 2 Sakatu  edo  nabigazio-ikonoa, edo sakatu **MÁS** eta hautatu nahi duzun ur-marka.
- 3 Arrastatu ur-marka tokiz aldatzeko, eta, ondoren, sakatu  argazkia ateratzeko.




Bideoak grabatzea

- 1 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **VÍDEO**.
 - 2 Sakatu , bideoa grabatzen hasteko.
 - 3 Sakatu pantaila grabazioan objektu bat edo eremu bat fokuratzeko. .
- Sakatu  grabazioa eteteko, eta, ondoren, sakatu  berrabiarazteko. Sakatu  uneko eszena argazki gisa gordetzeko.



4 Sakatu  grabazioa amaitzeko.

 **Aurpegia automatikoki hobetzeko aukera:** Lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **VÍDEO CON FUNCIÓN BELLEZA**. Egonkorgailua ezin da gaitu modu horretan.


Kamera lasterra modua


Kamera lasterra moduak aukera ematen du argazkiak atera eta naturaren aldaketa nabarmenak bizkortzeko. Adibidez, lore bat irekitzen edo hodeiak mugitzen graba ditzakezu.




1 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **CÁMARA RÁPIDA**.

2 Sakatu , bideoa grabatzen hasteko.

 Kamerak automatikoki hautatzen du koadro-abiadura egokia, grabazioaren iraupenaren arabera. Fokuratze-distantzia ezin da doitu grabazioak irauten duen bitartean.

3 Sakatu  grabazioa amaitzeko.

Sakatu  miniatura, grabazioa erreproduzitzeko. Koadro-abiadura bizkorragoan erreproduzitu da bideoa. Koadro-abiadura automatikoki ezartzen du kamerak, eta ezin da doitu.

Kamera geldoan grabatzea


Bideoak graba ditzakezu kamera geldoan, mugimendu bizkorreko eszenak ikusteko (adibidez, euri-tantak edo dantzako mugimenduak).

1 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **CÁMARA LENTA**.

2 Sakatu , bideoa grabatzen hasteko.

3 Sakatu pantaila grabazioan objektu bat edo eremu bat fokuratzeko.

4 Sakatu  grabazioa amaitzeko.


Sakatu  miniatura, grabazioa kamera geldoan erreproduzitzeko. Bestalde, bideoko eszena hauta dezakezu, eta kamera geldoan erreproduzitu.


Dokumentuak zuzentzea

Dokumentuak zuzentzeko modua erabil dezakezu argazki batean dokumentu baten orientazioa automatikoki doitzeko. Adibidez, bilera-gela baten muturrean eserita bazaude, PPT baten argazki bat atera dezakezu, eta dokumentuen birdoitzea erabili argazkia moztu eta zuzentzeko, pantailara ondo egokitu dadin.

1 Ireki  **Cámara**, lerratu hatza pantailan eskuinera, eta sakatu **ESCANEADO DE DOCUMENTOS**.

 Sakatu **Auto** argazkiak automatikoki ateratzeko modua desaktibatu eta argazkiak eskuz egiteko.

2 Fokuratu elementua (adibidez, PPT bat, poster bat edo pantaila bat) eta sakatu  argazkia ateratzeko. Kamerak automatikoki aterako du testua duen irudiaren zatia, eta haren orientazioa doitu, errazago irakur dadin.



Sakatu miniatura, irudiko testua irakurtzeko, eta sakatu irudia editatzeko.

Kameraren eta bideoaren doikuntzak

Argazkien eta bideoen bereizmena ezartzea

Bereizmena handitu dezakezu argazki eta bideoen kalitatea hobetzeko. Hala ere, bereizmen handiagoa duten argazkiek toki gehiago hartzen dute gailuan. Bereizmena aldatzeak argazkiaren tamaina ere aldatzen du.

Baliteke argazkiak ateratzeko modu batzuek ez onartzea bereizmen guztiak.

Ireki **Cámara**. Lerratu hatza pantailan ezkerrera, eta sakatu **Resolución** bereizmena aldatzeko.

Argazkiak eta bideoak gordetzeko lehenetsitako kokapena konfiguratzeko


Lehenespenez, argazkiak eta bideoak telefonoaren memorian gordetzen dira. Ezarri microSD txartela biltegitratze-kokapen lehenetsi gisa, telefonoaren memorian tokia egiteko.

Ireki **Cámara**, lerratu hatza pantailan ezkerrera. Aktibatu **Primero guardar en tarjeta SD** hautagailua, microSD txartela ezartzeko biltegitratze-kokapen lehenetsi gisa. Aukera hau ez da erabilgarri egongo telefonoan microSD txartelik ez badago. Halaber, microSD txartela beteta badago, argazkiak telefonoaren barne-memorian gordeko dira.

Gainezarpenak eranstea


Argazkia egiten lagunduko dizuten lauki- edo espiral-gainezarpenak erantsi ditzakezu bisorean.

 Baliteke gainezarpenaren aukerarik ez egotea argazkiak ateratzeko modu batzuetan.

Ireki  **Cámara**. Irristatu hatza pantailan ezkerrera, sakatu **Cuadrícula de cámara** eta hautatu gainezarpen bat irudia sortzeko. Hautatu **No** erreferentzia-lerroak ezabatzeko.

3 x 3 lauki-gainezarpena hauta dezakezu, urre-zenbakia edo espiral-gainezarpena oinarri hartuta. Erabili 3 x 3 laukiak argazkiak —oro har— ateratzeko. Urre-zenbakiaren gaineko laukiek, 3 x 3 laukien antzekoak diren arren, urre-zenbakia erabiltzen dute bisorea atal markatuetan zatitzeko. Erabili espiraleko laukiak tokien barrualdean argazkiak egiteko edo autorretratuak ateratzeko.


Bideo-doikuntzak

 Gerta liteke argazkiak ateratzeko modu batzuek ez onartzea doikuntza guztiak.

Irristatu hatza ezkerrera bideoak ateratzeko pantailan, doikuntza hauek konfiguratzea:

- **Bereizmena:** Bideoaren bereizmena konfiguratzeko.
- **GPS kokapena:** Bideoa non grabatu zen ikusteko aukera ematen du.
- **Lehenengo SD txartelean gordetzea:** Bideoak gordetzeko lehenetsitako kokapena konfiguratzeko balio du. Telefonoko barne-memoria edo microSD txartelekoa erabili nahi duzun hauta dezakezu.
- **Objektuen segimendua:** Objektu bat sakatu dezakezu pantailan. Kamerak hautatutako objektua fokuratuko du bideoa ateratzeko garaian.
- **Egonkortzailea:** Grabazioan kameraren mugimendua minimizatzen du.

Kamera-doikuntzak

 Gerta liteke argazkiak ateratzeko modu batzuek ez onartzea doikuntza guztiak.

Irristatu hatza ezkerrera argazkiak ateratzeko pantailan, doikuntza hauek konfiguratzea:


- **Bereizmena:** Argazkien bereizmena konfiguratzeko balio du.
- **GPS kokapena:** Argazkia non grabatu zen ikusteko aukera ematen du.
- **Lehenengo SD txartelean gordetzea:** Argazkiak gordetzeko lehenetsitako kokapena konfiguratzeko balio du. Telefonoko barne-memoria edo microSD txartelekoa erabili nahi duzun hauta dezakezu.

- **Selfiea hobetzea:** Gaitu edo desgaitu funtzio hori **BELLEZA** moduan, aurpegiak automatikoki detektatzeko eta erretratuak hobetzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Selfiea hobetzeko modua erabiltzea](#) atala.
- **Obturadorea luze sakatzea:** Obturadorea sakatzeko doikuntzak konfiguratzeko balio du. Aukera hauek dituzu: **Toma en ráfaga** edo **Foco**.
- **Audio-kontrola:** Ahots-komandoen bidez argazkiak ateratzeko.
- **Bolumen-teklen funtzioa:** Bolumen-botoien doikuntzak konfiguratzeko balio du. Aukera hauek dituzu: **Obturador**, **Zoom** edo **Foco**
- **Isilik:** Gaitu funtzio hori kamera isilarazteko. Lege-murrizketak direla eta, funtzio hori ez dago erabilgarri herrialde eta eskualde guztietan
- **Tenporizadorea:** Gaitu funtzio hori tenporizadore automatikoa ezartzeko.
- **Argazkiak ateratzeko sakatzea:** Bisorea sakatuta argazkia ateratzeko aukera ematen du.
- **Irribarreei argazkiak ateratzea:** Kamerak automatikoki ateratzen du argazkia irribarre bat detektatzen duenean.
- **Objektuen segimendua:** Fokuratu nahi duzun objektua sakatzeko aukera ematen du. Kamerak hautatutako objektuari segitzen dio, eta fokuratu egiten du. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Objektuen segmentua](#) atala.
- **Bat-bateko argazki bizkorra:** Bolumena jaisteko botoia bi aldiz sakatu dezakezu argazki bat ateratzeko, pantaila itzalita dagoela. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Bat-bateko argazki bizkorra](#) atala.
- **Irudi-doikuntza:** Saturazioa, kontrastea eta distira doitzeko balio du.

Argazkiak edo bideoak ikustea

Argazki eta bideo hauek ikus ditzakezu Galerian:

- Kamerarekin egindako argazkiak eta bideoak.
- Lagunek partekatutako argazkiak eta bideoak.
- Ordenagailutik sinkronizatutako argazkiak eta bideoak.
- Mezuetatik, mezu elektronikoetatik edo webguneetatik gordetako argazkiak eta bideoak, eta pantaila-argazkiak.

Ireki  **Galería**, eta sartu **Fotos** fitxan, argazkiak eta bideoak egin ziren dataren eta lekuaren arabera ordenatzeko. Zoaz Álbumes fitxara, argazkiak eta bideoak albumen arabera antolatzeko.

Ordena kronologikoan bistaratzea argazkiak

Zoaz **Fotos** fitxara. Automatikoki ordena kronologikoan bistaratuko dira argazkiak.

Sakatu ☰ > **Ajustes**, eta, gero, aktibatu, **Mostrar fecha y hora** hautagailua, irudi bat bistaratzean zer egunetan eta zer ordutan egin zen bistara dadin.


Kokapenaren arabera bistaratzea argazkiak

Zoaz **Fotos** fitxara, eta sakatu 🌐. Mapa batean bistaratuko dira argazkiak, kokapenari buruzko informazioarekin.

Sakatu ☰ > **Ajustes**, eta, gero, aktibatu, **Mostrar ubicación** hautagailua, irudi bat bistaratzean non egin zen bistara dadin.

Albumen arabera bistaratzea argazkiak


Zoaz Álbumes fitxara. Argazkiak eta bideoak automatikoki gehitzen dira karpeta lehenetsietan. Adibidez, kamera erabiliz grabatzen dituzun bideoak **Videos de la cámara** karpetara gehituko dira automatikoki, eta pantaila-argazkiak, **Capturas** karpetara.

 Sakatu ☰ > **Ocultar álbumes**, eta, gero, hautatu ezkutatu nahi dituzun albumen ondoan dagoen hautagailua. Album horiek ez dira agertuko album-zerrendan.




Aurkezpen gisa bistaratzea argazkiak

Zoaz **Fotos** fitxara, eta sakatu ☰ > **Presentación**. Sakatu pantaila, argazki-aurkezpena gelditzeko.


Pantaila osoan moduan bistaratzea argazkiak

Ireki  **Galería**, eta ukitu irudi bat, pantaila osoaren moduan ikusteko. Sakatu pantaila, menua bistartzeko edo ezkutatzeko.






- **Hurbiltzeko edo urruntzeko.** Bereizi bi hatzak pantailan irudia gerturatzeko edo egin atximur pantailari bi hatzekin irudia urruntzeko.
- **Irudiaren xehetasunak ikusteko.** Sakatu  irudi baten xehetasunak ikusteko; esaterako, ISOa, esposizioaren konpentsazioa eta bereizmena.
- **Argazkiaren izena aldatzeko.** Argazki baten izena aldatzeko, sakatu  > **Cambiar nombre**, idatzi izen berria, eta hautatu **Aceptar**.
- **Argazkia pantaila nagusiaren pantaila-atzealde gisa ezartzeko.** Sakatu  > **Configurar como** > **Fondo**, argazki bat pantaila nagusiaren pantaila-atzealde gisa ezartzeko.




Bideoak erreproduzitzea

Sakatu , bideoak erreproduzitzeko. Bideo bat erreproduzitzen ari dela, sakatu pantaila, kontrol-barra bistaratzeko edo ezkutatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Bideoak erreproduzitzea](#) atala.

Album berri bati argazkiak edo bideoak gehitzea


- 1 Ireki  **Galería**.
- 2 Zoaz Álbumes fitxara. Sakatu , eta idatzi albumaren izena.
- 3 Hautatu zer irudi edo bideo gehitu nahi dituzun album berrian, eta sakatu .
- 4 Kopiatu argazkiak edo bideoak album berrian edo eraman hara.


Argazkiak edo bideoak beste album batzuetara eramatea

- 1 Ireki  **Galería**.
- 2 Luze sakatu irudiaren edo bideoaren miniatura, eta hautatu lekuz aldatu nahi dituzun fitxategiak.
- 3 Sakatu , hautatu helburuko albuma edo sakatu , album berri bat sortu eta helburuko album gisa hautatzeko.

Irudiak edo bideoak ezabatzea

Gordetzeko lekurik gabe geratzen ari bazara, Galería karpetatik ezabatu nahi ez dituzun argazkiak eta bideoak.

- 1 Ireki  **Galería**.
- 2 Luze sakatu irudiaren edo bideoaren miniatura, eta hautatu ezabatu nahi dituzun fitxategiak.

3 Sakatu  > **Eliminar**, hautatutako fitxategiak ezabatzeko.

Irudiak edo bideoak partekatzea

1 Ireki  **Galería**.




2 Luze sakatu irudiaren edo bideoaren miniatura, eta hautatu partekatu nahi dituzun fitxategiak.

3 Sakatu  , hautatu nola partekatu nahi dituzun fitxategiak, eta jarraitu pantailan ageri diren jarraibideei.

Albumak kudeatzea

1 Ireki  **Galería**.


2 Zoaz Álbumes fitxara, eta luze sakatu album bat, menuan sartzeko. Hau egin dezakezu:


- **Albumen izena aldatu.** Sakatu  > **Cambiar nombre**, idatzi albumaren izen berria, eta hautatu **Aceptar**.
- **Albumak ezabatu:** Hautatu ezabatu nahi dituzun albumak, eta sakatu  > **Eliminar**.
- **Albumak partekatu:** Hautatu partekatu nahi dituzun albumak, eta sakatu  . Hautatu nola partekatu nahi dituzun albumaren fitxategiak, eta jarraitu pantailan ageri diren jarraibideei.

Irudiei oharrak gehitzea

Erabili Galería irudiei oharrak gehitzeko.

1 Ireki  **Galería**.

2 Ukitu irudi bat, pantaila osoaren moduan ikusteko. Sakatu  > **Añadir memo**.

3 Sartu oharra eta, sakatu  . Gehitu irudia irudi bidez desblokeatzeko funtzioaren azaletan, blokeatutako pantailan ager daitezen.

Irudiak editatzea

Galería aplikazioak irudiak editatzeko tresna bikainak ditu, argazkiak dinamizatzeko erabil daitezkeenak. Adibidez, grafitiak margotu daitezke, ur-markak gehitu edo hainbat iragazki aplikatu.











1 Ireki  **Galería**.


2 Ukitu irudi bat, pantaila osoaren moduan ikusteko. Sakatu , irudia editatzeko.

3 Hautatu irudiak editatzeko tresna bat. Hau egin dezakezu:



Edizio-tresnak ikusteko, lerratu hatza ezkererantz.


- **Irudiak biratu:** Sakatu , eta lerratu hatza pantailan, biratze-angelua doitzeko. Sakatu **Espejo**, argazkian ispilu-antzeko irudi bat sortzeko.
- **Irudiak moztu.** Sakatu , mozte-faktorea hautatzeko (adibidez, 16:9). Arrastatu ertz puntudunak, irudia nahi duzun neurriraino mozteko.
- **Iragazkiak gehitu** Sakatu , eta hautatu nahi duzun iragazkia.
- **Koloreak nabarmendu:** Sakatu , eta aukeratu zer kolore nabarmendu nahi dituzun.
- **Irudiak desfokuratu:** Sakatu , Arrastatu kontrol lerragarria, desfokuratze-maila doitzeko. Arrastatu zirkulua desfokuratu nahi ez duzun irudi-zatira.
- **Irudi-parametroak doitu:** Sakatu , Distira, kontrastea, asetasuna eta beste parametro batzuk doitu ditzakezu, irudia biziagoa izan dadin.
- **Aurpegiak hobetzeko efektuak aplikatu:** Sakatu , irudi bateko pertsonen aurpegiak hobetzeko efektuak aplikatzeko. Azala eta begiak hobetzeko hainbat efektu daude.
- **Pixelatu-efektua aplikatu:** Sakatu , eta hautatu nahi duzun pixelatu-efektua.
- **Grafitia marraztu.** Sakatu , pintzela eta kolorea hautatzeko.
- **Ur-marka gehitu:** Sakatu , ur-marka bat gehitzeko eta argazkia pertsonalizatzeko. Data eta ordua, kokapena, klima, ariketa mota eta beste aukera asko dituzu.

- **Etiketa gehitzea:** Sakatu  eta aukeratu erabili nahi dituzun etiketa eta letra-tipoa. Etiketak erabil ditzakezu gogo-aldarteak edo pentsamenduak erregistratzeko.


Kamera edo galeria erabiltzea QR kodeak eskaneatzeko

QR kodeak informazioa lortzeko modu bizkor eta egoki bat dira. Adibidez, QR kodeak eskaneatu ditzakezu, deskontuei buruzko informazioa ikusteko edo kontaktuak gehitzeko. Kamera erabiliz eskaneatu dezakezu QR kode bat edo galeria erabil dezakezu gailuan gordetako irudi batean dagoen QR kode bat eskaneatzeko.

Galeriatik QR kodeak eskaneatzea

- 1 Ireki  **Galería**.
- 2 Hautatu eskaneatu nahi duzun QR kodea duen irudia, pantaila osoaren moduan ikusteko.
- 3 Sakatu pantaila. Galeriak automatikoki eskaneatuko du QR kodea.
- 4 Sakatu **Ver detalles**, QR kodearen xehetasunak ikusteko.

Kamera aplikazioarekin QR kodeak eskaneatzea

- 1 Ireki  **Cámara**.
- 2 Enkoadratu QR kodea bisorean. Kamerak automatikoki eskaneatzen du QR kodea.
- 3 Sakatu **Ver detalles**, QR kodearen xehetasunak ikusteko.

Musika eta bideoak




Telefonoan abestiak sartzea

Musika entzuteko, abestiak telefonoan kopiatu behar dituzu. Telefonoan abestiak sartzeko:

- Kopiatu zure ordenagailuko abestiak, USB kable bat erabiliz.
- Deskargatu abestiak Internetetik.
- Kopiatu abestiak bluetooth bidez. Informazio gehiagorako, ikus [Fitxategiak bluetooth bidez bidaltzea eta jasotzea](#) atala.
- Kopiatu abestiak Wi-Fi Directo aukeraren bidez. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi [WiFi Directo erabiltzea fitxategiak bidaltzeko eta jasotzeko](#) atala.


Bertako musika bilatzea

Sailkatu zure musika kategoriara edo bizkor bilatu musika-fitxategiak gako-hitz batekin.

- 1 Ireki  **Música**.
- 2 Sakatu **Mi música**.
- 3 Sakatu , bertako musika bilatzeko eta ikusteko.
- 4 Abestiaren, artistaren, albumaren edo karpeteraren arabera antola daiteke musika. Abesti jakin bat bilatzeko, sakatu , eta idatzi abestiaren, artistaren edo albumaren izena bilaketa-barran.



Musika entzutea


- 1 Ireki  **Música**
- 2 Sakatu **Mi música**.
- 3 Sakatu erreproduzitu nahi duzun abestia.

Telefonia erabiltzea musika erreproduzitzen ari den bitartean

- Abesti bat erreproduzitzen ari dela, sakatu **Inicio**, musika erreproduzitzeko pantailatik irteteko abestia eten gabe. Musika erreproduzitzeko pantailara itzultzeko, ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu erreproduzitzen ari den abestia.
- Sakatu erreproduzitzen ari den abestia, erreprodukzio-pantailara itzultzeko. Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera, abesti-zerrenda, albumaren tapa eta letra ikusteko.
- Abestien letrak dituzten fitxategiak berezita deskargatu behar dira .lrc formatuan. Fitxategiaren izenak eta bideak bat etorri behar dute musika-fitxategienekin.
- **Música** pantailan, sakatu **Cerrar** musika-erreproduzitzaila ixteko.

Erreprodukzio-pantaila erabiltzea

Sakatu erreprodukzio-pantaila menuko ikonokoak bistaratzeko edo ezkutatzeko.



Erreprodukzio bat entzungailu adimendunen bidez kontrolatzea

Entzungailu adimendunen kontrola gaituta dagoenean, entzungailuen botoiak erabil daitezke erreprodukzioa kontrolatzeko pantaila aktibatu beharrik gabe.

- Entzungailu guztiak ez dira bateragarriak telefonoarekin. Gomendatzen dugu Huaweiaren entzungailu ofizialak erostea.
- Bideo-erreprodukzioa kontrolatzeko ere erabil daitezke entzungailuak (funtzio hori ez dute onartzen bideo-erreproduzitzaila guztiek).


1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Asistencia inteligente > Control de auriculares inteligente**


3 Aktibatu **Control de auriculares inteligente** hautagailua

Erabili botoi hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:


- **Bolumena igotzeko botoia:** Sakatu botoi hau behin, bolumena igotzeko, edo bi aldiz, uneko abestia gogokoetan gehitzeko.



- **Etenaldi-botoia:** Sakatu botoi hau behin, erreprodukzioa eteteko edo abiarazteko; bi aldiz, hurrengo abestira pasatzeko, edo hiru aldiz, aurreko abestira pasatzeko.



- **Bolumena jaisteko botoia:** Sakatu botoi hau behin, bolumena jaisteko, edo bi aldiz, erreprodukzio-modua aldatzeko.



Erreprodukzio-zerrendak sortzea


Antolatu musika zure abesti gogokoak dituzten erreprodukzio-zerrenda pertsonalatuak sortuz.


1 Ireki  **Música**

2 Sakatu **Listas > Nueva lista reproducción**


3 Idatzi erreprodukzio-zerrendarentzako izen bat, eta sakatu **Guardar**.

4 Sakatu **Añadir** elkarrizketa-koadroan.

5 Hautatu erantsi nahi dituzun abestiak, eta sakatu .


 Sakatu ... erreprodukzio-zerrendaren ondoan, **Cambiar nombre** eta **Eliminar** aukeretara sartzeko.

Erreproduzio-zerrendak entzutea


- 1 Ireki  **Musika**.
- 2 Sakatu **Listas**.
- 3 Hautatu nahi duzun erreproduzio-zerrenda, eta, gero, sakatu abesti bat erreproduzitzeko, edo sakatu **Reproducción aleatoria** abesti guztiak ausaz erreproduzitzeko.


Abesti bat dei-tonu gisa konfiguratzea

Konfiguratu zure gustuko abestia dei-, jakinarazpen- edo alarma-tonu gisa.

- 1 Ireki  **Musika**.
- 2 Sakatu **Mi música**.
- 3 Sakatu **...** > **Configurar como tono** abestiaren izenean ondoan. Abestia dei-, jakinarazpen- edo alarma-tonu gisa konfigura daiteke.

Bideoak erreproduzitzea

- 1 Ireki  **Videos**.
- 2 Sakatu erreproduzitu nahi duzun bideoa.
- 3 Sakatu **II**, bideo baten erreprodukzioa eteteko.



Telefonoa erabiltzea bideoa erreproduzitzen ari den bitartean

- Lerratu hatza ezkererantz edo eskuinerantz bideoa atzeratzeko edo aurreratzeko.
- Lerratu hatza gora edo behera, pantailaren ezkerreko izkinan, distira doitzeko.
- Lerratu hatza gora edo behera, pantailaren ezkerreko izkinan, bolumena doitzeko.

Interneteko sarbidea

Datu mugikorren bidez konektatzea Internetera


Baliteke karguak aplikatzea Internetera konektatzeko datu mugikorak erabiltzean.

 Datu mugikorak erabili aurretik, egiaztatu baduzula zure operadorearen datu-plan.

1 Ireki  **Ajustes**.


2 Sakatu **Más > Redes móviles**.

3 Aktibatu **Datos móviles** hautagailua datu mugikorak gaitzeko.

 Desgaitu datu mugikorak behar ez dituzunean, bateria aurrezteko eta datuen erabilera gutxitzeko.

WiFi bidez konektatzea Internetera

WiFi sarbide-puntu baten bidez edo WiFi eremu baten bidez konekta daiteke Internetera.

 Zure datu pertsonalak eta informazio finantzarioa arriskuan egon litezke seguruak ez diren WiFi sare publikoetara konektatzen bazara.

WiFi sare batera konektatzea


1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Wi-Fi** eta, ondoren, aktibatu **Wi-Fi** hautagailua. Telefonoak eskura dauden WiFi-sareen zerrenda bistaratuko du.

- **WiFi sareak eskuz bilatzea:** Sakatu **Buscar**. Erabilgarri dauden WiFi sareak bilatuko ditu berriro telefonoak.
- **Zerrendan ez dagoen WiFi sare bat gehitzea:** Sakatu **Añadir red...** Pantailan agertzen diren argibideei jarraitu, WiFi funtzioa eta pasahitza konfiguratzeko.

3 Hautatu zein WiFi saretara konektatu nahi duzun.

- WiFi sareak pasahitzik ez badu behar, automatikoki konektatuko da telefonoa.
- WiFi sareak pasahitzik ez badu behar, automatikoki konektatuko da tableta.
- Sarea babestuta baldin badago, idatzi pasahitza, hala eskatzen zaizunean, eta, gero, sakatu **Establecer conexión**.

Telefonoa WiFi sare batera konektatuta dagoenean,  ikonoa bistaratuko da egoera-barran. Telefonoak gogoan izango ditu lehenago erabilitako WiFi sareak, eta automatikoki konektatuko da haietara.

WPS funtzioaren bidez konektatzea WiFi sare batera


Konektatu telefonoa WPS funtzioa gaitua duen bideratzaile batera sare-gakoa sartu gabe.

1 Ireki  **Doikuntzak**

2 Sakatu **Wi-Fi** eta, ondoren, aktibatu **Wi-Fi** hautagailua.


3 Sakatu  > **Ajustes avanzados** eta, gero, hautatu metodo hauetako bat:

- Sakatu **Conexión WPS** eta, gero, sakatu WiFi bideratzaileko WPS botoia.
- Sakatu **Conexión WPS por PIN** PIN bat sortzeko, eta, gero, sartu PIN hori WiFi bideratzailean.

Telefonoa WiFi sare batera konektatuta dagoenean,  ikonoa bistaratuko da egoera-barran. Telefonoak go-goan izango ditu lehenago erabilitako WiFi sareak, eta automatikoki konektatuko da haietara.

Seinale-intentsitate handiena duen WiFi sarera konektatzea

WiFi+ funtzioa gaituta dagoenean, telefonoak automatikoki gaituko edo desgaituko du WiFi funtzioa eta seinalerik onena duen WiFi sarera konektatuko da.

-  Baliteke kargu gehigarriak sortzea datu mugikorren bidez linean bideoak ikustean edo fitxategi astunak deskargatzean. Kontratatu datu-plan egoki bat, datuak erabiltzeagatik gehiegizko gastuak ez sortzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan operadorearekin.

1 Ireki  **Ajustes** eta sakatu **Más**.

2 Sakatu **Wi-Fi+** > **Ajustes de Wi-Fi+** eta, ondoren, aktibatu **Wi-Fi+** hautagailua.

Wi-Fi+ funtzioa gaituta dagoenean, telefonoak automatikoki erregistratzen du WiFi konexioen historia, eta seinalearen intentsitatea eta erabiltzailearen kokapena monitorizatzen ditu. Informazio hori gero erabiltzen da, WiFi funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko eta seinale-intentsitaterik handiena duen WiFi sarera konektatzeko.

- **Seinalerik onena duen sare batera konektatzea.** WiFi seinalearen intentsitatea ahula denean edo uneko WiFi sarea ez dagoenean erabilgarri, telefonoa automatikoki konektatzen da seinale hobea duen beste WiFi sare erabilgarri batera. Beste WiFi sarerik ez badago erabilgarri eta datu mugikorrek gaituta badaude, datu mugikorrek erabiltzen ditu telefonoak (baliteke karguak aplikatzea datuak erabiltzeagatik). WiFi seinalearen intentsitatea hobetu egiten bada, telefonoa WiFi sarera konektatzen da berriro.
- **WiFi funtzioa automatikoki aktibatzea edo desaktibatzea.** Telefonoak automatikoki desgaitzen du WiFi funtzioa erabiltzailea WiFi eremutik ateratzen bada (adibidez, etxetik ateratzen bada). WiFi funtzioa berriro gaitzen da lehen erabilitako WiFi eremura itzultzen bada erabiltzailea (etxera itzultzen bada, adibidez).

- **WiFi sarearen kalitatea monitorizatzea:** Telefonoak automatikoki monitorizatzen du gertuko WiFi eremu publikoetako seinalearen intentsitatea.

Internet mugikorra beste gailu batzuekin partekatzea

Telefonoko Internet mugikorraren zerbitzua beste gailu batzuekin parteka daiteke, hala nola telefonoekin, tabletekin eta ordenagailuekin. Modu hauek erabil daitezke Internet partekatzeko:

- **WiFi-eremu eramangarria:** WiFi eremu eramangarri bat sortzeko aukera ematen du, Internet mugikorra beste gailu batzuekin partekatzeko.
- **Bluetooth bidezko ainguraketa:** Internet mugikorra beste gailu batzuekin Bluetooth bidez partekatzeko aukera ematen du.
- **USB bidezko ainguraketa:** USB kable bat erabil dateke Internet mugikorra ordenagailu batekin partekatzeko.

WiFi eremu eramangarri bat erabiltzea Internet mugikorreko konexioa partekatzeko

Konfiguratu WiFi eremu eramangarri bat, telefonoko Internet mugikorra beste gailu batzuekin partekatzeko. Bluetooth bidez sarera ainguratzearekin alderatuta, WiFi eremu eramangarriak konexio bizkorragoak eta irismen handiagoak eskaintzen ditu, baina energia gehiago kontsumitzen du.

- Gailua ezin da WiFi bidez Internetera sartu **Zona Wi-Fi portátil** aukera aktibatua dagoela.
- Datu mugikorrek gaitzeko, ikusi [Datu mugikorren bidez konektatzea Internetera](#) atala.



1 Ireki  **Doikuntzak**

2 Sakatu **Más > Anclaje y zona Wi-Fi**


3 Sakatu **Zona Wi-Fi portátil**, eta aktibatu WiFi eremuaren hautagailua.

WiFi eremu eramangarri pertsonala gaitutakoan, telefonoak  ikonoa bistaratuko du egoera-barran.

4 Sakatu **Configurar zona Wi-Fi** WiFi eremuaren izena, segurtasun-doikuntzak eta pasahitza ikusteko edo aldatzeko, eta sakatu **Guardar**.

- **WiFi eremuaren izena aldatzea. SSID de red** WiFi eremuaren izena da. Lehenespenez, telefonoaren modeloaren izena da. Izena eskuz alda dezakezu eta gogoratzeko errazagoa den beste bat jarri.
- **WiFi eremuaren segurtasun-doikuntzak aldatzea.** Sakatu **Tipo de cifrado**, WiFi eremuaren segurtasuna konfiguratzeko. **WPA2 PSK** zifratzea erabiltzen du telefonoak, lehenespenez. Beste gailu batzuek pasahitz bat beharko dute WiFi eremura konektatzeko. **Ninguna** hautatzen baduzu, gailuek ez dute pasahitzik beharko WiFi eremura konektatzeko.
- **Gogoratzeko erraza den pasahitz bat konfiguratzeko.** WiFi eremurako pasahitz bat ausaz sortuko du telefonoak. Segurtasun-arrazoiak direla eta, hautatu asmatzeko zaila den pasahitz bat, eta maiz aldatu.
- **Gehienezko konexio-kopurua konfiguratzeko:** Sakatu **Máximo de conexiones**, eta aldatu gehienezko konexio-kopurua. Lehenespenez, WiFi eremura aldi berean zortzi gailu konektatzen utziko du telefonoak.


WiFi eremura beste gailu batzuk erabiliz konektatzeko, gogoan izan behar dituzu WiFi eremuaren izena eta pasahitza.


 **Beste gailu batzuek erabil dezaketen datu-kantitatea mugatzea:** Sakatu **Límite de datos Zona Wi-Fi portátil** pantailan, eta jarraitu pantailako jarraibideei datu-muga ezartzeko. Konektatutako gailuek muga hori gainditzen dutenean, telefonoak automatikoki desgaituko du WiFi eremua.

Beste gailu batzuek erabil dezaketen datu-kantitatea mugatzea: Sakatu **Límite de datos Zona Wi-Fi portátil** pantailan, eta jarraitu pantailako jarraibideei datu-muga ezartzeko. Konektatutako gailuek muga hori gainditzen dutenean, tabletak automatikoki desgaituko du WiFi eremua.

USB bidez sarera ainguratzeko funtzioa ordenagailu batekin erabiltzea

Erabili USB kable bat, telefonoko Internet mugikorraren konexioa ordenagailu batekin partekatzeko. Funtzio hori oso erabilgarria da ordenagailuko Interneten konexioa ez dabilenean.

-  **Anclaje vía USB** erabil daiteke WiFi konexioa eta Internet mugikorrarena partekatzeko. Datu mugikorrek gaitzeko, ikusi [Datu mugikorren bidez konektatzea Internetera](#) atala.
- Sarera USB bidez ainguratzearen funtzioa erabiltzeko litekeena da telefonoaren kontrolagailuak ordenagailuan instalatu behar izatea edo sare-konexio bat ezarri behar izatea, ordenagailuaren sistema eragilearen arabera. Irakurri sistema eragilearen jarraibideak.





1 Erabili USB kablea telefonoa ordenagailuari konektatzeko.

2 Ireki  **Doikuntzak**

3 Sakatu **Más > Anclaje y zona Wi-Fi**


4 Aktibatu **Anclaje vía USB** hautagailua, Internet mugikorra partekatzeko.


Behin USB bidez sarera ainguratzea gaituta, telefonoak  egoera-ikonoa bistaratuko du. Orain ordenagailua erabil dezakezu Internetera sartzeko.

 Telefonoa USB bidez sarera ainguratzeko funtzioa erabiltzen ari denean ezingo da erabili biltegitatze masiboaren funtzioa.

Sarera Bluetooth bidez ainguratzearen funtzioa erabiltzea Internet mugikorra partekatzeko

Erabili sarera Bluetooth bidez ainguratzearen funtzioa zure telefonoa haririk gabeko bideratzaile bihurtu eta Internet mugikorra beste gailu batzuekin partekatzeko. WiFi eremu eramangarri batekin alderatuta, Bluetooth bidez sarera ainguratzeak konexio motelagoa eskaintzen du, baina energia gutxiago kontsumitzen du.

 **Anclaje por Bluetooth** erabil daiteke WiFi konexioa eta Internet mugikorrarena partekatzeko. Datu mugikorrek gaitzeko, ikusi [Datu mugikorren bidez konektatzea Internetera](#) atala.




1 Ezarri Bluetooth konexioa bi gailuren artean eta egiaztatu lotuta daudela. Informazio gehiago lortzeko, ikusi [Bluetooth gaitzea eta telefonoa beste gailu batzuekin lotzea](#) atala.


2 Ireki  **Ajustes**

3 Sakatu **Más > Anclaje y zona Wi-Fi**

4 Aktibatu **Anclaje por Bluetooth** hautagailua, Internet mugikorra partekatzeko.

5 **Bluetooth** pantailan, sakatu ⓘ lotutako gailuaren izenaren ondoan, eta aktibatu **Acceso a Internet** hautagailua Interneteko konexioa ezartzeko.

 Bidali Internetera konektatzeko eskaera konektatu nahi duzun gailutik zure telefonora.

Behin sarera Bluetooth bidez ainguratzearen funtzioa gaituta,  ikonoa bistaratuko da telefonoaren egoerabarran. Beste gailu batzuk konektatu ahalko dira, eta Internet mugikorra erabili.

Datuak Bluetooth bidez transferitzea

Bluetooth gaitzea eta telefonoa beste gailu batzuekin lotzea

1 Ireki  **Ajustes** eta sakatu **Bluetooth**

2 Aktibatu **Activar Bluetooth** hautagailua, eta ziurtatu **Visibilidad** gaituta dagoela. Telefonoak eskuragarri dauden gailu guztiak erakutsiko ditu automatikoki. Lotu nahi duzun gailua ez bada ageri pantailan, egiaztatu gailua hauteman daitekeela.

3 Hautatu lotu nahi duzun gailua, eta jarraitu pantailako argibideei.

Fitxategiak Bluetooth bidez bidaltzea eta jasotzea

Egiaztatu bi gailuak lotuta daudela fitxategiak transferitzen saiatu aurretik.

- **Fitxategiak bidaltzea:** Luze sakatu bidali nahi duzun fitxategia, eta sakatu **Compartir > Bluetooth**. Gailuak automatikoki bilatuko ditu hurbil dauden gailuak. Hautatu gailu hartzailea.
- **Fitxategiak jasotzea:** Gailu bat fitxategiak Bluetooth bidez bidaltzen saiatzen hasten denean, hautatu **Aceptar** pantailan agertzen den elkarrizketa-koadroan. Ireki jakinarazpen-panela, fitxategien transferentzia-prozesua ikusteko.

Lehenespenez, jasotako fitxategiak **bluetooth** karpetan gordetzen dira, gailuaren barne-memorian.

Bluetooth gailuak askatzea

1 Ireki  **Ajustes** eta sakatu **Bluetooth**

2 Aktibatu **Activar Bluetooth** hautagailua.

3 Sakatu lotutako gailuaren izenaren ondoan ageri den ⓘ ikonoa, eta, gero, sakatu **Desenlazar**.

Telefonoaren izena aldatzea


Lehenespenez, telefonoaren modelo-zenbakia gailu-izen gisa erabiltzen da Bluetooth funtzioa aktibatzen denean. Izena alda daiteke, eta ezagutzeko errazagoa den beste izen bat jarri.

1 Ireki  **Ajustes**, eta sakatu **Bluetooth > Nombre del dispositivo**

2 Aldatu telefonoaren izena, eta sakatu **Aceptar**.

Fitxategiak Wi-Fi Directo bidez transferitzea

Erabili Wi-Fi Directo, bi gailuen artean argazkiak eta fitxategiak transferitzeko WiFi sare batera konektatu gabe. Wi-Fi Directo bluetootharen antzekoa da, baina bizkorragoa, eta, horregatik, egokia da fitxategi astunak transferitzeko, hala nola bideoak.

 Wi-Fi Directo erabil daiteke soilik bi Huawei gailuren arean datuak transferitzeko. Egiaztatu bi gailuek onartzen dutela Wi-Fi Directo.



Bi gailu konektatzea WiFi Directo erabiliz

Konektatu Wi-Fi Directoren bidez bi gailuren artean haririk gabe datuak transferitzeko.

1 Ireki  **Ajustes**, hautatu **Wi-Fi** eta, ondoren, aktibatu **Wi-Fi** hautagailua. Sakatu  **Wi-Fi Directo**


2 Errepikatu pauso horiek beste gailuan, eta bietan eduki zabalik Wi-Fi Directo bilatzeko pantaila.

3 Telefonoak beste gailua detektatzen duenean, hautatu hura. Bete pantailan azaltzen diren jarraibideak bi gailuen artean Wi-Fi Directo bidezko konexioa ezartzeko.

Wi-Fi Directo bidezko konexioa amaitzeko, hautatu  **Wi-Fi Directo** pantaila ireki dadin. Hautatu zer gailu deskonektatu nahi duzun, eta sakatu **Aceptar** hura deskonektatzeko

Wi-Fi Directo erabiltzea artxiiboak bidaltzeko eta jasotzeko

Partekatu artxiiboak bi gailuren artean, Wi-Fi Directo bidezko konexio baten bidez.

 WiFi konexioa behar du funtzio horrek. Ziurtatu WiFi funtzioa gaituta dagoela bi gailuetan.

1 Ireki  **Galería** eta hautatu bidali nahi duzun irudia.

2 Sakatu **Compartir** > **Wi-Fi Directo**. Itxaron jasotzeko gailua detektatu arte; ondoren, hautatu.

Ez bada detektatzen jasotzeko gailua, begiratu gaituta dagoen WiFi funtzioa.


3 Abisu bat agertuko da jasotzeko gailuan. Sakatu **Aceptar** artxiboa transferitzeko eskaria onartzeko.

Ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu **Notificaciones** fitxategiaren transferentzia-prozesua monitorizatzeko.

Lehenespenez, jasotako fitxategiak telefonoaren barne-memoriako **Wi-Fi Direct** karpetan gordetzen dira.

Telefono baten eta USB biltegitze-gailu baten artean datuak transferitzea

USB OTG kable baten bidez, zuzenean konekta daiteke telefonoa USB biltegitze-gailu batera artxiboak transferitzeko. Bateragarri diren USB biltegitze-gailuen artean daude USB flash unitateak, txartel-irakurgailuak eta microSD txarteldun telefonoak.


-  • USB OTG kableak onartzen dituzte telefonoei bakarrik aplikatzen zaie funtzio hori.
- USB-C ataka bat du telefonoak. Eskuratu micro-USB-tik USB-C-rako egokigailu bat, Huawei onartua, edo erabili OTG kable bat USB-C konektore batekin.

Telefono baten eta microSD txartel baten artean datuak transferitzea


Erabili USB OTG kable bat beste telefono microSD txartelaren datuak eskuratzeko, ordenagailurik erabili gabe.

 Ziurtatu konektatu nahi duzun telefonoak sartuta daukala microSD txartel bat.

1 Konektatu beste telefonoa OTG USB kable batekin eta USB datu-kable batekin.



2 Beste telefonoan, konfiguratu USB konexio-modua USB flash unitate gisara.

3 Sakatu  > **Local** > **Unidad USB Linux** microSD txartelean datuak bilatzeko. Datuak hautatu eta helburuko karpeta batean kopia daitezke. Informazio gehiago jasotzeko, kontsultatu [Fitxategiak kopiatzea](#), [lekuz aldatzea](#) edo [ezabatzea](#) atala.


4 Bilaketa amaitzean, sakatu **Ajustes** > **Ajustes avanzados** > **Memoria y almacenamiento** > **Unidad USB Linux** > **Expulsar**


5 Deskonektatu bi telefonoetako USB OTG kablea eta USB datu-kablea.

Telefono baten eta USB biltegitratze-gailu baten artean datuak transferitzea

Konektatu USB OTG kable bat telefonora datu hauek eskuratzeko: USB flash unitateetan, txartel-irakurgailuetan eta gainerako biltegitratze-gailuetan gordeta daudenak.

1 Konektatu telefonoa USB flash unitate batera USB OTG kable baten bidez.




- 2 Sakatu  > **Local** > **Unidad USB Linux** flash unitatean datuak bilatzeko. Datuak hautatu eta helburuko karpeta batean kopia daitezke. Informazio gehiago jasotzeko, kontsultatu Fitxategiak kopiatzea, lekuz aldatzea edo ezabatzea atala.
- 3 Bilaketa amaitzean, sakatu **Ajustes** > **Ajustes avanzados** > **Memoria y almacenamiento** > **Unidad USB Linux** > **Expulsar**
- 4 Deskonektatu telefonoaren eta USB flash unitatearen USB OTG kablea.

Multimedia-edukia sekuentziaka transmititzea telebistan

Erabili **Pantallas múltiples** lagunekin eta senideekin multimedia-edukia partekatzeko. Pantallas múltiples funtzioak aukera ematen du haririk gabe konektatzeko telebista edo pantaila batera, bai eta argazkiak, bideoak eta jokoak eskuratzeko ere.

Telebistak ez badu onartzen **Pantallas múltiples** funtzioa, etenik gabe heda daiteke telefonoaren edukia Android TV box bat erabiliz, edo Miracast onartzen duten beste gailu batzuk. HDMI ataka bat izan behar du telebistak.

- 1  **Ajustes**en, sakatu **Ajustes avanzados** > **Pantallas múltiples** **Pantallas múltiples** funtzioa gaitzeko.
- 2 Egiatzatu **Pantallas múltiples** funtzioa gaituta dagoela HDMI gailuan.


 Informazio gehiago izateko, kontsultatu TV box-en jarduteko jarraibideak.

NFC eta ordainketak

Erabili NFC bi telefonoren artean datuak azkar partekatzeko. NFC bidezko ordainketak onartzen baditu operadoreak, NFC funtzioa ordainketak egiteko gaituta daukan SIM txartel bat erabil dezakezu. Informazio gehiago behar baduzu, jarri harremanetan operadorearekin.

 NFC funtzioa gaituta daukaten telefonoetan bakarrik dago erabilgarri funtzio hori.

NFCren gaitzea

- 1 Ireki  **Ajustes**.
- 2 Sakatu **Más** > **NFC**.
- 3 Aktibatu **NFC** hautagailua NFC gaitzeko.
- 4 Aktibatu **Huawei Beam** hautagailua Huawei Beam gaitzeko.


NFC erabiltzea webguneak edo kontaktuak partekatzeko

NFC erabil daiteke bi telefonoren artean datuak azkar partekatzeko. Argazkiak, bideoak eta webguneak partekatzeko, ipini bi telefonoak elkarren ondoan.



Egiaztatu bi telefonoen pantailak desblokeatuta daudela eta NFC funtzioa gaituta dagoela. Behar izanez gero, gaitu Android Beam beste telefonoan.

- 1** Hautatu partekatu nahi duzun webgunea edo kontaktua.
- 2** Elkarren ondoan direla eutsi telefono mugikorrari eta jasotzeko gailuari. Atzeko kameraren ondoan dago telefonoaren NFC sentsorea. Konexioa ezarri ondoren, soinu bat entzungo da, eta partekatzen ari den edukia pantailan bistaratuko da, murriztuta.



- 3** Bete pantailan agertzen diren jarraibideak, eta sakatu pantaila beste gailuarekin datuak partekatzeko.

NFC bidezko ordainketak

Erabili NFC funtzioa aktibatuta daukaten SIM txartelak ordainketak egiteko. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan operadorearekin.


Egiaztatu NFC funtzioa gaituta daukan SIM txartel bat ari zarela erabiltzen; ondoren, instalatu operadorearen ordainpeko aplikazioa.


Aurrez ezarritako ordainketa-aplikazioa konfiguratzean, sakatu **Más > NFC > Aplicación de pago predeterminada** doikuntza-pantailan; ondoren, hautatu operadoreak onartzen duen ordainketa-aplikazio bat. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan operadorearekin.

Segurtasun-kopiak egitea eta leheneratzea

Segurtasun-kopiak egiteko eta datuak leheneratzeko Segurtasun-kopia aplikazioa erabiltzea

Datuak inoiz ez direla galduko bermatzen dute segurtasun-kopiek. Segurtasun-kopia lokal bat erabil dezakezu telefonoaren barne-memorian edo microSD txartelean datuak kopiatzeko.

 Funtzioak desberdinak izan daitezke operadorearen arabera.



Memoria lokaleko datuen segurtasun-kopia

Datu hauen segurtasun-kopia egin dezakezu: kontaktuak, mezuak, dei-erregistroa, argazkiak, bideoak, fitxategiak eta aplikazioak.

1 Ireki  **Segurtasun-kopia**


2 Sakatu **Copia seguridad** > **Memoria interna** > **Siguiente**


3 Hautatu segurtasun-kopiak egiteko datuak. Kopia egiteko ez da pasahitzik behar, argazkiek, audioen, bideoen eta dokumentuen segurtasun-kopiak egiteko. Beste datu-mota batzuen segurtasun-kopiak egiteko, segi pantailan agertzen diren jarraibideei, kopiarako pasahitz bat konfiguratzeko.

4 Sakatu **Copia seguridad**.

 Lehenespenez, segurtasun-kopiako datuak **HuaweiBackup** karpetan gordetzen dira, **Archivos** atalean.

Memoria lokaleko datuak berrezartzea


- 1 Ireki  **Segurtasun-kopia**
- 2 Sakatu **Restaurar > Restaurar desde tarjeta SD > Siguiente**
- 3 Hautatu berrezarri nahi duzun segurtasun-kopia.

 Segurtasun-kopiako datuak zifratuta baldin badaude, sartu zifratzearen pasahitza, hala eskatzen duenean.


- 4 Hautatu berrezarri nahi dituzun datuak, eta sakatu **Iniciar restauración**.


Fabrikako doikuntzak berrezartzea

Telefonoak huts egiten badu edo motel badabil, berrezarri haren fabrikako doikuntzak.

 Fabrikako doikuntzak berrezarri aurretik, egin telefonoan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi [Segurtasun-kopia aplikazioa segurtasun-kopiak egiteko eta datuak leheneratzeko erabiltzea](#) atala.

Fabrikako doikuntzak berrezartzen badituzu, ezabatu egingo dituzu telefonoko datu pertsonal guztiak, hauek barne: hatz-markak, kontuko informazioa, deskargatutako aplikazioak eta aplikazio-doikuntza.


- 1 Ireki  **Ajustes**.
- 2 Sakatu **Ajustes avanzados > Copia de seguridad / restablecer > Restablecer datos de fábrica**
- 3 Hautatu barne-memoria formateatu nahi duzun; ondoren, sakatu **Restablecer**.

 **Borrar memoria interna** hautatzen baduzu, ezabatu egingo dira barne-memoriako artxibo guztiak; besteak beste, musika eta argazkiak. Kontuz ezabatu, beraz.

- 4 Sakatu **Restablecer** telefonoaren fabrikako doikuntzak berrezartzeko. Automatikoki berrabiaraziko da telefonoa prozesua amaitzean.

Telefonoa eguneratzea

Deskargatu telefonoaren sistemako azken eguneratzea errendimendua hobetzeko.


 • Telefonoa eguneratzeko hirugarren batzuen software baimendu gabea erabiltzeak telefonoaren funtzionamendua eragotz dezake, bai eta informazio pertsonala arriskuan jarri ere. Eguneratzeko, online egiteko funtzioa erabili beti, edo, bestela, Huaweiaren webgune ofizialetik deskargatu eguneraketa-paketeak.

- Sistema eguneratzean, baliteke datu pertsonalak ezabatzea. Telefonoa eguneratu aurretik, egin datu garantzitsuen segurtasun-kopia bat.
- Eguneratzeari ekin aurretik, egiaztatu bateriaren karga-maila % 20an dagoela, gutxienez.
- Eguneratu ondoren, gerta liteke sistemarekin bateragarriak ez diren hirugarren batzuen aplikazioak aurkitzea; adibidez, jokoak eta onlineko banku-aplikazioak. Honegatik gertatzen da hori: Androiden bertsio berriak merkaturatzeko denbora dezente behar izaten dutelako hirugarren batzuen aplikazio-garatzailerek. Itxaron aplikazioaren bertsio berri bat atera arte.

 Sakatu **Ajustes** > **Acerca del teléfono** > **Número de compilación** telefonoaren bertsio-zenbakia ikusteko.

OTA eguneratzeak

Sistemaren eguneratze berri bat eskuragarri badago, azken bertsioa deskargatu eta instalatu behar da. Hautatu OTA eguneratzeak aukera eguneratzeak azkar eta seguru deskargatzeko.

 Ziurtatu telefonoa Internetera konektatuta dagoela eguneratu aurretik. Konektatu WiFi sare batera eguneraketa egin aurretik, datuak erabiltzeagatik kargurik ez jasotzeko. Begiratu, bestalde, nahikoa karga baduen bateriak.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Actualizar software**. Telefonoak eskuragarri dauden eguneraketak bilatuko ditu, automatikoki.

3 Hautatu azken bertsioa eguneraketa-paketea deskargatzeko.

4 Deskarga egindakoa, sakatu **Reiniciar y actualizar**. Segundo batzuk behar izaten dira eguneratze-prozesua osatzeko. Ez erabili telefonoa eguneraketa amaitu aurretik. Automatikoki berrabiatuko da telefonoa eguneraketa amaitutakoan.

Fitxategiak kudeatzea



Fitxategiak bistaratzea

Fitxategiak kategoriaka bistaratzea

Ireki **Categorías** en **Archivos** fitxa. Hainbat kategoriatan sailkatzen dira fitxategiak, automatikoki.



Fitxategi-bilaketa lasterra

Erabili bilaketaren funtzioa bizkor aurkitzeko behar duzun hori.

- 1** Ireki  **Archivos**
- 2** **Local** fitxan, sakatu **Memoria interna** edo **Tarjeta SD**.
- 3** Sakatu  eta, ondoren, sartu artxiboaren izena edo gako-hitzak. Bilaketaren emaitzak bilaketa-barraren azpian bistaratuko dira.



Fitxategiak sailkatzea

Erabili sailkatzeko funtzioa fitxategiak motaren, izenaren, tamainaren edo dataren arabera ordenatzeko.

- 1** Ireki  **Archivos**
- 2** **Local** fitxan, sakatu **Memoria interna** edo **Tarjeta SD**.
- 3** Sakatu  eta, ondoren, sailkatu fitxategiak motaren, izenaren, tamainaren edo dataren arabera (zeuk aukeratu nola).



Pantaila nagusian fitxategietarako zuzeneko sarbideak sortzea

Sortu zuzeneko sarbide bat maizen erabiltzen dituzun fitxategien pantaila nagusian, haiek aise eskuratzeko.

- 1** Ireki  **Archivos**
- 2** **Local** fitxan, sakatu **Memoria interna** edo **Tarjeta SD**.
- 3** Sakatuta eduki zuzeneko sarbidea egin nahi diozun fitxategia; ondoren, sakatu  > **Mahaigainean zuzeneko sarbidea sortzea**



Fitxategien erabilera partekatua

Erabili **Archivos** sare sozialetan edo lagunen artean argazkiak edo bideoak partekatzeko.

- 1 Ireki  **Archivos**
- 2 **Local** fitxan, sakatu **Memoria interna** edo **Tarjeta SD**.
- 3 Hautatu partekatu nahi dituzun fitxategiak, eta, ondoren, sakatu  > **Compartir**.
- 4 Hautatu fitxategiak partekatzeko nahi duzun modua, eta segi pantailan agertzen diren jarraibideei.



Karpetak sortzea

Karpetak sortu eta fitxategiak haietan jar daitezke, telefonoa ondo antolatuta egon dadin.




- 1 Ireki  **Archivos**
- 2 **Local** fitxan, sakatu **Memoria interna** edo **Tarjeta SD**.
- 3 Sakatu , sartu karpeta berriaren izena eta, ondoren, sakatu **Guardar**.




Fitxategien izenak aldatzea

Aldatu zure fitxategien izena eta, haiek azkarrago aurkitzeko, ipini izen bereizgarri bat.

- 1 Ireki  **Archivos**
- 2 **Local** fitxan, sakatu **Memoria interna** edo **Tarjeta SD**.
- 3 Sakatuta eduki izena aldatu nahi diozun fitxategia edo karpeta, eta sakatu  > **Cambiar nombre**
- 4 Idatzi izen berri bat; ondoren, sakatu **Aceptar**.



Fitxategiak kopiatzea, lekuz aldatzea edo ezabatzea



- 1 Ireki  **Archivos**
- 2 **Local** fitxan, sakatu **Memoria interna** edo **Tarjeta SD**.
- 3 Hautatu kopiatu, lekuz aldatu edo ezabatu nahi dituzun fitxategiak. Hau egin dezakezu:
 - **Helburuko karpeta batera kopiatu fitxategiak:** Sakatu , hautatu helburuko karpeta bat eta, ondoren, sakatu .

- **Fitxategiak helburuko karpeta batera aldatzea:** Sakatu  , hautatu helburuko karpeta bat eta, ondoren, sakatu  .
- **Eliminar archivos:** Sakatu  > **Eliminar**

Fitxategiak sortzea edo erauztea

Konbinatu zenbait fitxategi **zip** fitxategi bakar batean lekua libratzeko eta fitxategiak hobeto partekatzeko.

- 1 Ireki  **Archivos**
- 2 **Local** fitxan, sakatu **Memoria interna** edo **Tarjeta SD**.
- 3 Hautatu fitxategira gehitu nahi dituzun fitxategiak, eta, ondoren, sakatu  > **Comprimir**
- 4 Hautatu fitxategiaren helburuko bidea. Hautatutako fitxategiak **zip** fitxategi batean konprimatuko dira. Automatikoki hornituko da fitxategi horren izena.

 Fitxategi bat erauzteko, sakatuta eduki zip fitxategia; ondoren, sakatu  > **Extraer en**. Aukeratu fitxategia erauzteko bidea.


Irudi txikiak kentzea




Irudiak ikusten ari zarela, gerta liteke **Archivos** aplikazioak cache memorian gordetako irudiak eta bisitatutako webguneen miniaturak ere erakustea. Kendu irudi txiki horiek gainerakoak argiago ikusteko.

- 1 Ireki  **Archivos**.
- 2 Sakatu  > **Ajustes** eta, ondoren, aktibatu **Filtrar imágenes pequeñas** hautagailua 30 KB-tik beherako fitxategirik ager ez dadin.

Segurtasunean fitxategi pribatuak gordetzea

Zure fitxategien pribatutasuna bermatzeko, gaitu Segurtasuna, konfiguratu pasahitz bat eta aldatu fitxategiak kategoria horretara, han zifratzeko. Segurtasunean dauden fitxategiak geroago ezaba daitezke.

- 1 Ireki  **Archivos**.
- 2 **Categorías** edo **Local** fitxan, sakatu **Seguridad**.
- 3 Sakatu **Habilitar** eta erabaki non kokatu behar duzun Segurtasunaren biltegia.

- 4** Segi pantailako jarraibideei pasahitz bat eta segurtasun-galdera bat konfiguratzeko sartzeko, eta sakatu **Listo** Segurtasuna irekitzeko.
- 5** Sakatu . Segi pantailako jarraibideei fitxategiak hautatzeko; ondoren, sakatu  haiek Segurtasunera gehitzeko.
- **Segurtasuna aplikaziotik fitxategiak kentzea:** Segurtasuna aplikazioan, ireki ezabatu nahi dituzun fitxategien karpeta. Sakatuta eduki edozein fitxategi, hautatu lekuz aldatu nahi dituzun fitxategiak eta, ondoren, sakatu .
 - **Segurtasuna aplikazioa suntsitzea:** Segurtasuna aplikazioan, sakatu **Ajustes > Destruir Seguridad**. Bete pantailan agertzen diren jarraibideak Segurtasuna aplikazioko fitxategiak eta kategoria hori ezabatze-ko.
 - **Segurtasuna aplikazioaren pasahitza aldatzea** Segurtasuna aplikazioan, sakatu **Ajustes > Modificar contraseña**. Pantailan agertzen diren argibideei jarraitu behar diezu pasahitza aldatzeko.

Partekatutako fitxategiak ordenagailuan ikusteko telefonoa erabiltzea

Erabili alboko sarearen funtzioa Fitxategiak aplikazioan, zure ordenagailuan gordetako fitxategiak ikusteko.



 Egiaztatu ordenagailuak onartzen duela alboko sareen funtzioa.

1 Konektatu ordenagailua eta telefonoa WiFi sare berera. Telefonoa WiFi sare batera konektatzeko moduz informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [WiFi sare batera konektatzea](#) atala.

2 Ordenagailuan, gaitu telefono bidez eskuratu nahi dituzun fitxategien erabilera partekatua. Ordenagailuko fitxategien erabilera partekatuari buruz informazio gehiago jasotzeko, begiratu sistema eragilearen jarraibideak.


3 Telefonoan, ireki  **Archivos**.

4 **Local** fitxategian, sakatu **Redes vecinas** sare lokalaren gailuak bistaratzeko.

 Ez bada inongo gailurik ageri, sakatu  eguneratzeko. Hala ere ez baduzu batere gailurik ikusten, itzuli 1. urratsera eta begiratu WiFi sare berera konektatuta dauden ordenagailua eta telefonoa.

5 Hautatu konektatu nahi duzun ordenagailua, eta sartu erabiltzaile-izena eta saioa hasteko pasahitza. Saioa hasi ondoren, telefonoa erabil daiteke ordenagailuarekin partekatzen diren fitxategiak ikusteko.

Deskonektatzeko, itzuli alboko sareen zerrendara eta sakatuta eduki konektatuta daukazun ordenagailua.

-  Fitxategi-kudeaketa Honetarako ere erabil daiteke alboko sareen funtzioa: telebistaren edo bideratzailearen fitxategi partekatuak eskuratzeko, baldin eta bi gailu horiek funtzio hori onartzen badute.

Energia kudeatzea

Bateriaren kontsumo-estatistikak kontsultatzea

Erabili telefonoaren administratzailea aplikazio bakoitzeko bateriaren kontsumo-estatistika xehatuak ikusteko.


Ireki  **Admin. del tel.** eta sakatu **restante**. Hau egin dezakezu:



- Sakatu **Optimizar**. Energia-kontsumoko arazoak bilatuko ditu telefonoak, eta automatikoki optimizatuko du errendimendua.
- Sakatu **Detalles del consumo de energía** bateriaren kontsumoari buruzko estatistika xehatuak ikusteko.
- Sakatu **Nivel de consumo** energia gehien zer aplikaziok kontsumitzen duen ikusteko.
- Aktibatu **Porcentaje de batería restante** hautagailua gainerako bateria-portzentajea ager dadin egoerabarran.


Energia-kontsumoa murriztea

Erabili telefono-administratzailea errendimendua optimizatzeko eta energia-kontsumoa murrizteko.

Ireki  **Admin. del tel.** eta sakatu **restante**. Hau egin dezakezu:

- **Errendimendua optimizatu**: Sakatu **Optimizar**. Energia-kontsumoko arazoak bilatuko ditu telefonoak, eta automatikoki optimizatuko du errendimendua. Energia-kontsumoa are gehiago murrizteko, kontsultatu **Problemas optimizables** atala. Hautatu **Abrir** edo **Optimiz** energia-doikuntza eskuz ezartzeko.
- **Aplikazioak murriztu**: Sakatu **Aplicaciones protegidas** eta desaktibatu pantaila blokeatuta dela atzealdeko planoan exekutatzetik nahi ez duzun aplikazioen ondoan dagoen hautagailua.
- **Asko kontsumitzen duten aplikazioak itxi**: Sakatu **Filtro de consumo (apps de alto consumo)**, hautatu nahi dituzun aplikazioak eta, ondoren, sakatu  haiek itxeko.

 Atzealdeko planoan exekutatzean asko kontsumitzen duten aplikazioak baldin badaude, mezu bat azalduko da jakinarazpen panelean. Ez baduzu horrelako jakinarazpenik jaso nahi, sakatu  eta, ondoren, desaktibatu **Aviso de alto consumo** hautagailua.

- **Pantailaren bereizmena murriztu**: Desaktibatu **Habilitar modo de ahorro de energía ROG** hautagailua pantailaren bereizmena murrizteko eta energia gutxiago kontsumitzeko.
- **Automatikoki itxi asko kontsumitzen duten aplikazioak**: Sakatu  eta, ondoren, aktibatu **Historial de apps cerradas** hautagailua.

Ultra energia-plana gaitzea

Dei garrantzitsu bat jaso zain bazaude baina telefonoaren bateria-maila baxua bada, gaitu **Ultra** energia-plana **Admin. del tel.**-n. Funtzio guztiak desgaitzen ditu aukera horrek, funtsezkoak izan ezik (deiak, SMSak eta kontaktuak); hori dela eta, areagotu egiten da bateriaren autonomia.

Ireki  **Admin. del tel.** Sakatu **restante** > **Plan de energía** > **Ultra** eta hautatu ✓ > **Habilitar**

Sakatu **Salir** Energia aurrezteko ultra plana desgaitzeko eta jatorrizko doikuntzak berrezartzeko.


Pantaila blokeatuta dagoela atzeko planoan dauden aplikazioak ixtea

Murriztu energia-kontsumoa pantaila blokeatuta dagoela atzeko planoan dauden aplikazioak itxiz.

1 Ireki  **Admin. del tel.**

2 Sakatu **Aplicaciones protegidas**

3 Desaktibatu funtsezkoak ez diren aplikazioen hautagailuak, pantaila blokeatuta dagoela exekutatu ez daitez.

 Pantaila blokeatu ondoren aplikazio batek exekutatzeko jarraitzea nahi baduzu (Segurtasun kopia aplikazioak, adibidez), aktibatu aplikazio horren hautagailua.


Sakatu pizteko/itzaltzeko tekla pantaila blokeatzeko. Atezko planoan dauden aplikazio guztiak itxiko ditu telefonoak, babestuta daudenak izan ezik.

Atezko planoan dauden aplikazioei Internetera sartzea galaraztea

Erabili sareko aplikazio-kudeatzailea aplikazio jakin batzuk Internetera konekta ez daitezen eta daturik kontsumi ez dezaten.

1 Ireki  **Admin. del tel.**

2 Sakatu **Gestor de tráfico** > **Aplicaciones en red**

3 Txandaka erabili **Instaladas** eta **Del sistema** fitxak aplikazio indibidualetarako Interneterako sarbide-baimeak konfiguratzeko. Sakatu  konfiguratzeko zer aplikazioek daukaten Interneterako sarbidea desplazamendua aktibatuta dutela.

Energia kudeatzea. Aplikazio baten Interneterako sarbidea desgaitzen baduzu, hau galdetuko zaizu: ea nahi duzun Interneterako sarbidea gaitzea aplikazio hori hurrena zabaltzen duzunean.

Pantaila- eta soinu-doikuntzak

Murriztu energia-kontsumoa telefonoaren pantaila- eta soinu-doikuntzak optimizatuz.

Kontsultatu [Pantaila-doikuntzak](#) atala honetaz informazioa eskuratzeko: nola aurreztu energia Daydream babesa desgaituta, jakinarazpen-argia itzalita, pantailaren distira murriztuta eta eta pantaila itzaltzeko denbora gutxituta.


Kontsultatu [Soinu-doikuntzak](#) atala honetaz informazioa jasotzeko: nola aurreztu energia soinuak edo beharrezkoak ez diren bibrazio-alertak desgaituta.

Telefonoaren administratzailea

Sistema optimizatzea

Erabili Telefonoaren administratzailea telefonoaren abiadura areagotzeko eta errendimendua optimizatzeko.

Azterketa sakona

Ireki  **Admin. del tel.** Telefonoak automatikoki egingo du azterketa sakon bat eta sistema optimizatuko du.

Telefonoa garbitzea

1 Ireki  **Admin. del tel.**


2 Sakatu **Optimización del sistema** cache memorian eta sistemaren zakarrontzian gordetako aplikazioen datuak bilatzeko eta ezabatzeko.

 Bete pantailan azaltzen diren jarraibideak fitxategiak eskuz ezabatzeko edo doikuntzak konfiguratzeko.

3 Datuak ezabatu ondoren, sakatu **Finalizar**.

Datuen erabilera administratzea

Datuak administratzeko kudeaketa-funtzio bat du telefonoaren administratzaileak. Datu-kontsumoa monitorizatzeke erabil daiteke funtzio hori, hileko esleitutakoaren muga ez gainditzeko.


Ireki  **Admin. del tel.** eta sakatu **Gestor de tráfico**. Datu-kontsumoari buruzko estatistika xehatuak ikus ditzakezu, edo doikuntza hauek konfiguratu:

- **Datu-trafikoaren rankinga:** Aplikazio bakoitzeko datu-kontsumoa erakusten du.
- **Sareko aplikazioak:** Aplikazioetarako Internetera sartzeko baimenak kudeatzeko aukera ematen du. Beharrezkoak ez diren eta Internetera konektatzen diren atzeko planoko aplikazioak ixteko aukera ematen du, datu- eta energia-kontsumoa murrizteko. Informazio gehiago nahi baduzu, begiratu [Atzeko planoan dauden aplikazioei Internetera sartzea galaraztea](#) atala.
- **WiFi-eremu eramangarria:** WiFi eremu mugikor bateko doikuntzak konfiguratzeko edo sare mugikorrera konektatzeko aukera ematen du.

Jazarpen-iragazkia

Jazarpen-iragazki bat du du telefono-administratzaileak, eta jaso nahi ez diren deiak, mezuak eta jakinarazpenak blokeatzeko jakinarazpen-zentro bat.

Ireki  **Admin. del tel.** Hau egin dezakezu:

- Sakatu **Filtro de acoso** >  eta bete pantailan agertzen diren jarraibideak jaso nahi ez diren deien, gako-hitzen eta doikuntzen zerrenda beltz edo zuri bat egiteko.
- Sakatu **Centro de notificaciones** eta hautatu aplikazio bat zure baimenak eta jakinarazpen-doikuntzak konfiguratzeko.

Bateriaren kudeaketa

Telefono-administratzaileak daukan bateria administratzeko funtzioari esker, energia aurrez daiteke; horrez gain, erabiltzaileak ez dira geratzen dei eta mezu garrantzitsuak jaso gabe.


Ireki  **Admin. del tel.** eta sakatu **restante**. Hau egin dezakezu:

- Bateriaren erabilerari buruzko estatistika xehatuak kontsultatu. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi [Bateriaren kontsumo-estatistikak kontsultatzea](#) atala.
- Bateriaren erabilera optimizatu eta, hartara, energia-kontsumoa gutxitu. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi [Energia-kontsumoa gutxitzea](#) atala.
- Kontsumo-plan egoki bat hautatu.

Tresnak

Egutegia

Eguneroko eginkizunak planifikatzen laguntzen du egutegiak; adibidez, jardueren plangintza egiten. Horrez gain, estatuko jaiei buruzko informazioa ere ematen du. Zure kontaktuen urtebetetze-egunak gorde badituzu, egutegiak automatikoki sortuko ditu haiei buruzko gogorazpenak.



Ekitaldiak gehitzea eta kentzea



Gehitu ekitaldiak, eta ezarri gogorazpenak haiek planifikatzeko.


- **Ekitaldi bat gehitzea:** Ireki **6** **Calendario**, sakatu **+** eta, ondoren, sartu izena, eguna, hasiera- eta amaiera-orduak eta ekitaldia egingo den lekua. Sakatu **✓** ekitaldia gordetzeko. Gogorazpen bat gehitzen baduzu, telefonoak gogorazpen bat bidaliko dizu, aurrez ezarritako egunean eta orduan.
- **Ekitaldi bat kentzea:** sartu kendu nahi duzun ekitaldira; ondoren, sakatu **🗑️**.


Egutegia bistaratzea

Ireki **6** **Calendario**. Hau egin dezakezu:

- **Hilaren, astearen edo egunaren arabera hautatu ikuspegia:** Sakatu **hilabetea**, **astea** edo **eguna**. Hilabetearen, astearen edo egunaren ikuspegian, lerratu hatza ezkererantz edo eskuinerantz bistaratzen den hilabetea, astea edo eguna aldatzeko.
- **Asteko eguna ikustea:** Sakatu **☰ >** **Ajustes** eta, ondoren, aktibatu **Mostrar número semana** hautagailua asteko eguna egutegiaren ezkerrean ikus dadin.


- **Asteko lehen eguna aldatzea:** Sakatu  > **Ajustes** > **Inicio de semana** eta, ondoren, hautatu egun bat.
- **Beste egutegi bat hautatzea:** Egiaztatu Internetera konektatuta zaudela; ondoren, sakatu  > **Calendarios visibles**. Sakatu **Calendario local** eta hautatu nahi duzun egutegia.

 Interneterako konexioaz informazio gehiago jasotzeko, begiratu [Interneterako sarbidea](#) atala.

- **Kontaktuen urtebetetzeak automatikoki inportatzea:** Sakatu  > **Calendarios visibles** eta, ondoren, aktibatu **Cumpleaños de contactos**. Automatikoki inportatuko ditu telefonoak zure kontaktuen urtebetetzeak, eta dagozkien gogorazpenak sortuko ditu.

Jaiegun orokorrak bistaratzea

Jaiegun orokorren aukera lagungarri duzu zure hurrengo negozio-bidaia edo oporrak planifikatzeko.

 Interneterako sarbidea eskatzen du aukera horrek. Informazio gehiago jasotzeko, kontsultatu [Interneterako sarbidea](#) atala.

1 Ireki  **Calendario**.

2 Sakatu  > **Calendarios visibles** > **Días festivos mundiales**

3 Aktibatu jaiegunak ikusi nahi dituzun herrialdearen ondoko hautagailua. Automatikoki deskargatuko du telefonoak dagokion herrialdeko jaiegunei buruzko informazioa.

Egutegia sinkronizatzea

Sinkronizatu egutegia zure kontuarekin, hara aise sartzeko edonondik.

1 Ireki  **Calendario**.

2 Sakatu  > **Calendarios visibles**

3 Hautatu zer konturen egutegia bistaratzea nahi duzun.

4 Sakatu  > **Calendarios para sincronizar**





5 Hautatu nahi duzun kontua eta, ondoren, ekin saioari zure Exchangeko kontuan egutegia sinkronizatzeko.

Erlojua

Erlojua aplikazioan, alarmak gehitu ditzakezu, estatuko jaiegunak zein den begiratu, munduko edozein lekutako ordua jakin, eta kronometroaren eta tenporizadorearen funtzioez baliatu.


Alarmak kudeatzea


Ireki  **Reloj. Alarma** fitxan, hau egin dezakezu:


- **Alarmak gehitu:** Sakatu  eta jarri, beste zenbait parametroren artean, data eta ordua, tonua eta alarmaren errepikatze-maiztasuna. Sakatu  doikuntzak aplikatzeko.
- **Alarmak gaitzea edo desgaitzea:** Sakatu alarma baten ondoan dagoen hautagailua.
- **Alarmak konfiguratzera:** Sakatu  hau konfiguratzeko: alarma zenbat denboraz atzeratu nahi duzun, modu isilaren doikuntzak eta bolumen-botoiaren funtzioa.
- **Alarmak ezabatzea:** Eduki sakatuta ezabatu nahi duzun alarma, eta, ondoren, sakatu .
- **Alarmak desaktibatzea:** Sakatu **Arrastrar para apagar la alarma** blokeatutako pantailaren beheko aldean.
- **Alarmak isiltzea:** Sakatu botoia bolumena jaisteko.
- **10 minutu atzeratzea:** Sakatu pizteko/itzaltzeko botoia. Hamar minuturen buruan aktibatuko da berriro alarma. Lerratu hatza pantailan beherantz jakinarazpen-panela irekitzeko, eta sakatu alarma-jakinarazpena alarma desaktibatzeko.
- **Alarmak gaitzea telefonoa itzalita dela:** Telefonoa itzaltzean, hautatu **Mantener la alarma activa. Sonará dentro de**. Telefonoa itzalita egonik ere aktibatu egingo dira alarmak.





Erloju unibertsala

Gehitu hainbat erloju, munduko zenbait hiritako ordua ikusteko.

Ireki  **Reloj**. Hau egin dezakezu **Reloj univ** fitxan:





- **Hiri bat gehitzea:** Sakatu . Idatzi hiri baten izena edo aukeratu bat zerrendatik.

- **Jatorrizko lekuaren ordu-eremua ezartzea:** Sakatu , aktibatu **Mostrar reloj local** hautagailua eta, ondoren, sakatu **Zona horaria local**.
- **Sistemaren data eta ordua ezartzea:** Sakatu  > **Fecha y hora**
- **Hiri bat ezabatzea:** Sakatu **Editar ciudades**. Sakatu  ikonoa, zeina ezabatu nahi den hiriaren alboan baitago; ondoren, sakatu .

Erloju bikoitza bistaratzea

Lehenespenez, sareko data eta ordua erabiltzen ditu telefonoak. Pantaila blokeatuta dela, aktibatu erloju bikoitzaren modalitatea tokiko ordua eta jatorrizko lekukoa bistaratzeko.

Sakatu  > **Fecha y hora** > **Reloj doble** eta, ondoren, aktibatu **Reloj doble** hautagailua. Sakatu **Configurar ciudad local** eta, ondoren, hautatu zure jatorrizko lekuaren ordu-eremua hiri-zerrendan.





 Berdinak baldin badira tokiko eta jatorrizko lekuaren ordu-eremuak, erloju bakarra bistaritzen da.



Kronometroa

1 Ireki  **Reloj**.

2 Cronómetro aukeran, sakatu  kronometratzen hasteko.

 Kronometratzen ari zaren bitartean, sakatu  itzuliak zenbatzeko. Pantailaren erdian, tenporizadorean, lerratu hatza gorantz itzuliei buruzko datuak bistaratzeko.

3 Sakatu  kronometroa gelditzeko.

4 Sakatu  kronometroa berriro martxan jartzeko, edo sakatu  kronometroaren erregistroak ezabatzeko.

Tenporizadorea




1 Ireki  **Reloj**.

2 **Temporizen**, birarazi gurpila atzerako kontaktaren epea ezartzeko.

 Sakatu , tenporizadorearen tonua konfiguratzeko.

3 Sakatu  tenporizadorea abian jartzeko.


4 Tenporizadoreak jotzen duenean, lerratu hatza pantailan, tonua isilarazteko.



 Tenporizadorea atzerako kontaketa egiten ari dela, sakatu  tenporizadorea berriro martxan jartzeko, edo sakatu  atzerako kontaketa gelditzeko.


Eguraldia

Honetarako aukera ematen du Eguraldia aplikazioak: orain zer eguraldi egiten duen eta egun batzuk barru nolakoa egingo duen jakiteko, bai zu zauden lekuan, bai munduko beste leku askotan.

Eguraldiari buruzko informazioa bistaratzea

Ireki  **El tiempo**. Hau egin dezakezu:

- **Ikusi eguraldiari buruzko informazio xehatua:** Hatza pantailan gora lerratuta, hau bistaratuko da: hurrengo 24 orduetako eguraldi-iragarpena, euria egiteko zenbateko probabilitatea dagoen, airearen kalitate-indizea, erosotasun-indizea, haizearen abiadura eta noranzkoa eta zer ordutan argituko eta ilunduko duen eguna.
- **Beste hiri batzuetako eguraldia bistaratzea:** Lerratu hatza pantailaren ezkerraldera edo eskuinaldera beste hiri batzuetako eguraldi-iragarpena ikusteko.
- **Temperatura-unitatea aldatzea:** Sistemaren hizkuntzaren arabera konfiguratzeko da temperatura-unitatea. Sakatu  > **Unidad de temperatura** unitatea aldatzeko.
- **Eguraldi-soinuak gaitzea:** Lehenespenez, desgaituta egoten dira eguraldi-soinuak. Haiek gaitzeko, sakatu  eta, ondoren, aktibatu **Tonos del tiempo** hautagailua



Eguraldiari buruzko informazioa eguneratzea

1 Ireki **Eguraldia**

2 Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera, zein hiritako eguraldiari buruzko informazio eguneratu nahi duzun aukeratzeko.

3 Lerratu hatza beherantz pantailaren goiko aldetik eguraldiari buruzko informazioa eskuz eguneratzeko.

Eguraldiari buruzko informazioa automatikoki eguneratzeko ere konfigura daiteke. Sakatu Aktibatu **Actualización automática** hautagailua eta, ondoren, konfiguratu **Actualización** aukera. Programatutako tartearen arabera eguneratuko ditu telefonoak eguraldiari buruzko datuak.

Hiriak gehitzea eta kentzea

Gehitu hainbat hiri eguraldi-aplikazioari, interesatzen zaizkizun hirietako eguraldiaren jarraipena egiteko.

1 Ireki **Eguraldia**

2 Sakatu Ondoren, aukera hauek dituzu:

- **Hiri bat gehitzea:** Sakatu > . Sakatu zerrendako hiri bat, edo bilatu nahi dizun hiria bilaketa-barran. Gehienez ere, 10 hiri gehi ditzakezu eguraldi-aplikaziora.
- **Hiri bat kentzea:** Eduki sakatuta kendu nahi duzun hiria eta, ondoren, sakatu .

Ohar-bloka


Erabili ohar-bloka informazio garrantzitsua edo erosketa-zerrenda idazteko. Ohar bakoitzerako gogorazpenak ezar ditzakezu.




i Ohar-blokaren pantaila nagusian, "-" bat dute aurretik egiteke dauden oharrek, azkar bereizteko zer oharri ekin behar zaien lehenbizi.

Oharrak sortzea

1 Ireki  **Bloc de notas**

2 Sakatu , sartu ohar bat eta, ondoren, sakatu  hura gordetzeko.



Oharra gorde ondoren, jarraitu pantailako argibideei oharra partekatzeko, ezabatzeko edo gogokoetara gehitzeko.


Ohar bat ezabatzea


1 Ireki  **Bloc de notas**

2 Eduki sakatuta ezabatu nahi den oharra (edo ohar asko hautatu) eta, ondoren, sakatu .

3 Sakatu **Eliminar**.

Kalkulagailua

Ireki  **Calculadora**. Biratu pantaila kalkulagailu estandarra eta zientifikoa txandakatzeko.



Soinu-grabagailua



Honetarako erabil dezakezu Grabagailua aplikazioa: zeure ahotsa edo audioa grabatzeko (bileretan eta elkarriketetan, adibidez).


Soinuak grabatzea

1 Ireki  **Grabadora**

2 Sakatu  grabazioa hasteko.

 Grabazio-kalitate optimoa ziurtatzeko, ipini telefonoa azalera lau baten gainean eta ez estali mikrofonoa.

3 Grabatzen ari dela, sakatu  grabazioa gelditzeko edo  etiketa bat gehitzeko.


4 Grabazio bat amaitzeko, sakatu . Jarri izen bat grabazio-artxiboari eta, ondoren, sakatu **Guardar**.

Grabazio bat erreproduzitzea

1 Ireki  **Grabadora**

2 Sakatu .

3 Hautatu erreproduzitu nahi duzun grabazio-artxiboa, edo sakatu artxibo-izenaren ondoan dagoen erreprodukzio-botoia.




Ispilua

Ispilu gisara erabil daiteke telefonoa.




Ireki  Ispilua

- **Irudi bat gordetzea:** Sakatu pantaila eta hautatu  irudia Galerian gordetzeko. Irudia gordetakoan itzuliko da telefonoa Ispilua modura.
- **Hurbiltzea:** Sakatu pantaila bi aldiz irudia hurbiltzeko. Sakatu pantaila bi aldiz hasierako pantailara itzultzeko.
- **Distira areagotzea:** Mikrofonoari putz egitean, "lurrun" efektua agertuko da ispiluan. Garbitu pantaila efektu hori kentzeko.

Doikuntzak

Kokapenerako sarbidea gaitzea

Gaitu kokapenean oinarritzen diren zerbitzuak hau bermatzeko: mapek, nabigazioak eta eguraldi-aplikazioek informazio horretarako sarbidea izatea.


 Funtzioak desberdinak izan daitezke, operadorearen arabera.

1 Ireki  **Ajustes**

2 Sakatu **Ajustes avanzados > Acceso a la ubicación** eta aktibatu **Acceder a mi ubicación** hautagailua

3 Hiru aukera hauek daude **Modo de ubicación**en:

- **GPSa, WiFi eta sare mugikorrek erabiltzea:** GPSa eta telefonoaren Interneterako konexioa erabiltzen ditu. Gaitu aukera hori kokapen zehatz-zehatza lortzeko.
- **WiFi eta sare mugikorrek erabiltzea:** Telefonoaren Interneterako konexioa bakarrik erabiltzen du. Gaitu aukera hori energia-kontsumoa murrizteko eta itxarote-denbora luzatzeko.
- **GPSa bakarrik erabiltzea:** Ez da behar Interneterako konexiorik. Gaitu aukera hori datu mugikor gutxiago erabiltzeko.



Posizionamenduaren zehaztasuna hobetzea lekuen barnealdean

WiFia eta bluetootha erabiltzen ditu telefonoak barrualdeetan posizionamendu zehatzagoa lortzeko.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados > Acceso a la ubicación > Menú > Ajustes de búsqueda**

- Aktibatu **Búsqueda de redes Wi-Fi** hautagailua. WiFi sareak etengabe bilatuko dituzte kokapen-zerbitzuek eta -aplikazioek, hartara posizionamendu zehatzagoa lortzeko.
- Aktibatu **Búsqueda de dispositivos Bluetooth** hautagailua. Bluetooth-gailuak bilatuko dituzte kokapen-zerbitzuek eta -aplikazioek, hartara posizionamendu zehatzagoa lortzeko.


Pantaila-doikuntzak

Egokitu pantailako doikuntzak telefonoa pertsonalizatzeko. Hauek alda ditzakezu: pantailaren atzealdea, letra-tamaina eta pantaila itzali arte igaro behar duen denbora.

Sartu  **Ajustesera** eta sakatu **Pantaila**. Doikuntza hauek egin daitezke:

- **Kolore-tenperatura**: Doitu telefonoren pantailako irudien kolore-tenperatura. Hautatu kolore beroagoko tenperaturaren bat itxura leunagoa emateko, eta tenperatura hotzagoren bat irudi argiagoa izateko. Desaktibatu **Predeterminada** kontrol-laukia eskuz doitzeko kolore-tenperatura.
- **Pantaila-atzealdea**: Konfiguratu pantaila nagusiaren eta blokeo-pantailaren atzealdeak. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi [Pantailako gaiak eta haren atzealdeak](#) atala.
- **Letra-tamaina**: Konfiguratu letra-tamaina.
- **Pantaila-babesa**: Funtzio hori gaituta eta **Fuente de la imagen** eta **Duración** konfiguratuta daudenean, telefonoak automatikoki erakutsiko ditu irudiak kargatzen ari den eta pantaila blokeatuta dagoen bitartean.
- **Jakinarazpen-argia**: Deirik, mezurik edo bestelako jakinarazpenik jasotzen baduzu, keinuka hasiko da adierazlea.
- **Distira**: Automatikoki doitu du telefonoak pantailaren distira, giro-argitasunaren arabera. Desaktibatu **Bri-llo automático** kontrol-laukia distira eskuz doitzeko.
- **Pausagunea**: Zenbait denboraz geldirik egon ondoren, automatikoki blokeatuko da pantaila, energia-kontsumoa murrizteko. Hautatu **Reposo** pantaila itzali arte igaro behar duen denbora doitzeko edo pantaila automatikoki desblokeatzeko funtzioa desgaitzeko.

- **Pantaila automatikoki biratzea:** Funtzio hori aktibatuta badago, pantailaren orientazioa automatikoki aldatuko da zenbait eragiketa egitean (webgune batean nabigatzean, irudi bat ikustean edo mezu bat idaztean), telefonoari eusteko moduaren arabera.



 Gerta liteke deskribatutako funtzioetako batzuk erabilgarri ez egotea telefono-modelo batzuetan.

Soinu-doikuntzak


Aldatu deien eta mezuen tonuak, edo konfiguratu sistemaren alerta-soinua eta bibrazio-efektuak.

Sartu  **Ajustesera** eta sakatu **Soinua**. Doikuntza hauek konfiguratu daitezke:

- **Bolumena:** Deien, baliabideen eta alarmen tonua eta deien bolumena doitzeko aukera ematen du.
- **Isiltasun modua:** Funtzio hori aktibatzean, telefonoak ez du joko dei edo mezuren bat jasotzean, baina pantaila piztu egingo da. **Vibrar en modo silencioso** ere aktibatu baduzu, berriz, bibratu egingo du telefonoak, dei edo mezuren bat sartu dela jakinarazteko.

 Zuzeneko sarbideen fitxan gaitu edo desgaitu daitezke funtzio horiek. Sakatu  **Sonido silencioso**, **Vibración** eta **Silencioso** txandaka erabiltzeko.

- Hautatu tonu bat **Tono de llamada y vibraciónen**, hura aldatzeko. Aurrez jarritako tonuak hauta ditzakezu, edo bertako musikaren artxibo bat. Aktibatu hautagailua Bibrazio modua gaitzeko telefonoak jotzean.
- **Aurretik erabakitako jakinarazpen-tonua:** Aukera ematen du aurrez erabakitako tonu bat edo bertako musika-artxibo bat jakinarazpen-tonutarako hautatzeko mezuak, mezu elektronikoak eta bestelako jakinarazpen batzuk jasotzen direnerako.
- Musika entzuteko edo bideoak ikusteko erabili behar baduzu telefonoa, sartu entzungailuak eta gaitu **Modo DTS de auriculares** funtzioa: kanal anitzeko DTS soinu biltzaile eta harrigarria iritsiko zaizu.
- Sakatu hautagailuak, **Sisteman**, hauek gaitzeko edo desgaitzeko: zenbaki-teklatuko tonuak, sakatzearen erantzun-soinua, pantailaren blokeo-soinuak, pantaila-irudien tonuak, pizte- eta itzaltze-tonuak eta ukipen-erantzunen tonuak.

 Gerta liteke deskribatutako funtzioetako batzuk erabilgarri ez egotea telefono-modelo batzuetan.

Pantaila desblokeatzeko metodoa aldatzea

Konfiguratu pantaila blokeatzeko pasahitz bat, baimendu gabeko sarrerarik izan ez dezazun telefonoan.

Pantaila desblokeatzeko eredu bat konfiguratzeko

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Bloqueo de pantalla y claves > Clave > Patrón**

3 Konektatu lau puntu, gutxienez, pantaila desblokeatzeko eredu bat sortzeko, eta altxatu hatza. Berriro trazatu pantaila desblokeatzeko eredua, berresteko.

4 Sartu gutxienez lau digitu dituen PIN osagarri bat. Pantaila desblokeatzeko eredua ahazten bazaizu, PIN osagarria sartuta desblokea dezakezu.


Pantaila pasahitz batekin desblokeatzea

1 Ireki  **Ajustes**

2 Sakatu **Bloqueo de pantalla y claves > Clave**

3 PIN bat edo pasahitz bat konfiguratu dezakezu:

- Sakatu **PIN**, sartu gutxienez lau digitu dituen PIN bat eta hautatu **Listo**.
- Sakatu **Contraseña**, sartu gutxienez lau karaktere dituen pasahitz bat eta hautatu **Listo**.

 Zure hatz-marka ere erabil dezakezu pantaila desblokeatzeko. Sakatu **Registrar** elkarrizketa-koadro gainerakorrean zure hatz-marka gehitzeko.

Hatz-markaren bidezko desblokeoa gaitzea

Ikusi [Hatz-marken bidezko ezagutza erabiltzea](#) hatz-marken bidez desblokeatzeko konfigurazioari buruzko informazio gehiago izateko.

Pantaila blokeatzeko pasahitza kentzea

1 Ireki  **Ajustes**


2 Sakatu **Bloqueo de pantalla y claves > Clave**

3 Idatzi pantaila blokeatzeko pasahitza edo hura desblokeatzeko eredua, eta sakatu **Nada**.

Keinu- eta nabigazio-doikuntzak

Kontrolatu telefonoa keinu erraz batzuen bidez. Adibidez, irauli telefonoa tonuak isiltzeko, edo belarriaren ondoan eduki deiei erantzuteko edo zenbaki bar markatzeko.


Mugimenduen kontrola

Ireki  **Ajustes**. Sakatu **Asistencia inteligente > Control de movimiento** eta hautatu gaitu nahi dituzun mugimenduak.


- **Iraultzea:** Itzali soinuak eta desgaitu sartzen diren deien bibrazioak, alarmak eta tenporizadoreak.




- **Altxatzea:** Altxatu telefonoa deien, alarmen eta tenporizadoreen tonu-bolumena jaisteko.




- **Belarrira hurbiltzea:** Belarriaren ondoan eduki telefonoa deiei erantzuteko. Erregistro- edo kontaktu-xehetasunak begiratzen ari zarela, eraman telefonoa belarrira kontaktu bati deitzeko. Esku libreko moduan edo bluetooth-entzungailuak jarrita dituzula hitz egiten ari zarela, ipini telefonoa belarriaren ondoan Entzungailu modura aldatzeko.



- **Etzatea:** Pantaila nagusiaren editorean, sakatuta eduki ikono edo widget bat, eta ezkerrera edo eskuinera etzan telefonoa, hurrengo pantailara mugitzeko.



- **Pantaila-argazkia:** Sakatu bi aldiz pantaila hatz-koskorrekin, pantaila osoaren argazkia ateratzeko, edo pantailaren parte bat atzitu, haren gainean forma bat marraztuz hatz-koskorrekin. Leunki jo pantaila bi hatz-koskorrekin, pantaila-grabazio bat hasteko edo gelditzeko.





- **Marraztea:** Idatzi letra bat pantailan hatz-koskorrekin, aurrez erabakitako aplikazio bat irekitzeko.



i WiFi konexioa besterik ez duten tabletek ez dute ahots-deirik onartzen.

Nabigazio-barra

Ireki **Ajustes** eta sakatu **Asistencia inteligente** > **Barra de navegación** nabigazio-barra konfiguratzeko.

Hautatu nabigazio-barraren diseinu pertsonalizatu bat.  duen nabigazio-barra bat hautatzen baduzu, sakatu  jakinarazpen-panelera bizkor sartzeko.


Hegazkin-modua

Haririk gabeko gailuek interferentziak eragin ditzakete hegazkinen hegaldi-sistemetan. Hegazkin batean zaudenean, itzali telefonoa edo hautatu hegazkin-modua.


Desgaituta geratuko dira telefonoaren sare-funtzio guztiak hegazkin-modua hautatuta. Ezingo duzu ez deirik egin ez jaso, ez eta datu mugikorrik, bluetoothik edo WiFirik erabili ere; hauek, aldiz, egin ditzakezu: musika erreproduzitu, bideoak ikusi eta Interneterako konexiorik behar ez duten aplikazioak erabili.

Honela gaitu edo desgaitu dezakezu hegazkin-modua:

- Lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko. **Accesos directos** aukeratu, sakatu **Modo avión**.



- Sakatuta eduki pizteko/itzaltzeko botoia, eta sakatu **Modo avión**.





- Ireki  **Ajustes**, eta aktibatu **Modo avión** hautagailua.


Hegazkin-modua aktibatzen denean,  ikonoa bistaratuko da egoera-barran.

Botoi mugikorra erabiltzea

Botoi mugikorraren bidez, sarri erabiltzen diren zenbait aukera eta funtziotara sar zaitezke pauso bakar batean (adibidez, Atzera, Hasi eta Optimizazio tekletara). Botoi mugikorra tokiz alda dezakezu pantailan, esku bakarrarekin errazago erabil dezazun.





Ireki  **Ajustes**. Sakatu **Asistencia inteligente** > **Botón flotante** eta aktibatu **Botón flotante** hautagailua.



Gaitu ondoren, pantaila guztietan ikusiko da  botoi mugikorra, blokeo-pantailan eta jakinarazpen-panelean izan ezik. Sakatu  botoi mugikorraren menua hedatzeko.



Arrastatu botoi mugikorra zuk nahi duzun lekuraino.


Hedatutako menuan, egin hau:

- Sakatu  aurreko pantailara itzultzeko edo uneko aplikaziotik irteteko.
- Sakatu  pantaila nagusira itzultzeko.
- Sakatu  azkena erabiltako aplikazioen zerrenda ikusteko.
- Sakatu  pantaila blokeatzeko

- Sakatu  telefonoaren memoria garbitzeko eta energia-erabilera intentsiboa egiten duten eta atzeko aldean exekututzen diren aplikazioak ixteko.
- Sakatu  menua minimizatzeko.

SIM txartelaren PIN kodea konfiguratzeko

Identifikazio-zenbaki pertsonala (PIN) SIM txartelarekin batera ematen da. Telefonoko datuak babesteko balio du PINak. SIM txartelaren babesa PINaren bidez aktibatu baduzu, PINa sartu behar duzu telefonoa pizten duzun bakoitzean edo SIM txartela beste telefono batean sartzen duzunean.

 Funtzioak desberdinak izan daitezke, operadorearen arabera.


Eragiketa hauek egiteko, ziurtatu SIM txartelaren PINa eman dizula operadoreak.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados > Seguridad** eta hautatu **Bloqueo de tarjeta SIM** aukera SIM txartelaren blokeo-funtzioak zehazteko.

3 Aktibatu **Bloquear tarjeta SIM** hautagailua.

4 Sartu PINa eta sakatu **Aceptar**. PINa aldatzeko, hautatu **Cambiar PIN de SIM**.

-  • PIN okerrak sartzeko aukera-kopurua gainditzen baduzu, PUK kodea sartu behar duzu. Behar baino gehiagotan sartzten baduzu PUK kodea, behin betiko blokeatuko da SIM txartela.
 - Muga horiei buruzko xehetasun gehiago jakiteko, galdetu operadoreari.

Kontu bat konfiguratzeko

Kontuak gehitzea

Lineako aplikazio eta zerbitzu askotan sortu behar izaten dira kontuak, hartara funtzio-aukera guztietara sarbidea izateko.

1 Ireki  **Ajustes**


2 Sakatu **Cuentas > Añadir cuenta**

3 Hautatu kontu-mota bat eta bete pantailan agertzen diren jarraibideak dagokion informazioa sartzeko.

- Hirugarren batzuen aplikazio baten kontu bat gehitzeko, dagokion aplikazioa instalatu behar da lehenbizi.
- Enpresa baten kontu bat gehitzeko, begiratu [Exchange kontuak gehitzea](#) atala.

- Posta elektronikoko kontu bat gehitzeko, begiratu [Postako kontu pertsonalak gehitzea](#) atala.

Kontuak ezabatzea




- 1 Ireki  **Ajustes**.
- 2 Sakatu **Cuentas** eta hautatu kontu-mota.
- 3 Aukeratu ezabatu nahi duzun kontua, eta pantailan agertzen diren jarraibideak bete hura ezabatzeko.

Telefonoarekin datuak sinkronizatzea


Gaitu sinkronizazio-funtzioa telefonoko datu guztiak eguneratuta edukitzeko eta ez galtzeko. Hauek sinkroniza daitezke: helbide elektronikoa, kontaktuak eta telefono edo ordenagailu zaharreko beste zenbait datu.

Kontu-motaren arabera izaten dira sinkroniza daitezkeen datuak. Gerta liteke aplikazio batzuek ez onartzea datu-mota guztien sinkronizazioa.

Beheko adibideak erakusten digu nola sinkronizatu datuak posta elektronikoko kontu batetik.


- 1 Ireki  **Ajustes**.
- 2 Sakatu **Cuentas** >  eta hautatu **Sincronización automática**. Bete pantailako jarraibideak eta sakatu **Aceptar** datuak sinkronizatzeko hautagailua aktibatzeko.
- 3 **Cuentas** pantailan, hautatu kontu-mota bat eta, ondoren, hautatu telefonoarekin sinkronizatu nahi duzun kontua.
- 4 Sakatu  helbide elektronikoak sinkronizatzeko.

Data eta ordua konfiguratzea

 Funtzioak desberdinak izan daitezke operadorearen arabera.


Ireki  **Ajustes**. Sakatu **Ajustes avanzados** > **Fecha y hora** doikuntzak zehazteko.

Sistemaren hizkuntza aldatzea

- 1 Ireki  **Ajustes**
- 2 Sakatu **Ajustes avanzados** > **Idioma e introducción**
- 3 Sakatu **Idioma y región** eta hautatu nahi duzun hizkuntza.


Telefonoaren zehaztapenak ikustea

Ikusi telefonoaren zehaztapenak pauso erraz hauek emanez. Besteak beste, prozesadoreari, memoriari eta pantaila-bereizmenari buruzko informazioa ikus dezakezu.

Ireki  **Ajustes** eta sakatu **Acerca del teléfono**. Lerratu pantaila gorantz edo beherantz informazio hau ikusteko: prozesadoreari, RAM memoriari, barne-memoriari, pantaila-bereizmenari, IMElari eta abarri buruzkoa.

Zenbateko biltegitratze-eremua dagoen ikustea


Eguneratze-paketeak edo artxibo astunak deskargatu aurretik, begiratu badagoen nahikoa leku microSD txartelean edo telefonoaren barne-memorian.

Ireki  **Ajustes** eta sakatu **Ajustes avanzados > Memoria y almacenamiento** biltegitratzeari buruzko informazioa ikusteko.

Sakatu **Ubicación predeterminada** aurrez erabakitako biltegitratze-kokapena **Memoria interna** edo **Tarjeta SD** gisara konfiguratzeko.

MicroSD txartel bat zifratzea

Zifratu microSD txartela, baimenik gabeko inork zure daturik eskura ez dezan. Pasahitz bat idatzi behar da microSD txartela beste telefono batean sartzean.

-  • microSD txartel guztiak ezin dira zifratu. Baimenik gabeko txartelak zifratzen edo desblokeatzen saiatzen bazara, baliteke errore-mezu bat agertzea pantailan. microSD txarteleko datuen segurtasun-kopia bat egin hura zifratu aurretik.
- microSD txartelen zifratzea onartzen ez duten gailuek ez dituzte ezagutzen zifratutako microSD txartelak.
- microSD txartelaren pasahitza ahazten bazaizu, ezabatu txarteleko datu guztiak.

1 Ireki  **Ajustes**


2 Sakatu **Ajustes avanzados > Seguridad**

3 Sakatu **Configurar contraseña de tarjeta SD** eta bete pantailan agertzen diren jarraibideak.

Sakatu **Cambiar contraseña de tarjeta SD** edo **Cancelar contraseña de tarjeta SD** microSD txartelaren pasahitza aldatzeko edo kentzeko.

microSD txartela formateatzea

Formateatu microSD txartela haren datu guztiak ezabatzeko eta lekua libratzeko.

 microSD txartela formateatu aurretik, segurtasun-kopia egin, datu garrantzitsurik ez galtzeko.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados > Memoria y almacenamiento > Tarjeta SD**

3 Sakatu **Formatear > Borrar y formatear**

Irisgarritasun-funtzioak


Telefonoko irisgarritasun-funtzioak direla eta

Irisgarritasun-funtzioei esker, errazago balia daitezke telefonoaz ikusteko edo entzuteko desgaitasuna duten erabiltzaileak.

TalkBack

TalkBack txartelak gaitzea edo desgaitzea

Ikusteko desgaitasunen bat duten erabiltzaileentzat sortutako irisgarritasun-funtzioa da TalkBack. Entzutezko abisuak bidaltzen dizkio erabiltzaileari, zeinak, haiei esker, telefonoa erabil baitezake. Funtzio hori gaituta, entzutezko abisuak sortzen ditu telefonoak erabiltzaileak sakatzen, hautatzen edo gaitzen duen eduki guztietarako. Kontuz gaitu funtzioa.


 TalkBacken aplikazio batzuk ez daude erabilgarri hizkuntza guztietan.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados > Accesibilidad > TalkBack**

3 Aktibatu **TalkBack** hautagailua eta, ondoren, sakatu **Aceptar** TalkBack funtzioa gaitzeko. Automatikoki jarriko da martxan entzutezko gida TalkBack funtzioa lehenbizikoz gaitzean.


Gida berriro erreproduzitu nahi baduzu, sakatu  doikuntzetara sartzeko; ondoren, hautatu gida.

4 Sakatu  eta hautatu **Exploración táctil**. Telefonoak ez du sortuko entzutezko abisurik hautatutako edukirako baldin eta ez bada aktibatzen **Exploración táctil**.


Telefonoa kontrolatzeko TalkBack erabiltzea

TalkBack funtzioa aktibatu eta gero, keinuz baliatu hau egiteko:


Pantailan nabigatzeko: Bi hatz erabili, bakarraren ordez, pantailan lerratzeko. Gorantz edo beherantz mugitu bi hatzak menuko zerrendetan nabigatzeko. Lerratu ezkererantz edo eskuinerantz pantailaz aldatzeko.



Elementu bat hautatzeko: Elementu bat hautatzeko, hatz batez sakatu (ez da irekiko). Telefonoak irakurriko du hautatutako elementuaren edukia.



Elementu bat irekitzeko: Hatz bakar batez, sakatu bi aldiz pantailaren edozein gunere aurreko urratsean hautatutakoa berresteko.




Adibidez, **Ajustes** ireki nahi baduzu, bi pauso hauek eman behar dituzu: Sakatu **Ajustes** ikonoa hatz batez eta behin bakarrik, eta bi aldiz sakatu pantailaren edozein gunere.

TalkBacken doikuntzak

Pertsonalizatu egin ditzakezu TalkBacken doikuntzak, zure premietara egokitzeko.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados** > **Accesibilidad** > **TalkBack** > .

3 Hauek konfiguratu daitezke: entzutezko erantzunak, erantzunaren bolumena, kontrol-keinuak, etab.

Entzutezko pasahitzen abisuak

Entzutezko erantzun bat hornitzen die funtzio horrek ikusteko desgaitasunen bat dutenei. Pasahitz bat sartuta, idatzi ahala irakurtzen ditu letrak telefonoak. TalkBackek gaituta egon behar du funtzio horretaz baliatzeko.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados > Accesibilidad** eta, ondoren, aktibatu **Decir contraseñas** hautagailua.

Testutik ahotserako irteera (TTS)

Testua ahots bihurtzen du funtzio horrek ikusteko desgaitasunen bat dutenentzat. TalkBackek gaituta egon behar du funtzio horretaz baliatzeko.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados > Accesibilidad > Salida de texto a voz**

3 Hautatu ahotsa sintetizatze nahi den motorra eta ahotsaren abiadura.

Azpitituluak

Entzutezko abisuak ez ezik, azpigituluak ere erakusten dizkie TalkBack funtzioak entzuteko desgaitasunen bat duten erabiltzaileei. TalkBackek gaituta egon behar du funtzio horretaz baliatzeko.


1 Ireki  **Ajustes**

2 Sakatu **Ajustes avanzados > Accesibilidad > Subtítulos**

3 Aktibatu **Subtítulos** hautagailua eta, ondoren, konfiguratu hizkuntza, letra-tamaina eta azpigituluen estiloa.

Handitze-keinuak

Erabili handitze-keinuak gune jakin bat hurbiltzeko edo urrutiratzeko.


 Teklatua eta nabigazio-barra ezin dira handitu.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados > Accesibilidad > Gestos de ampliación**

3 Aktibatu **Gestos de ampliación** hautagailua.


- **Hurbiltzea:** Sakatu pantaila hiru aldiz, azkar, gunea hurbiltzeko. Sakatu pantaila hiru aldiz, azkar, gunea berriro urruntzeko. Gaituta jarraituko du **Gestos de ampliación** hautagailuak pantaila hiru aldiz sakatuta. Desaktibatu **Gestos de ampliación** hautagailua handitze-keinuak desgaitzeko.




- **Gune handitu bat bilatzea:** Lerratu bi hatz, edo gehiago, pantailan.



- **Zooma doitzea:** Egin atximur pantailari bi hatzekin edo gehiagorekin, edo bereizi hatzak. Gunea gerturatzeko, bereizi hatzak. Gunea berriro urruntzeko, egin atximur pantailari hatzekin.



- **Gunea aldi baterako hurbiltzea:** Sakatu pantaila hiru aldiz, azkar; ondoren, hatzarekin sakatuta eduki pantaila. Pantailan eduki hatza, eta lerratu gune handitu bat bilatzeko. Kendu hatza pantailatik gunea berriro urruntzeko.



Pizteko/itzaltzeko botoia erabiltzea esekitzeko

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados** > **Accesibilidad** eta, ondoren, aktibatu **Botón de encendido cuelga** hautagailua.

Funtzio hori gaitutakoan, sakatu pizteko/itzaltzeko botoia esekitzeko.

Pantailaren erantzute-denbora doitzea

Doitu daiteke telefonoak keinuei erantzuteko behar duen denbora; adibidez, “sakatuta eduki” keinuarena.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados** > **Accesibilidad** > **Retraso pulsación prolongada**

3 Hautatu nahi duzun atzerapen-denbora: **Laburra**, **Ertaina** edo **Luzea**.

Kolorea zuzentzea

Kolorea zuzentzeko modua erabilia koloreak doitu daitezke, erabiltzaile daltonikoez errazago bereiz ditzaten pantailaren guneak.

 Kontuz gaitu modu hori, telefonoaren bateriari eragin baitiezaioke.

1 Ireki  **Ajustes**.

2 Sakatu **Ajustes avanzados** > **Accesibilidad** eta, ondoren, aktibatu **Corrección de color** hautagailua.

3 Sakatu **Modo de corrección** eta, ondoren, hautatu zuzenketa-modu bat.

Eranskina

Laguntza

Irakurri telefonoarekin datorren Bizkor hasteko gida.

Sartu **HiCare** atalera erabiltzailearen gida irakurtzeko, eta Huawei ematen dituen zerbitzuei buruzko informazioa edo onlineko laguntza eskuratzeko.

Sartu **Ajustes > Acerca del teléfono > Información legal**, lege-informazio irakurtzeko.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi <http://consumer.huawei.com>.

Eskuliburu honi buruz

Dokumentu honetako irudi eta argazki guztiak erreferentzia baino ez dira, eta baliteke bat ez etortzea azken produktuarekin.

Eskuliburu honetako funtzioak erreferentzia gisa bakarrik eskaintzen dira. Baliteke operadore edo telefono batzuek funtzio horietako batzuk ez onartzea.

Copyright © 2016 Huawei Technologies Co., Ltd. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Gida hau erreferentzia gisara erabiltzeko da soilik; ez da inolako bermea.

Informazio pertsonala eta datuen segurtasuna

Zure gailuan hirugarrenen funtzioak edo aplikazioak erabiliz gero, baliteke informazio eta datu pertsonalen galtzea edo haietara sartzeko aukerarik ez edukitzea. Zure informazio pertsonala eta konfidentziala babesten laguntzeko neurri batzuk gomendatzen dizkizugu:

- Jarri gailua toki seguruan, beste inork baimenik gabe erabil ez dezan.
- Konfiguratu gailuaren pantaila blokeatu dadin, eta sortu desblokeatzeko pasahitza edo eredu hura irekitzeko.
- Aldizka, egin SIM txartelean, memoria-txartelean edo gailuaren memorian gordetako informazio pertsonalaren segurtasun-kopiak. Gailua aldatuz gero, ziurtatu gailu zaharreko informazio pertsonal guztia aldatzen edo ezabatzen duzula.
- Ezezagunen mezuak edo mezu elektronikoak jasotzean birusek arduratzen baldin bazaituzte, ireki gabe ezaba ditzakezu.
- Zure gailua Interneten nabigatzeko erabiltzen baduzu, ez sartu segurtasun-arriskua duten webguneetan, informazio pertsonala lapurtu ez diezazuten.
- WiFi-a edo bluetootha erabiltzen baldin badituzu, jarri pasahitza zerbitzu horiei, inork baimenik gabe erabil ez dezan. Zerbitzu horiek erabiltzen ez dituzunean, desaktiba itzazu.

- Instalatu edo eguneratu gailuaren segurtasun-softwarea, eta bilatu birusak aldizka.
- Ziurtatu hirugarrenen aplikazioak legezko iturrietatik eskuratzen dituzula. Deskargatutako hirugarrenen aplikazioak arakatu egin behar dituzu, birusak bilatzeko.
- Instalatu Huawei edo hirugarrenen aplikazioen hornitzaileek emandako segurtasun-softwareak edo -adabakiak.
- Aplikazio batzuek kokapen-informazioa behar dute, eta transmititu egiten dute. Beraz, hirugarren batek zure kokapenaren informazioa parteka dezake.
- Zure gailuak detektatze- eta diagnostiko-informazioa eman diezaieke hirugarrenen aplikazioen hornitzaileei. Beste hornitzaile batzuek beren produktuak eta zerbitzuak hobetzeko erabiltzen dute informazio hori.
- Zure informazioaren eta datu pertsonalen segurtasunak arduratzen bazaitu, idatzi helbide honetara: mobile@huawei.com.

Segurtasuneko ezaugarrien zerrenda

Huaweiren telefonoek segurtasun-neurri batzuk dituzte, datuak babesteko.

Disko osoa zifratzea	Memoriaren chipsetean gordetzen diren datu guztiak automatikoki zifratzen dira. Telefono bakoitzak bere segurtasun-gakoa du. Horrek esan nahi du beste gailu batzuetatik ezin direla sartu telefonoaren memoriaren chipsetean gordetako datuetara.
Hatz-markak ezagutzea	Telefonoak hatz-marken sentsoare bat du, erabiltzailea erraz eta bizkor sar dadin telefonoaren funtzioetara. Adibidez, honetarako erabil daitezke hatz-marka: pantaila desblokeatzeko, Segurtasunean gordetako fitxategietan sartzeko eta blokeatutako aplikazioak irekitzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Hatz-marken bidezko ezagutza erabiltzea atala.
Jazarpen-iragazkia	Erabili telefonoaren administrazioaren jazarpen-iragazkia, nahi ez dituzun deiak eta mezuak blokeatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu Jazarpen-iragazkiak atala.
Aplikazioak blokeatzea	Erabili telefonoaren administrazioaren Aplikazioak blokeatzea, aplikazioak blokeatzeko eta inor baimenik gabe ez sartzeko. Aplikazioak blokeatzeko pasahitza behar da blokeatutako aplikazioak irekitzeko.

Datuen erabilera dminis- tratzea	Erabili telefonoaren administratzaileko datuak kudeatzeko funtzioa datu mugikorren erabilerearen jarraipena egiteko. Automatikoki desgaituko dira erabilera-administratzaileko datu mugikorrek aurretik ezarritako datu-muga gainditzen bada. Datuak erabiltzeagatik gehiegizko gastuak saihesteko jartzen da muga hori. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu Datuen erabilera administratzea atala.
Segurtasuna	Gaitu Segurtasuna funtzioa, konfiguratu pasahitz bat eta, ondoren, gehitu artxibo konfidentzialak, baimendu gabeko sarrerarik izan ez dadin. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu Segurtasunean fitxategi pribatuak gordetzea .
microSD txartela zifratzea	Zifratu microSD txartela, baimenik gabeko inork zure daturik eskura ez dezan. Pasahitz bat idatzi behar da microSD txartela beste telefono batean sartzean. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu microSD txartel bat zifratzea atala.
SIMa blokeatzea	Konfiguratu SIM txartelaren PIN bat SIM txartelean gordetako datuak babesteko. SIM txartelaren babes PINaren bidez aktibatu baduzu, PINa sartu behar duzu telefonoa pizten duzun bakoitzean edo SIM txartela beste telefono batean sartzen duzunean. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi SIM txartelaren PIN kodea konfiguratzea atala.
Pantaila desblokeatzeko modua	Hautatu pantaila desblokeatzeko moduetako bat, eta saihestu baimenik gabe inork zure telefonora sartzea. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi Pantaila desblokeatzeko modua aldatzea atala.

Lege-oharra

Copyright © Huawei Technologies Co., Ltd. 2016. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Debekatuta dago eskuliburu honen zati bat erreproduzitzea edo transmititzea, edozein modutan eta edozein baliabideren bidez, Huawei Technologies Co., Ltd. enpresak eta haren afiliatuek (Huawei) aldeztu aurretik idatzizko baimenik eman ez badute.

Baliteke Huawei enpresaren eta beste lizentzia-emaile batzuen egile-eskubideek babestutako softwarea izatea eskuliburu honetan deskribatzen den produktuak. Bezeroek ezin dute software hori erreproduzitu, banatu, aldatu, deskonpilatu, desmuntatu, desenkriptatu, atera, alokatu edo utzi, ez eta atzerantzko ingeniarietza egin ere; halaber, ezin dizkiete hirugarren batzuei eman software horren azpilizentziak, baldin eta indarrean dagoen legeak ez baditu murrizketa horiek debekatzen edo egile-eskubideen titularrek ekintza horiek baimentzen badituzte.

Marka komertzialak eta baimenak



HUAWEI, HUAWEI eta



Huawei Technologies Co., Ltd. enpresaren marka komertzialak edo erregistratuak dira.

Eranskina Google Inc. enpresaren marka da Android™.

ETSIren marka komertziala da LTE.

Bluetooth® logotipoak eta marka *Bluetooth SIG, Inc.* enpresarenak dira, eta Huawei Technologies Co., Ltd. enpresak lizentzia-hitzarmen baten bidez erabiltzen ditu beti.

Dokumentu honetan aipatzen diren enpresa, zerbitzu, produktu eta marka komertzialen beste izen batzuk beren titularren jabetzakoak izan litezke.

Oharra

Dokumentu honetan deskribatzen diren produktuaren eta osagarrien ezaugarriak aldatu egiten dira instalatutako softwarearen, ahalmenen eta sare lokalaren doikuntzen arabera. Beraz, baliteke sare-operadoreek edo sare-zerbitzuen hornitzaileek ez aktibatu izana edo mugatu izana.

Hori dela eta, gerta liteke eskuliburu honetako deskribapenak guztiz bat ez etortzea eskuratutako produktuarekin edo osagarriekin.

Huaweik eskubidea du eskuliburu honetako informazioa edo zehaztapenak aldatzeko, aurrez jakinarazi gabe, eta ez du izango inolako erantzukizun komertzialik.

Hirugarren batzuen softwareari buruzko adierazpena

Huawei ez da produktu honekin batera ematen diren softwarearen eta hirugarren batzuen aplikazioen jabetza intelektualaren titularra. Beraz, Huaweik ez du emango inolako bermerik softwarearako eta hirugarren batzuen aplikazioetarako. Halaber, Huaweik ez die laguntza-zerbitzurik emango software eta aplikazio horiek erabiltzen dituzten bezeroei, eta ez du erantzukizunik izango softwarearen eta hirugarren batzuen aplikazioen errendimenduaren gainean.

Softwarearen eta hirugarren batzuen aplikazioen zerbitzuak eten edo amaitu egin daitezke edozein unetan, eta Huaweik ez du bermatzen inolako eduki edo zerbitzuren eskuragarritasunik. Hirugarren zerbitzu-hornitzaileek Huaweiren kontrolpean ez dauden transmisio-tresnen edo sareen bidez eskaintzen dituzte edukiak edo zerbitzuak. Indarrean den legeriak ezartzen duen maila gorenean, espresuki ezartzen da Huaweik ez duela izango erantzukizunik eta ez duela konpentsaziorik emango hirugarren batzuen zerbitzuen hornitzaileen zerbitzuengatik edo hirugarren batzuen edukia edo zerbitzuak eteteagatik edo bukatzeagatik.

Huaweik ez du izango erantzukizunik produktu honetan instalatutako softwarearen legezkotasunaren, kalitatearen eta beste inolako alderdiren gainean, ez eta edozein modutan transmititutako hirugarren batzuen lanen gainean ere (besteak beste, testuak, irudiak, bideoak, softwarea...). Bezeroek beren gain hartuko dituzte softwarea instalatzearen edo hirugarren batzuen lanak transmititzearen edo deskargatzearen ondorio guztiak, baita softwarearen eta produktu honen arteko bateragarritasuna ere.

Kode irekiko Android™ plataforman oinarrituta dago produktu hau. Huaweik egin beharreko aldaketak egin ditu plataforma horretan. Beraz, baliteke produktu honek ez onartzea Android plataforma estandarrekin bateragarriak diren funtzio guztiak edo ez izatea bateragarria hirugarren batzuen softwarearekin. Huaweik ez du eskaintzen inolako bermerik edo deklaraziorik bateragarritasun horri lotuta, eta espresuki uko egiten die gai horiei lotutako erantzukizun guztiei.

ERANTZUKIZUNIK EZA

ESKULIBURU HONEN EDUKIA EZ DA INOLAKO BERMEA. APLIKATU BEHARREKO LEGERIAK HALA ESKATZEN DUEN KASUETAN IZAN EZIK, EZ DA EMATEN INOLAKO BERMERIK, EZ ESPRESUKI, EZ INPLIZITUKI. BESTEAK BESTE, EZ DA ESKAINTZEN ESKULIBURU HONEN ZEHAZTASUNARI, FIDAGARRITASUNARI EDO EDUKIARI DAGOKION MERKATURATZE- EDO EGOKITASUN-BERMERIK HELBURU ESPEZIFIKO BATERAKO.

LEGEAK BAIMENDUTAKO MAILA GORENEAN EZARTZEN DA HUAWEI INOLA ERE EZ DELA IZANGO KALTE BEREZI, NAHI GABEKO, ZEHARKAKO EDO ZERBAITEN ONDORIOZKOEN ERANTZULE, EZ ETA ONURAK, NEGOTZIOA, DIRU-SARRERAK, DATUAK, MERKATARITZA-FUNTSA EDO AURRERATUTAKO AURREZPENAK GALTZEAREN ERANTZULE ERE, GALERA HORIEK AURREIKUSTEKO MODUKOAK IZAN ZEIN EZ.

PRODUKTU HAU ESKURATZEKO BEZEROEK ORDAINDUTAKO ZENBATEKORA MUGATUKO DA ESKULIBURU HONETAN DESKRIBATZEN DEN PRODUKTUAREN ERABILERAREN ONDORIOZKO GEHIENEZKO ERANTZUKIZUNA (MUGA HORI EZ ZAIO APLIKATUKO KALTE PERTSONALETARAKO ERANTZUKIZUNARI, INDARREAN DEN LEGERIAK DEBEKATU EGITEN BAITU MUGA HORI EZARTZEA).

Inportazioari eta esportazioari buruzko araudia

Bezeroek inportazioari eta esportazioari buruz indarrean dauden legeria eta arauak bete behar dituzte, eta eskuliburu honetan aipatutako produktua softwarea eta datu teknikoak barne esportatzeko, berresportatzeko edo inportatzeko behar diren gobernu-baimen eta -lizentzia guztiak eskuratu behar dituzte.

Pribatutasun-politika

Zure datu pertsonalak nola babesten ditugun hobeto ulertzeko, ikus pribatutasun-politika, hemen:

<http://consumer.huawei.com/privacy-policy>.

Erreferentzia gisa soilik erabiltzekoa da eskuliburu hau. Baliteke eskuratuko produktua desberdina izatea: kolorea, tamaina, pantailaren diseinua... Eskuliburu honetako adierazpen, informazio eta gomendioek ez dute sortzen inolako bermerik, ez berariazkorik, ez inpliziturik.

Oharra: Gogoan izan Googleren zein konturekin hasi duzun saioa telefonoan, sartu zaren azkeneko aldian.

Telefonoa fabrikako balio lehenetsietara modu ez-fidagarrian berrezartzean edo microSD txartelean oinarritutako eguneraketa egitean, Googleren lapurreten aurkako mekanismoak eskatzen du nabigazio-pantailatik azkena abiarazitako saioko kontura sartzeko, identitatea baimentzeko. Identitatea baimendu ondoren bakarrik piztu ahal izango da telefonoa behar bezala.



EVA-L09: The N-Mark is a trademark or registered trademark of NFC Forum, Inc. in the United States and in other countries.

Kontsultatu <http://consumer.huawei.com/en/support/hotline> webgunean zure herrialde eta lurralderako bezeroarentzako arreta-zerbitzuko telefono eta helbide elektroniko eguneratuak.

Modeloa: EVA-L09
EVA-L19
EVA-L29

V100R001_01